

2020an  
egindako  
txostena

**[EMAKUMEEN  
AURKAKO  
INDARKERIARI  
BURUZKO DATUAK.  
EAE, 2019]**

# EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN INTZIDENTZIARI BURUZKO DATUAK EAE-N (2019)



Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Txosten hau EDE Fundazioak egin du, Emakunderentzat.

## AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b> .....	<b>4</b>
Zer gai berri jaso dira txosten honetan? .....	5
<b>ESPARRUA</b> .....	<b>6</b>
<b>Emakumeen aurkako indarkeria: kontzeptualizazioa</b> .....	<b>6</b>
<b>Emakumeen aurkako indarkeria moduak</b> .....	<b>9</b>
<b>Legegintzako mugarrak</b> .....	<b>13</b>
<b>METODOLOGIAREN INGURUKO OHARRAK</b> .....	<b>24</b>
<b>Informazio-iturriei buruzko zehaztapen batzuk</b> .....	<b>24</b>
<b>ARAZOAREN NORAINOKOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN INTZIDENTZIA ETA PREBALENTZIA</b> .....	<b>28</b>
<b>Erregistro ofizialetako datu orokor batzuk:</b> .....	<b>28</b>
Zenbat eraso erregistratu dira? Zenbat emakumek jasan dituzte erasoak? .....	28
Zer emakumek pairatu dute? Adina eta jatorria.....	31
Indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak.....	35
Nork gauzaten du indarkeria hori? Zer harreman edo lotura izaten dute erasotzaileak eta biktimak? .....	36
Non gertatzen dira erasoak? .....	40
Noiz gertatzen dira erasoak?.....	44
Zer eraso mota egiten dira gehien? .....	45
Indarkeria horrek zer ondorio eragiten dizkie emakumeei?.....	47
Zenbat eraso salatzen dira? .....	50
Zer babes dute emakumeek? .....	52
<b>Indarkeria ezkutua: inkestetako datu orokor batzuk</b> .....	<b>53</b>
<b>ZENBAIT DATU ETA EZAUGARRI ESPEZIFIKO, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA-MOTEN ARABERA</b> .....	<b>58</b>
<b>Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria:</b> .....	<b>58</b>
<b>Emakumeen aurkako familia-eremuko indarkeria:</b> .....	<b>63</b>
<b>Sexu-indarkeria familia-eremutik kanpo:</b> .....	<b>65</b>
<b>Emakumeen aurkako indarkeria moduak:</b> .....	<b>69</b>
Ziberindarkeriak .....	69
Lan-eremuko indarkeria .....	72
Sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa .....	74
Emakumeen genitalen mutilazioa .....	76

<b>ASKOTARIKO DISKRIMINAZIOA: ZER EGOERATAN JARRI BEHAR DA ARRETA BEREZIA? .....</b>	<b>78</b>
<b>ADINA: neskatoak, nerabeak, emakume gazteak eta emakume helduak .....</b>	<b>78</b>
<b>JATORRIA: emakume migratuak eta emakume arrazatuak .....</b>	<b>84</b>
<b>DESGAITASUNA: desgaitasuna eta gaixotasun mentala duten emakumeak .....</b>	<b>86</b>
<b>BAZTERKETA: bazterketa-egoeran edo bazterketa-arrisku larrian dauden emakumeak ....</b>	<b>90</b>
<b>HERRITARREK EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN GAINEAN DUTEN PERTZEPZIOA ....</b>	<b>92</b>
<b>DATU GARRANTZITSUENEN JARRAIPENA EGITEKO ADIERAZLEAK.....</b>	<b>101</b>
<b>ONDORIOAK: gako garrantzitsuenak .....</b>	<b>103</b>
<b>ERREFERENTZIA DOKUMENTALEN DOSSIERRA.....</b>	<b>111</b>
<b>Bibliografia .....</b>	<b>111</b>
<b>Araudi- eta erregelamendu-esparrua.....</b>	<b>121</b>
<b>Emakumeen eta gizonen berdintasuna .....</b>	<b>121</b>
<b>Emakumeen aurkako indarkeria .....</b>	<b>123</b>
<b>Emakumeen aurkako indarkeriaren eremuan erreferente diren instituzioak eta antolakundeak (informazio-iturriak).....</b>	<b>129</b>

# SARRERA

Emakumeen aurkako indarkeria desberdintasunaren eta gizonen emakumeen gainetik dituzten botere-harremanen agerkaririk ankerrena da. Egiturazko indarkeria bat da, emakumeen bizitzako arlo guztietan gauzatzen dena (eskola, lana, gizartea, politika, familia, eta abar); indarkeria horrek ez die emakumeei uzten giza eskubideez eta oinarritzko askatasunez erabato gozatzeko.

Indarkeria hori giza eskubideen urraketa larritzat hartu da, eta jada ez da joko-eremu pribatuan gertatzen den arazotzat hartzen; hori izan da mota horretako indarkeriaren aurkako borrokan azken urteotan erdietsitako lorpen handienetako bat. Horren ondorioz, gehiago sartu da agenda politiko eta instituzionaletan.

Emakunderen lanaren lehentasunetako batzuk Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta hori nozitzen duten emakumeen arretaren koordinazioa dira. Horren ildotik, azken urteetan argitaratu dituen txostenetan ondo islatzen da zer-nolako konpromisoa duen Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE) emakumeen aurka baliatzen den indarkeriari buruzko informazioa biltzeko eta sistematizatzeko, xede izanik indarkeria mota hori ageriko egitea.

Hemen aurkezten den lanak, 2015. urteaz geroztik urtero egin izan diren guztiek bezalaxe, aukera ematen du emakumeen aurkako indarkeriari buruz gehiago jakiteko eta errealitate hori hobeto ezagutzeko, eta, hala, arlo horretako politikak ikuspegi orokor batetik bideratzeko, gaur egun barreiatuta dagoen ezagutza zabala aintzat hartuta.

Txostenean, datu kuantitatibo batzuk jasotzen dira, arazoa norainokoa den eta arazoari zer faktore lotzen zaizkion erakusteko. Txosten honen zati handi batek Ertzaintzaren Azterlan eta Analisi Dibisioak (Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila) emandako datuak ditu oinarri. Datu horiei esker dakigu EAEko poliziak 2019. urtearen joanean ofizialki erregistratutako emakumeen kopurua eta emakumeen aurkako indarkeriagatiko kasuen kopurua (biktimizazioak); datu horiek *Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioan* adierazitako hiru eremuetan jaso dira (bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumeen aurka erabilitako indarkeria, familia barneko indarkeria, eta sexu-askatasunaren aurkako delituak familia-eremutik kanpo).

Iturri hori gaur egun gurean dagoen informazio-erreferentzia nagusietako bat den arren, kontuan hartu behar da haren datuek emakumeen aurkako indarkeriaren arazoaren zati bat baino ez dutela islatzen. Ez dute beste emakume askoren errealitatea erakusten, hala nola erakundeetara hurbildu ez diren emakumeena, salaketa aurkeztu ez duten emakumeena edo indarkeriari beste bide batzuetatik (familia, emakumeen elkarrekin...) aurre egiten dieten emakumeena.

Hori hala izanik, beste iturri batzuetatik bildutako datuak ere jaso dira (erregistro ofizialak, baliabideak eta programak kudeatzen dituzten erakundeen datuak, ikerketak, txostenak, balantzeak...), denbora-tarte desberdinei dagozkienak (2019koak edo aurrekoak), azken eguneratzearen arabera hautatuak. EAEko erreferentziez gainera, beste lurralde-eremu batzuetako informazio esanguratsua ere jaso dugu, analisia aberaste aldera (Espainiako eta Europako datuak, besteak beste).

Eta azkenik, adierazle nagusien datuen bilakaerari buruzko atal bat erantsi dugu, laburpen moduan, EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu garrantzitsuenen jarraipena errazago egin ahal izateko.

## Zer gai berri jaso dira txosten honetan?

EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren inpaktua oro har osotasunean lantzeko, txosten honek aurreko urteetan egin diren txostenekiko berrikuntza garrantzitsu batzuk biltzen ditu:

- ▶ **Edukien egitura.** Edukiak beste modu batera antolatu dira, zenbait alderdi espezifiko errazago aurkitzeko, eta, horrezaz gain, datuak iturrien arabera bereizteko.
- ▶ **Datuen eta iturrien eguneratzea.** Aurreko urteetan bezalaxe, ahal izan ditugun datu guztiak eguneratu ditugu, eta oraingo honetan, gainera, bestelako informazio-iturri askoz ere gehiago erabili ditugu kontsulta egiteko.
- ▶ **Beste indarkeria modu batzuk.** Txosten honetan beste indarkeria modu batzuei buruzko informazio espezifikoa bildu dugu; besteak beste, hauei buruzkoa: ziberindarkeriak, lan-arloko indarkeria, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa eta emakumeen genitalen mutilazioa.
- ▶ **Askotariko diskriminazioa.** Askotariko diskriminazioaren analisia zabalagoa da, eta garrantzi berezia eman diegu aldagai hauei: adina, jatorria, desgaitasuna eta gizarte-bazterketa.
- ▶ **Edukia egokituta.** Analisia eta idazketa egokitu egin dira, txostena kontsultatu nahi duten pertsona guztiei ulerterrazago, eskuragarriago eta hurbilago egin dakien.
- ▶ **COVID-19a.** COVID-19 gaitzak eragindako krisiaren ondoriozko mugimendu-murrizketaren inguruko neurriek emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean izan duten eraginari buruzko atal bat gehitu dugu.

*EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren intzidentziari buruzko datuak (2019) izeneko txosten honek Euskadiko emakumeen aurkako indarkeriaren norainokoari buruzko datu xeheak eta eguneratuak eskaintzen ditu, eta era guztietako indarkeriarik gabeko mundu baten aldeko ezagutza handitzeko eta zabaltzeko tresna da.*

# ESPARRUA

## Emakumeen aurkako indarkeria: kontzeptualizazioa.

Emakumeek emakume izate hutsagatik pairatzen duten indarkeriari esaten zaio emakumeen aurkako indarkeria: gizonezkoen hegemonian oinarritzen den gizarte batean erabiltzen da, eta hegemonia horrek botere-harreman desorekatuak sorrarazten ditu emakumeen eta gizonen artean. Indarkeria mota ugari daude, sexu-genero sistemaren eraginpekoak guztiak. Baina gizonezkoek gauzatzen duten indarkeria aztertuko dugu hemen, hau da, emakumeen gaineko kontrola eta haiekiko nagusitasuna edukitzea helburu duen indarkeria.

Beijingen egindako *Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzian* (1995) adostu zen Ekintzarako Plataformak adierazitakoa bere eginez, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak* honela definitzen du emakumeen aurkako indarkeria: «Emakumea izateagatik pairatutako edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumeari ekintza horiek egiteko mehatxu egitea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bitziza publikoan edo pribatuan»<sup>1</sup>.

Egiturazko indarkeria da emakumeen aurkako indarkeria hori, hau da, gizarte-egitura matxistaren barruan antolatu eta ezarria da, eta, horrenbestez, indarkeria horrek gizartearekin du zerikusia, nahiz eta pertsona jakin batzuek harreman pribatuetan erabiltzen duten indarkeria izan.

Indarkeria mota hori ez da soilik gauzatzen kultura, eskualde edo herrialde jakin batzuetan, ez eta gizarte bateko emakume talde jakin batzuen aurka ere. Egoera orokor horretan, bada alderik emakumeen egoeren artean (emakume afrikarrak, asiarrak, latinoamerikarrak, europarrak, neskatilak, gazteak, emakume helduak, adinekoak, soldatapekoak, langabetuak...), baina guztiak bizi dira gizonekiko mendetasunean (egoera horrek adierazpen anitz baditu ere).

Mendekotasun horren sorburu, teoria feministen ildotik, lanak sexuaren arabera banatzea oinarritzat hartuta ezarri den hierarkia historiko eta unibertsala da, produkzio moduek denboran iraunarazi dutena. Gizarteak antolamendu sexistak du, besteak beste, emakumeei ematen zaielako ugaltze-rola eta haien esku uzten delako etxeko lanen ardura (hala, bigarren mailako garrantzia ematen zaio biziraupen-sistemari, eta haren balioa gutxietsi egiten da); aldiz, gizonak izan ohi dira produkzioko edo ekoizpeneko lanen arduradun (eta lan horiek arlo guztietan «kontrola» edukitzeko aukera ematen dute). Sexua-generoa sistemak ezaugarri, balio, funtzio eta rol jakin batzuekin lotzen ditu sexuak, eta, horrez gain, desparekotasun bihurtzen du desberdintasuna. Hau da, sistema horrek generoak bereizteaz gain, hierarkiak ere ezartzen ditu generoen eta generoen barne-osagaien artean; hori horrela, gutxietsi egiten dira emakumeak eta emakumeei lotutako rolak, funtzioak eta ezaugarriak, eta neurriz gain balioesten gizonezkoen lotutakoak.

---

<sup>1</sup> NAZIO BATUAK. *Beijingo Adierazpena. Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzia*. Beijing: Nazio Batuak, 1995.

Teoria feministaren arabera, patriarkatua da.<sup>2</sup> (harremanak gizonen nagusitasunaren kultura-ereduetan oinarritzen diren gizarte-egitura den aldetik) emakumeak, emakume izate hutsagatik, gutxiagotasun-egoeran (zapalkuntzako eta esplotazioko egoeran) jartzen dituen, eta, ondorioz, gizonen kolektiboa baino maila apalagoan jartzen ditu.

Emakumeen aurkako indarkeriaren jatorrian, batetik, emakumeen eta gizonen artean izan diren botere-harreman desorekatuak daude, eta, bestetik, emakumeen aurkako diskriminazio orokortua, bai sektore publikoan, bai sektore pribatuan. Botere-desorekek, arau kultural diskriminatzailerik eta desberdintasun ekonomikoek emakumeen giza eskubideak urratzen dituzte, indarkeria betikituz. Baina kontuan izan behar da, halaber, emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa ez dela erasoetara mugatzen; aitzitik, harreman modu bat da indarkeria, pribilegioak sortu eta erasoak erabiltzen dituen, harremanen asimetria horri eusteko eta emakumeak mendeaz edukitzeko.

Indarkeria hori egiturazkoa da, eta horrela aitortzen dute gaur egun nazioarteko erakunde ugariak. Gure autonomia-erkidegoan, nabarmentzekoa da *Etxeko tratatu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa*, alor askotako erakundeek izenpetua (esparru sanitariokoek, polizia-erakundeek, judizialekoek, abokatuen elkarteek, gizarte-zerbitzuek eta hezkuntzakoek) 2009. urtean. Akordio horren xedea erakundearteko koordinazioa eta lankidetzaren bermatzea da, honako hauek bermatzeko: laguntza osoa eta pertsonalizatua; inolako diskriminaziorik gabeko berdintasuna; prebentzioa, indarkeria-egoera gehiago eragozte aldera; biktimen autonomiaren eta ahalduen garapena; eta efikazia eta azkartasuna, erantzunak berehalak emateko eta biktimizazio sekundarioa ahalik eta gehien saihesteko. Honela dio Akordioaren zioen azalpenak: «Emakumeen aurkako indarkeriak emakumeek bizitzaren eremu ezberdinetan jasaten duten egiturazko ezberdintasun egoeran ditu erroak. Desberdintasun horri gizartean eta familian sexuaren arabera egindako zereginen eta arduren banaketa tradizionalak eusten dio, banaketa horrek, emakumeak gizonen azpitik jartzen baititu».<sup>3</sup>

Gizarteak, menderik mende, sexuaren arabera esleitu izan ditu rola eta balioak (familiaren bidez, eskolan, legeen bidez edo ohituraz instituzionalizatuta), eta jokabide naturaltzat hartu izan da esleipen hori. Egoera horren normalizazio-maila horren handia izan denez, orain gutxi arte ez da auzitan jarri eremu sozialean eta publikoan. Horren harira, hau nabarmendu behar da: «Pentsamolde-aldaketak ez dira politika-aldaketak bezain lasterrak, eta kode patriarkalaren ideiek eta sinesmenek indarrean jarraitzen dute herritar askorengan, nahiz eta bi generoen arteko eskubide-berdintasuna aitortzen duten gizarte demokratikoetan bizi; hori horrela, gizonen eta emakumeen arteko harremanak ulertzeko modu tradizional eta desorekatuetan sozializatu dira ikuskera horiek».<sup>4</sup>

Soziologo askoren iritziz, emakume askorentzat besteak beste horregatik da horren zaila tratatu txarrak salatzea; izan ere, emakumeen aurkako indarkeria normalizatzen eta indarkeria hori hautematea zailtzen duten eredu kulturalen eraginpean hazi dira emakume horiek eta beren ingurukoak. Horrez gainera, sarritan, indarkeria hori hautematen baldin bada ere, ingurukoak isilik geratzen dira edo normalizatu egiten dute indarkeria, eta emakumea babesik gabe uzten

---

<sup>2</sup>Teoria feministak ikerketa sakonak egin zituen 70eko hamarkadan «gizarte patriarkala» izendatu zuen gizarte-antolamendua aztertzeko; hala, teoria horren arabera, gizonen botere-abusuan eta emakumeekiko nagusitasunean oinarritutako gizarte-antolamendua da patriarkatua.

<sup>3</sup>EMAKUNDE. Etxeko tratatu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa, Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2009.

<sup>4</sup> ALBERDI, I. eta MATAS, N. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. Bartzelona: La Caixa fundazioa, 2002. Gizarte Azterlanen Bilduma. 10. zk.



dute indarkeria salatzen erabakia hartu behar duenean; izan ere, emakume ahulduari babesteak ezarritako kontsensu tazituak urratzea eta boteretsuari aurre egitea dakar.

Horregatik guztiatik, emakumeak antolatzen hasten direnean, negoziazio-indarra handitzen dutenean eta gizonezkoen autoritatea auzitan jartzen dutenean, ahuldu egiten da patriarkatua. Baina, hala eta guztiz ere, aurrez ezarritako botere-estatusa zalantzan jarri ondoren sortzen diren indarkeria mota askori egin behar diete aurre: «Lege-diskriminazioa zertxobait apaldu baldin bada ere (...), orokortu egin dira pertsonen arteko indarkeria eta tratatu psikologikoak, gizonak –banaka eta talde moduan– suminduta baitaude, izan duten botere-galerarengatik»<sup>5</sup>.

Gainera, zenbait autorek ohartarazi dutenez, adi erreparatu behar zaie sotilagoak diren eta gizartean hain agerikoak ez diren beste indarkeria-adierazpen batzuei, hain zuzen, «mikromatxismo»<sup>6</sup> deitu izan zaienei. Izan ere, kontrol- eta menderatze-portaera horiek «intentsitate txikiko» gisa hautematen dira; portaera naturalizatuak, legimitatuak eta ezkutatuak izaten dira, baina emakumeenganako abusu-jokabideak dira, emakumea izate hutsagatik egiten direnak.

Gure gizartean gero eta arbuio sozial handiagoa dauka emakumeen aurkako indarkeriak; hala ere, mikromatxismoak dira gizonezkoek erabiltzen dituzten tranpa ohikoenak: emakumeen gainean «autoritatea» izaten jarraitzeko erabiltzen dituzte, gizartearen irudiko hain «larriak» ez diren jokabideak hartuta.

Jokabide sexistak dira, gizonezko gehienek emakumeekiko beren gain hartzen duten «autoritate» zaharrean oinarritzen direnak, uste horrek ez baitu oraindik erabat galdu garai batean zuen legimitazioa. Manipulazio-jokabideak dira, eta beren helburua da, nahiz eta hitzez ez den halakorik adierazten, emakumeek genero-rol tradizionalak betetzen jarraitzea eta gizonen mendekotasunezko posizio gailenari eustea, gizonezkoentzako gero eta abantaila, erosotasun eta eskubide gehiago eskuratzen saiatzeko (askatasun gehiago izateko, arazoia edukitzeko, denbora eta espazio gehiago edukitzeko, zainduak izateko edo etxeko lanetan parte ez hartzeko). Hala, jokabide horien bidez, bigarren maila batean jarrarazi nahi dira emakumeak.

Oso zaila da portaera horiek ikusaraztea eta gizartean deslegitimatzea, nahiz eta eguneroko bizitzan emakumeei oztopoak eta zailtasunak ekartzen dizkieten, berdintasuna iristeko bidean; horra hor, gizonezkoek behin eta berriro izaten duten portaera sotil eta gogaikarri horren arrisku handiena.

Azkenik, berariaz azpimarratu behar da emakumeen aurkako indarkeria horren kontzeptualizazioa diziplinarteko azterlan askotan oinarrituta dagoela, hala nola Gender Studies azterlanetan eta ikuspegi feministako azterlanetan. Garrantzitsua da behin eta berriaz azpimarratzea, zeren eta oraindik ere eragozpen teorikoak eta politikoak jartzen dira azterlan horien aurkikuntzak hainbat lanetan barneratzen (ez da ahaztu behar emaitzak mundu osoan kontrastatu direla eta jakintza-arlo bakoitzari dagozkion metodo eta teknika zientifikoak erabiliz lortu direla); hala, hainbat lan argitaratzen dira oraindik «genero-ikerketek desegokitzen jo dituzten ikuspegiak baliatuta».

Hain zuzen ere, adierazi behar da ikerketa psikologiko askok, gaur egun ere, «teoriak (patriarkalak) eragindako (genero-)itsukeria» dutela<sup>7</sup>. Esate baterako, psikologiaren arloko

<sup>5</sup> CASTELLS, M. *La era de la información. Economía, Sociedad y Cultura. 2. lib. El poder de la Identidad*. Madril: Alianza, 1998.

<sup>6</sup> BONINO, L. «Los micromachismos» in *Revista La Cibeles*. Madril: Madrilgo Udala, 2004; 2. zk., 1-4 or.

<sup>7</sup> DELGADO, C. «¿Por qué la violencia de género es algo diferente?: reenfocando el concepto» in *POZO, M. (zuz.) eta GALLARDO, A. (koord.) ¿Podemos erradicar la violencia de género?* Granada: Comares argitaletxea, 2015. 41-56. or.

zenbait azterlanek (Dating Violence izaerakoek edo bikote gazteen indarkeriari buruzkoek, adibidez) genero-itsukeriak eraginda diotenez, emakumeak eta gizonak biak dira bortitzak, biek maiztasun beraz egiten baitute eraso, baina bi oker egiten dituzte: batetik, eraso puntualetara mugatzen da indarkeria (eta hori kontzeptuzko akats handia da), eta, bestetik, berdintzatzen dira bai eraso instrumentalak edo proaktiboak (helburua zerbait lortzea da, hala nola baliabideak, norbait mende hartzea edo estatus soziala edo zerbait gehiago), eta bai eraso erreaktibo edo defentsiboak (kasu horietan, egiazko edo hautemandako ofentsa bati erantzuteko erabiltzen da eraso).

Emakumeen aurkako indarkeriaren arazoari behar bezala heltzeko, aztertu behar da, batetik, gizarte-sistema nola egituratzen den sexu batek bestea menderatzea legitimatzeko, eta bestetik, nola erabiltzen diren erasoak sexu batek bestearekiko dituen pribilegioei eusteko (modu instrumentalean), eta saihestu egin behar da jokabidea baino ez kontuan hartzea, hark zer esanahi eta ondorio dituen albo batera utzita. Hau da, nahitaezkoa da berdintasun ezaren baldintzei begiratzea, erasoen intenzionalitatea modu batekoa edo bestekoa izatea eragiten baitute.

Genero-azterlanak eta ikuspegi feministako azterlanak tradizio zientifikoaren zati handi baten androzentrismoa salatzen dabilta; izan ere, askok ez dute ulertzen gizonek eta emakumeek osatzen dutela gizartea, etengabe adierazten dituzte gizartean nagusi diren aurreiritziak eta balioak, eta, finean, itsu dira genero-diferentziekiko.

## Emakumeen aurkako indarkeria moduak


Emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptuak adiera zabala du, eta ez da mugatzen bikotekideen edo bikotekide ohien arteko tratatu txarretara eta sexu-erasoetara. Emakumearen aurkako indarkeria-modu asko daude (indarkeria fisikoa, sexuala, psikologikoa, ekonomikoa, etab.), eta eremu askotan erabiltzen da (familian, komunitatean, Estatuaren aldetik, gatazka armatuetan, etab). Beraz, neskak eta emakumeen aurkako indarkeriak adierazpen ugari ditu, nahiz eta indarkeria modu batzuk ohikoagoak diren gune, herrialde eta eskualde jakin batzuetan.

Edonola ere, emakumeen aurkako indarkeria-modu guztiek dute elkarren arteko lotura: «Emakumeak mespretxatzen eta beheratzen dituen ideologia patriarkala dago sexu-erasoen, laneko sexu-jazarpenaren, etxeko erasoaren eta bortxaketaren atzean»<sup>8</sup>.

Irizpide bat baino gehiago erabil daiteke indarkeria moduak sailkatzeko. Txosten honetarako, bi sailkapen planteatzea erabaki da: lehen sailkapen moduan, eragindako indarkeriaren elementuak hartzen dira kontuan (ekonomikoa, sexuala, psikologikoa, etab.), eta bigarrenetan, berriz, indarkeriaren eremua eta indarkeria erabiltzen duenaren eta biktimaren arteko harremana (bikote-harremana, bikotekide ohiarena, etxekoa, soziala, lanekoa, etab.).

---

<sup>8</sup> ALBERDI, I. eta MATAS, N. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. Bartzelona: La Caixa fundazioa, 2002. Gizarte Azterlanen Bilduma. 10. zk.




Indarkeriak dituen elementuen arabera, indarkeria mota hauek bereiz daitezke: indarkeria fisikoa, indarkeria psikologikoa, sexu-indarkeria, indarkeria ekonomikoa, indarkeria soziala eta indarkeria sinbolikoa.

- **Indarkeria fisikoa:** emakumearen biziaren edo osotasun fisikoaren aurka egiten duen indarkeria da, edo xede hori duena. Ekintza ez-istripuzkoa da, min fisikoa eragiten duena edo eragin dezakeena. Horietako batzuk dira bultzakadak eta kolpeak ematea, gauzak jaurtitzea eta antzekoak, baldin eta emakume bati heriotza, lesio larriak, tratamendu medikoa edo kirurgikoa behar duten lesioak edo ospitaleraterik gabeko lesioak eragiteko modukoak baldin badira. Erasoen ondoriozko gaixotasunak eta lesioak zaintzeko laguntzarik ez ematea ere tratatu txartzat hartzen da. Tratu txarren modu hori da bikotearen edo bikote ohiaren aurka erabiltzen den indarkeriaren adierazpen ezagunena, indarkeria horren eragina emakumeen gorputzean nabarmentzen baita maiz.
- **Indarkeria psikologikoa:** min edo sufrimendu psikologikoa edo emozionala sortzen edo sorrarazi nahi duen indarkeria da, bai eta emakumearen duintasuna ukatzea, hari segurtasun eza eragitea, emakumeak bere buruari errespetua ez izatea, mendekotasun emozionala sortzea, autoestimua galaraztea, gizartetik bakartzea eta askatasunaz gabetzeko bestelako moduak baliatzea ere, mehatxuak, laidoak eta umiliatze-saioak eginez, baldintzarik gabeko mendekotasuna edo etengabeko zaintza ezarraraziz. Hitzeko jokabide hertsagarriak dira (esaterako, irainak) edo hitzik gabeko jokabide hertsagarriak, bikotekidea ukitzera iristen ez badira ere (esaterako, atek kolpatzea edo objektuak suntsitzea). Tratu txar psikologikoak nahitako jokabideak dira, min psikologikoa, norbere buruarenganako konfiantzaren galera edo sufrimendua ekartzen dutenak: irainak, laidoak, oihuak, isiluneak, mehatxuak, salaketak, bestearen ideien kritikak... Jokabide horiek jendearen aurrean nahiz eremu pribatuan egin daitezke, eta oso zaila da horiek hautematea baldin eta erasotzaileak portaera hori arlo pribatuan baino ez badu.
- **Sexu-indarkeria:** emakumeen gorputza beren borondatearen aurka erabiltzea dakarren indarkeria da. Eraso fisikoa eta laido psikologikoa ere bada, pertsonaren sexu-askatasunaren aurkakoa. Sexu-indarkeriazko jokabideak dira sexu-erasoak, sexu-abusuak, sexu-jazarpenak, exhibizionismoa, sexu-probokazioa, adingabeak galbidean jartzea eta adingabeen pornografia. Sexu-indarkeriazko jokabidetzat hartzen dira, baita ere, behartutako prostituzioa, pertsonak sexu-xedeetarako salerostea, genitalen mutilazioa (infibulazioa), eta birjintasuna, haurdun ez izatea eta/edo fideltasuna 'egiaztatzeko' egiten diren azterketa behartuak. Sarritan, indarkeria mota hori ez da indarkeria moduan ikusten bikotekideen artean, emakume askok ez baitu uste sexualitate behartua bortxaketa denik. Horregatik, nahiz eta indarkeria mota hori emakumeen aurka munduan gehien erabiltzen denetakoa izan, gutxien salatzen

denetakoa da. Gizonezkoek eragindako sexu-indarkeria patriarkatuak emandako abantaila-baldintzetan bermatzen da, eta, emakumeen gorputza erabiliz, emakumeak mendean hartzea du helburu.

Hauek dira, xehetasunez azalduta, modalitate batzuen arteko diferentziak:

- **Sexu-erasoa:** *onespenik gabeko sexu-harremana da, indarkeria erabiliz edo emakumea beldurraraziz egiten dena. Kasurik argiena bortxaketa da, bortxaketaren forma guztiak. Emakumeak bortxatzen direnean, biktimizazio bikoitza gertatzen da askotan, emakumea jasandako erasoaren erantzule egiten baitute.*
  - **Sexu-abusua:** *sexu-izaerako jokabideak egitean datza, baina indarkeria erabili gabe edo emakumea beldurrarazi gabe. Zigor-kodeak bereizi egiten ditu onespenerik gabeko gehiegikeriak eta engainuz edo nagusitasun-egoera bat baliatuz egindako gehiegikeriak.*
  - **Sexu-jazarpena:** *lan-harremaneko, irakaskuntza-harremaneko edo zerbitzuak emateko esparru batean, norberarentzat edo beste batentzat usu eta modu jarraitu batean sexu-mesedeak egiteko eskatzea da; horren ondorioz, biktima larderia larriko egoera iraingarri edo umiliagarrian aurkitzen da. Horren eraginez, aldatu egin daiteke biktimak lan-esparruan duen jokabidea: jazarlearekin bakarrik ez suertatzeko ahaleginak egin ditzake, janzkera jakin bat eraman, etab. Horrezaz gain, lan-esparruan gerta daiteke biktima lanetik kaleratzea, mailaz ez igotzea edo mehatxatua izatea ekintza horien bidez.*
- **Indarkeria ekonomikoa edo finantzarioa eta/edo ondarezkoa:** emakume baten eta, halakorik bada, emakumearen seme-alaben edo ekonomikoki haren mende daudenen ongizate fisikoa edo psikologikoa borondatez eta arrazoirik gabe urratzeko ekintzek osatzen dute indarkeria ekonomikoa. Horren barnean sartzen da, halaber, norberaren baliabide ekonomikoak, familiakoak edo bikotekideenak edukitzeko aukerak mugatzea. Tratu txar ekonomikoak lotura handiagoa du baliabide ekonomikoak erabiltzeko lehentasunekin, baliabiderik ez izatearekin baino. Lan ordaindua duten emakumeei zein lan ordaindurik gabeko emakumeei ezartzen zaie kontrol hori.
  - **Indarkeria soziala:** emakumea bakartzea eragiten du indarkeria sozialak; hau da, bere senideengandik eta lagunengandik urrunarazten du emakumea, jendaurrean mespretxatzen edo baztertzen du, eta abar. Jokabide horiek guztiek min psikologikoa egiten dute.
  - **Indarkeria sinbolikoa:** indarkeria sinbolikoa edo zeharkakoa gertatzen da sinesmen eta rol sozial jakin batzuk barneratzen direnean: gizonezkoen gailentasuna erreproduzitzen duten edo aurreko atalean azaldu diren indarkeria motak justifikatzen edo hutsaltzen dituzten sinesmen eta rolak izaten dira, biktimek berek ere barnera ditzaketenak. Mezuak, balioak, irudiak eta zeinuak dira, pertsonen arteko harreman sozialetan mendekotasuna, desoreka eta diskriminazioa erreproduzitzen eta transmititzen dutenak eta emakumeek gizartean duten mendetasun-egoera naturalizatzen dutenak.



Indarkeria-eremuen arabera, indarkeria hauek bereizten dira: bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremukoa, familia barneko indarkeria, laneko edo hezkuntza-eremuko indarkeria, komunitate-eremuko indarkeria eta indarkeria instituzionala.

Bestalde, eremu hauetan gertatzen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistaren moduak<sup>9</sup>:

- **Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremuan:** besteak beste, indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa baliatzen du emakumearen aurka haren bikotekideak, haren bikotekide izan denak edo emakumearekin antzeko lotura afektiboa duen edo izan duen gizonezkoak.
- **Familia barnean** (bikotekideen eta bikotekide ohien indarkeria kanpo utzita)<sup>10</sup>: besteak beste, indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa baliatzen du emakumearen aurka bizikidetzaren edo familiako kideren batek, aurreko puntuan adierazitako bat ez dena, aintzat hartu gabe emakumearekin bizi diren ala ez eta indarkeria zer eremutan gertatzen den.
- **Lanean edo hezkuntza-eremuan:** besteak beste, indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa baliatzen da emakumearen kontra lanean edo irakaskuntza-eremuan, sexu-jazarpenaren bidez edo sexuan oinarrituta. Indarkeria, eremu horietan, lanorduetan eta eskola-orduetan edo ordu horietatik kanpo eragin daiteke, eta lantokian edo ikastegian nahiz eremu horietatik kanpo.
- **Komunitatean:** eremu horretan gertatzen dira, besteak beste, emakumeen aurkako indarkeria fisiko, sexual eta psikologikoko jokabideak, harreman sozialen esparruan. Botere edo nagusitasunezko posizioak baliatzen dira indarkeria-ekintza horiek egiteko, hala nola sexu-erasoak eta -gehiegikeriak, sexu-jazarpenak eta sexuan oinarritutako jazarpenak, emakume eta neskatilen salerosketak eta ezkontza behartuak, eta emakumeen osasunaren aurkako eta haien ugaltze- eta sexu-eskubideen aurkako indarkeria (esate baterako, fetu femeninoen abortu selektiboak, esterilizatze behartuak eta emakumeen genitalen mutilazioa).
- **Eremu instituzionalean:** erakunde, organo edo instituzio publikoetako agintari, funtzionario, profesional, langile eta agenteek egindako ekintzak edo ez-egiteak dira, baldin eta horien helburua bada oztopoak eta eragozpenak jartzea emakumeek politika

<sup>9</sup> Gatazka armatuak ere zerranda horretan sartzen dira (eta, horien artean, besteak beste, emakumeen giza eskubideen urraketa, eta bereziki, haiek gatibu hartzea, bizilekuz aldatzea behartzea, modu sistematikoan bortxatzea, sexu-esklabutza, behartutako haurdunaldiak eta emakumeak sexu-esplotaziorako eta ustiapen ekonomikorako salerostea); hala ere, azterlanaren mugetatik kanpo geratzen dira oraingo honetan.

<sup>10</sup> Adierazi behar da azterlan batzuek batera aztertzen dituztela bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremua eta familia barneko genero-indarkeria, eta eremu horri familia-eremua edo etxeko eremua esaten diotela.

publikorako sarbidea izan dezaten eta legeek indarkeriarik gabe bizitzeko aitortzen dizkieten eskubideak erabil ditzaten.

Adierazi den moduan, botere-harreman desorekatuak daude emakumeen aurkako indarkeriaren atzean, eta botere horien azken xedea ez da emakumeak zauritzea, baizik eta mendean edukitzea emakumea, eta harremanean boterea eta autoritatea edukitzea. Indarkeria motak modu ziklikoan gertatu ohi dira, eta ziklo horiek, gainera, hautemanekin edo isilean egindakoak izaten dira askotan. Ildo horretatik, «indarkeria-kate bateko beste katemaila bat» bezala ikusi behar da eraso bakoitza»<sup>11</sup>.

Gizartean aldaketa demografikoak, ekonomikoak eta eraldaketa sozialak eta kulturalak gertatu ahala, gero eta gehiago erabiltzen dira indarkeria modu batzuk, eta gero eta gutxiago, beste batzuk. Esaterako, teknologia berriek indarkeria modu berriak dakartzate, hala nola Internet bidezko edo telefono mugikorren bidezko jazarpena.

## Legegintzako mugarrak

Zenbait arauen bidez, emakumeen aurkako indarkeriari ematen zaion erantzuna hobetzeko ahalegina egin da. Azken urteetan bultzatu den lege-esparruak neurri batzuk arautu ditu indarkeria mota hori prebenitzeko eta desagerrarazteko, biktimak babesteko, eta indarkeria erabiltzen dutenak arbuizatzeko, zigortzeko eta ez toleratzeko.

Hona hemen **legegintzako mugari nagusiak**:

### **Nazioartean.**

---

Genero-indarkeriaren arazoa Nazio Batuen Erakundearen (NBE) planteatu zen lehen aldiz, emakumeen eskubideen aldeko aktibismoak bultzatuta. Gaiak berebiziko bultzada izan zuen Nazio Batuen Erakundearen Emakumeentzako Hamarkadan (1975-1985); izan ere, garai horretan, nabarmen handitu zen NBEren ekintza-programari atxiki zitzaizkion erakunde feministen kopurua, eta indar handia eman zitzaien emakumeei buruzko nazioarteko eta eskualdeko konferentziei. **Emakumeei buruzko lehen Mundu Konferentzia** Mexiko Hirian egin zen, 1975ean, Emakumearen Nazioarteko Urtean. Konferentzia horretan, genero-indarkeriaren gaineko nazioarteko elkarrizketari ekin zitzaion, eta asmo handiko hiru helburu ezarri ziren: berdintasuna, garapena eta bakea. Konferentzia hori erabakigarria izan zen genero-berdintasuna munduko agendan barneratzeko.

Mugimendu feministaren nazioarteko lanaren emaitzarik nabarmenetako bat tresna arauemaile bat izan zen, emakumeen eskubideak giza eskubide gisa hartu zituen: **Emakumeen Aurkako Diskriminazio Modu Guztiak Desagerrarazteari Buruzko Konbentzioa (CEDAW)**; Nazio Batuen Erakunde Biltzar Nagusiak onartu zuen 1979ko abenduaren 18an, 1979ko abenduaren 18ko 34/180 ebazpenaren bidez –sinatzeko, berresteko edo atxikitzeke ireki zen–, eta emakumeen eskubideen nazioarteko erreferentzia bilakatu zen.

1992an, CEDAW batzordeak oharpen batzuk egin zituen Konbentzioaren xedapenen betetzearen harian (19. gomendio orokorra), eta oharpen horiek lotu egin zituzten estereotipo sexistak eta emakumeen aurkako indarkeria; horrezaz gain, nabarmendu zen elkarri zuzenean

---

<sup>11</sup> ALBERDI, I. eta MATAS, N. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. Bartzelona: La Caixa fundazioa, 2002. Gizarte Azterlanen Bilduma. 10. zk.

lotuta daudela desberdintasun-egoera, emakumeei gizatasuna kentzen dieten jarduerak – emakumeen gorputzak sexu-xedeetarako erabiltzen dituztenak– eta genero-indarkeria. **Emakumeen aurkako indarkeria: 92/01/29 CEDAW. 19. gomendio orokorra.**

1993. urtean, **Giza Eskubideen Mundu Konferentzia** egin zen Vienan (Austria), eta haren amaieran hauek eman ziren: **Vienako Adierazpena eta Ekintza Programa**. Foro horrek lehen aldiz aitortu zuen, berariaz, emakumeen eskubideak giza eskubide unibertsalen barneko elementu besterenezinak, osagaiak eta zatiezinak direla. Konferentziak adierazi zuen nazioartearen lehentasunezko egitekoa dela sexu femeninoaren diskriminazioaren aurka borrokatzea, eta neurri berri eta historikoak hartu zituen emakumeen, umeen eta herri indigenen eskubideak sustatzeko eta babesteko.

Nabarmendu behar da, emakumeen aurkako indarkeriaren erabilera debekatzeari gainera, deklarazio horrek indarkeria hori jazartzeko eta desagerrarazteko betebeharra ere ezarri diela estatuei. Mugarririk handia da betebeharrak ezartzea; izan ere, gai horretan espezializatuta dagoen edozein nazioarteko auzitegiak genero-indarkeria gizateriaren aurkako krimenen moduan jazar dezake nazioz gaindikoa eremuetan; nazioen barruan, berriz, indarkeria mota hori ofizioz jazartzeko betebeharra ezartzen die estatu kide sinatzaileei.<sup>12</sup>

1995ean, **Emakumeen aurkako indarkeria** egin zen, eta foro horrek «genero-indarkeria» terminoaren erabilera onetsi zuen. Horrez gain, **Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma (BEP)** onartu zen. Programa bat da, XXI. mendean emakumeen ahalgaitasunaren eta aurrerapenaren alde egiteko; genero-berdintasunaren aldeko borrokan beste aldi bati ekin zion munduan. Konferentzia horretan, Nazio Batuen Erakundeak adierazi zuen emakumeen aurkako indarkeriak eragozti egiten duela berdintasunaren, garapenaren eta bakearen helburuak lortzea, eta giza eskubideak eta funtsezko askatasunak urratzeaz gainera, haiek erabiltzea ere eragozten diela emakumeei.

Orduz geroztik, 5 urtean behin, nazioarteko komunitateari, erakundeei eta ekintzaileei deia egiten zaie, New Yorken aztertzeke nola betetzen eta aplikatzen den BEPa. Honela izendatzen dira bilera horiek: Beijing+5 (2000), Beijing +10 (2005), Beijing +15 (2010) eta Beijing+20 (2015).

2020. urtean, Beijingo Adierazpenaren eta Ekintza Plataformaren 25. urteurrena ospatuko da, eta horrek topagune bat eskainiko du emakume eta neskatila guztientzat giza eskubideak behingoz lortzeko, mundu-mailako mobilizazio gisa antolatuko baita.

## **Europar Batasuna.**

---

Europar Batasunaren helburuetako bat da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, eta hala jasotzen da Erromako Tratatuaren (1957). Bestalde, emakumeen aurkako indarkeria ere lehentasunezko gai bihurtu da, berriki. Badira hamarkada batzuk Europar Batasunean berdintasun-politikak garatzen ari direla, zuzentarauen eta Batasuneko ekintza-programen bidez. Horiez gainera, irizpide, neurri, akordio eta gomendio ugari adostu eta eman dira gai-alor horretan eragiteko.

1997. urtean, **Europar Kontseiluaren Bigarren Goi Bileraren (Estrasburgo)** Amaierako Adierazpenean, estatu kideetako estatuburuak eta gobernuburuak adierazi zuten asmo osoa

---

<sup>12</sup> FIGUERUELO, A. La violencia de género: una cuestión de derechos humanos. In POZO, M. (zuz.) eta Gallardo, A. (koord.). *¿Podemos erradicar la violencia de género?* Granada: Comares argitaletxea, 2015.

dutela emakumeen aurkako indarkeria eta emakumeen sexu-esplotazioko modu guztiak borrokatzeko.

2002. urtean, **Ministroen Kontseiluak gomendio bat eman zien estatu kideei, emakumeak indarkeriaren aurka babesteko**. Dokumentu horretan hau esaten da: «Emakumearen aurkako indarkeria gizonen eta emakumeen arteko botere-desorekaren emaitza da, eta diskriminazio larria eragiten ari da emakumeen aurka, bai gizartean, bai familietan». Horrezaz gain, behar den prestasunaren printzipioa sartzeko du arazo horri aurre egiteko.

**Genero Berdintasunaren aldeko Europako Ituna hitzartu zen 2006an**, eta luzatu egin zen Batzordeak 2010eko martxoaren 5ean emandako komunikazio honen bidez: «Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko konpromiso indartua: Emakumeen Gutuna». Bost jarduera-esparru espezifikoko lantzen dituen gutun horrek, eta haietako bat genero-indarkeria desagerraraztea da. Jarduera-ardatz hori bera ezarri da, gerora, Batzordeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean 2010-2015 eperako onartu duen Estrategian.

**Europako Parlamentuak emakumearen indarkeria desagerrarazteari buruz 2009ko azaroaren 26an hartutako Ebazpenak** adierazi zuen genero-indarkeria emakumeen eskubideen urraketa dela, emakumeak gizonen berdina ez direla iritzita erabiltzen dena.

2009ko abenduaren 1ean, **Lisboako Tratua** jarri zen indarrean: emakumeen ahalduzko laguntzeko arau-xedapenak jaso zituen, eta, horrezaz gain, ordura artekoa baino jarduteko ahalmen handiagoa eman zion Europako Parlamentuari, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eremuan. Funtsezkoa zen hori egitea, genero-dimentsioa zaindu eta indartuko duten arau-ekimenak abian jartzeko gaur egungo krisi-egoeran.

Tratatu hori indarrean jarri ondoren, hauxe adierazi zen **Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren** bertsio finkatuaren 8. artikuluan: «Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazi eta haien arteko berdintasuna bultzatzeko xedea finkatuko du Batasunak bere ekintza guztietan». Eta 19. adierazpenak, tratatuaren 8. artikuluari buruzkoak, hau dio: «Biltzarra bat dator honetan: emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko ahaleginean, Europar Batasuna etxe barruko indarkeria ororen aurka egiten saiatuko da bere politika guztietan. Estatu kideek behar beste neurri hartuko dituzte delituzko egintza horiek prebenitzeko eta zigortzeko, bai eta biktimak laguntzeko eta babesteko ere»:

EPSCO Kontseiluak, 2011ko martxoaren 7an, **Genero Berdintasunaren aldeko 2011-2020 Europar Batasunaren Ituna** onartu zuen. Itun horren helburuetako bat da emakumeen aurkako indarkeria-modu guztiak borrokatzea, emakumeek beren giza eskubideak erabat baliatuko dituztela bermatzeko eta genero-berdintasuna lortzeko, hazkuntza integratzaile baten alde.

Lisboako Tratatuak, beraz, zigor-zuzenbidea harmonizatzeko eskumenak eman zizkion Batasunari, eta horrek esparru berri bat ezarri zuen lege-tresna berriak lantzeko emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko borrokan. Geroztik, zenbait arau eman dira. Hona hemen aipagarrienak:

1. **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/41/EB Zuzentaraua, jarduera autonomoan aritzen diren emakumeen eta gizonen artean tratatu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa, eta Kontseiluaren 86/613/EEE Zuzentaraua indargabetzekoa.**



2. **2011/99 Zuzentaraua, Europako babes-aginduari buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 606/2013 Erregelamendua, arlo zibileko babes-neurriak elkarri aitortzeari buruzkoa:** bermatu egiten dute estatu kideren batean babes-agindu bat lortu duten pertsonak eutsi egingo diotela estatus horri beste estatu kideren batera joaten edo lekualdatzen direnean.
3. 2011n, beste tresna arauemaile bat onartu zen, Europan indarkeria mota horren aurka borrokatzeko mekanismo juridiko komunak antolatzeko: **Europako Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko** (Istanbuleko Hitzarmena).

Istanbuleko Hitzarmena Europan eta nazioartean emakumeen aurkako indarkeria borrokatzeko tresna indartsuena dela aitortu da. 2014ko abuztuan jarri zen indarrean; haren 75. artikulua berariaz eskatzen du EBk onartu beharra. Hitzarmenak esanbidez aipatzen ditu genero-indarkeriaren biktimak, sexu-indarkeriaren biktimak eta pertsonen arteko harremanetan baliatutako indarkeriaren biktimak. Eremu juridikoan loteslea den lehen eskualde-tresna da Europan, eta xehetasunez lantzen ditu emakumearen aurka erabiltzen diren indarkeria motak, hala nola indarkeria psikologikoa, jazarpena, indarkeria fisikoa, sexu-indarkeria eta sexu-jazarpena.

4. **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaruak delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen ditu.** Zuzentaruak barnean hartzen ditu emakumeen aurkako indarkeria pairatzen duten eta pairatu duten biktimak, legeek delituen biktimei aitortzen dizkieten eskubideen subjektu diren aldetik.

Batzordeak, 2011ko maiatzean, **legegintza-neurrien multzo bat onartu zuen biktimen eskubideak babesteko** eta **COM (2011) 274 Komunikazioa onartu zuen, EBren biktimen arloko egungo eta etorkizuneko ekintzak aurkezteko.**

Eta azkenik, nabarmentzekoa da **Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2014ko otsailaren 25ekoa, emakumeei eragindako indarkeriaren aurka borrokatzeko batzordeari zuzendutako gomendioak egiten dituen**a. Hauek dira Batzordeari egindako gomendio aipagarrienak: batetik, 2014. urtea amaitu baino lehen aurkez dezala egintza-proposamen bat, estatu kideek emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeria prebenitzearen arloan egiten dituzten ekintzak laguntzeko eta sustatzeko neurriak ezartzeko; bestetik, aurkez dezala indarkeriaz egindako delituen Europako datu estatistikoei buruzko erregelamenduaren proposamen berrikusi bat; eta, azkenik, berrespen nazionalak susta ditzala eta Europar Batasuna emakumeen kontrako indarkeriari buruzko Istanbuleko Hitzarmenera atxikitzeko prozesua abiaraz dezala.

Europako Kontseiluak, bestalde, gai horretako politikak eta legeak garatzen lagundu du. Istanbuleko Hitzarmen horrez gainera, hauek dira abiarazi dituen tresna aipagarrienak: **Gizakien Salerosketaren aurka egiteko Hitzarmena** (2005) eta **REC (2002)5 Gomendioa, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteari buruzkoa.**

Genero Berdintasunerako Europako Institutuak **Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Esparru Estrategikoa (2015-18)** ere argitaratu zuen. Dokumentu horretan azaltzen da Genero Berdintasunerako Institutuak zer ikuspegi proposatzen duen, emakumeen aurkako indarkeria-mailak identifikatzeko eta horiek desagerrarazteko politikak egiteko Europako erakundeek eta estatu kideek egiten duten lana babestearen inguruan.

## Estatuan.

---

Espainiako ordenamendu juridikoan, generoko egitate berezitu bat aitortu zuen lehen araua hau izan zen: **1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa**. Zioen azalpenean adierazten du emakumeen aurkako indarkeriak zer-nolako gaitza dakarkion gizarteari. Honela dio hitzez hitz: «*Genero-indarkeria ez da esparru pribatuan eragina duen arazoa. Aitzitik, gure gizartean dagoen desberdintasunaren agerikorik ikaragarriena da. Emakumeen aurka, emakume izateagatik gauzatzen den indarkeria da, erasotzaileek uste dutelako emakumeek ez dituztela askatasun, errespetu eta erabakitze gaitasunari buruzko gutxieneko eskubideak*». Hori horrela, hau gaineratzen du Legeak: «*Botere publikoak ezin dira gelditu egon genero-indarkeriaren aurrean, indarkeria horrek beste edozerk baino gehiago erasotzen baititu Espainiako Konstituzioak aldarrikatutako oinarritzko eskubideak, hala nola askatasuna, berdintasuna, bizitza, segurtasuna eta bereizkeriarik eza*».

Lege horrek eskubide batzuk aitortzen eta bermatzen dizkie genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei, aukera izan dezaten indarkeriazko harremanak eteteko eta beren bizi-proiektua berreskuratzeko. Dena den, ohartarazi behar da eskubide horiek, lege horren esparruan, ezkontideengandik edo, elkarrekin bizi ala ez, harreman horren pareko afektibotasun-harremanez lotutako beste norbaitengandik indarkeria pairatu duten edo pairatzen ari diren emakumeei bermatzen zaizkiela.

Legeak arautzen du neurri espezifikoak sortu behar direla biktimak osotasunean onera daitezen, hau da, ez da nahikoa erasotzailearengandik urruntzea, beste neurri asko hartu behar dira, kasuen ezaugarriak kontuan hartuta: tratatu txarren ondoriozko kalte fisikoak eta psikikoak konpontzeko; biktimaren eta haren kargu dauden adingabeen egoera normaltzeko (enpleguari, etxebizitzari, osasunari eta harreman pertsonalei, aisiari eta denbora libreari dagokienez); abiatu diren prozesu judizialak ixteko (hala nola tratatu txarren salaketak, seme-alabak ikusteko bisiten arauak, banantzeak edo dibortzioak); gerora tratatu txarrak ez errepikatze; seme-alabek ikusitako harreman-ereduak errepika ez ditzaten eta abar. Legeak berak arautzen du Laguntza Sozial Integrala eman behar zaiela; hau da, emakume biktimek eta beren zaintzapean dauden adingabeek eskubidea dute arretarako gizarte-zerbitzuak, larrialdi-zerbitzuak, laguntzakoak, harrerakoak eta oneratze osokoak izateko.

Lege hori argitaratu ondoren, **Emakumearenganako Indarkeriaren kontrako Gobernuaren Ordezkaritza Berezia** sortu zen. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioko Berdintasun Politiken Idazkaritza Nagusiaren mendeko organoa da, eta genero-indarkeriaren alorreko politika publikoak lantzeko eskumena du. Gobernu-ordezkariordeztzaren mende, autonomia-erkidegoetan **Emakumearenganako indarkeriaren aurkako unitateak** sortu ziren jarraipen- eta koordinazio-lanak egiteko, eta 2006an, **Genero Indarkeriaren alorreko Sentsibilizazio eta Prebentzio Plana** onartu zen, bi urtero berritzekoa, gai horretan jarduteko esparru komuna izateko.

Nabarmentzekoa da, halaber, **3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa**, zeinaren bidez lortu nahi baita emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerraraztea eta gizarte-kohesiorako eredu berri baten oinarriak sortzea. «Zeharkako dimentsioa du legeak, eta bizitzako eremu guztietara zabaltzen du bere eragina; bereziki, alor politikora, zibilera, lanekora, ekonomikora, sozialera, kulturalera eta artistikora»<sup>13</sup>.

---

<sup>13</sup> KANARIETAKO BERDINTASUN INSTITUTUA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO SISTEMA INTEGRALAREN KOORDINAZIO-ZERBITZUA. *Guía para la Atención a Mujeres Víctimas de Violencia de Género*. Kanarietako Berdintasun Institutua. Kanarietako Gobernuaren Lehendakaritza, Justizia eta Berdintasun Kontseilaritza, 2007.

1/2004 Lege Organikoaren ondorioz sortutako araudiaren azterketan sakonduz, zenbait lege-aurrerapen egin ziren esparru judizialean eta atzerritartasunean, genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko.

Esparru judizialean, **95/2009 Errege Dekretuak, otsailaren 6koak, Justizia Administrazioari laguntzeko administrazio-erregistroen sistema arautzekoak**, Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Erregistro Zentralean dagoen informazioa eskuratzeko aukera ezarri zuen. 2015. urtean, **1/2015 Lege Organikoak, martxoaren 30ekoak, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duenak**, erantzukizun kriminaleko inguruabar astungarri gisa sartu zuen generoagatiko bereizkeria, eta zabaldu egin zuen zaintzapeko askatasunaren neurriaren esparrua tratu txarren eta lesioen delituetan, genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktima direnean, besteak beste. **7/2015 Lege Organikoak, uztailaren 21ekoak, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duenak**, genero-indarkeriaren aurkako legegintza-esparrutik borroka irmo eta etengabe indar handiagoz ekiteko neurri sorta bat ezarri zuen. Besteak beste, emakumearen aurkako indarkeria-gaietako epailearen eskumen-eremua zabaldu zuen, zehazki intimitatearen, norberaren irudirako eta ohorerako eskubidearen aurkako delituetara zabaldu; epai-urraketaren delitua eman zuen ezagutzera; emakumeen aurkako indarkeriaren arloko prestakuntza espezializatua zehaztu zuen operadore juridiko guztientzat; Justizia Administrazioari atxikitako taldeek laguntza teknikoa eta profesionala ematea bermatu zuen; eta Estatistika Judizialak sexuaren aldagaia ere kontuan hartuko duela bermatu zuen.

Atzerritartasunaren esparruan, **4/2000 Lege Organikoak, urtarrilaren 11koak, Atzerritarrek Spainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoak**, genero-indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarren eskubideak bermatu zituen, babes integraleko eta segurtasuneko neurrien subjektu izateko; eta **12/2009 Legeak, urriaren 30ekoak, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzekoak**, torturen, bortxaketen edo indarkeria psikologiko, fisiko edo sexualaren beste forma larri batzuen biktima diren emakumeak eta gizakien salerosketaren biktima direnak aitortu zituen babes-erregimen orokorrean. Era berean, **557/2011 Errege Dekretuak, apirilaren 20koak, Espainiako atzerritarren eskubide eta askatasunei, eta horiek gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Arautegia (2/2009 Lege Organikoak aldatu ondoren) onartzekoak**, genero-indarkeriaren biktimaren figura arautu zuen, eta berebiziko garrantzia eman zion aldi baterako bizileku- eta lan-baimenari; eta **162/2014 Errege Dekretuak, martxoaren 14koak, atzerritarrak sartzeko zentroen funtzionamendu-erregelamendua eta barne-araubidea onartzen dituenak**, xedatu zuen, besteak beste, gizarte-zerbitzuetako langileek nahitaez izan behar dutela indarkeria matxistari buruzko prestakuntza edo ezagutza egokia.

Horiez gainera, nabarmentzekoak dira, batetik, **persona immigrante atzerritarren artean genero-indarkeria artatzeko eta prebenitzeko Plana (2009-2012)**, zeinak azpimarratzen baitu zeinen beharrezkoa den arreta egokitzea, hots, genero-indarkeriaren biktima diren emakume atzerritar immigranteen egoera espezifikora egokitzea; eta bestetik, **Gizakiak sexu-esplotaziorako salerostearen aurka borrokatzeko plan integrala (2008)**, zeinak aitortzen baitu emakumeak eta neskatilak xede horretarako salerostea emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen garbia dela.

Batasunaren eremuari dagokionez, nabarmentzekoa da **240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak eta Europako Esparru Ekonomikorako Akordioan zehaztutako beste estatu batzuetako herritarrak Spainian sartu,**

**aske ibili eta bizitzeari buruzkoa;** izan ere, argi eta garbi adierazten du zeinen egoera zaila bizi duten genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek bizileku-eskubidearen titularraren aldean, familiakideen bizileku-eskubidea beren izenean edukitzen jarraitzeko, bikotekide gisa inskribatuta dagoena hiltzen bada, Espainiatik irteten bada, ezkontza-lotura deuseztatzen bada, dibortziatzen badira, legez banatzen badira edo bikote gisa erregistratutako inskripzioa ezerezten bada (9. artikulua).

2013. urtean, **emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazteko Estrategia Nazionala** argitaratu zen; tresna horren bidez egituratu egin nahi da botere publikoek alor horretan egiten duten lana, hots, emakumeek emakume izateagatik pairatzen duten indarkeria amaitzeko egiten dutena; hala, estrategia hori ekintza-plan egonkorra da (2016. urtera artekoa), gizartearen gaitz horri aurre egiteko. Estrategia horren bidez, emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazi nahi da, indarkeria hori zentzu zabalean ulertuta; horrezaz gain, eta berariaz, genero-indarkeria borrokatu nahi da zentzu hertsian, gizartean duen garrantzi eta eragin handiarengatik.

2015. urtean, **4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delitu Biktimen Estatutuarena** onartu zen, eta gai horretako araudi europarrak arautzen duenaren ildoan, biktimen ondasun materialak eta moralak babestu nahi ditu, haien duintasunaren aitortzeagatik abiatuta. Genero-indarkeria pairatzen duten emakumeen seme-alabei biktimaren estatutua aitortzen die, baita haien amei ematen zaizkien baliabide eta babes berdinak jasotzeko eskubidea ere. Horrezaz gain, prozesutik kanpoko zenbait eskubide ere aitortzen zaizkie, kontuan hartu gabe zigor-arloko prozesuren batean alderdi diren edo akzio judizialen bat baliatzea (edo ez baliatzea) erabaki duten, baita zigor-arloko prozesuari ekin baino lehen ere.

Garrantzi berezia izan du, halaber, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko bi lege hauek onartu izanak: **8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa**, eta **26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa**. Arau horiek alderdi garrantzitsu batzuk sartu dituzte: adingabeak emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako biktima zuzenak direla aitortzea, «adingabearen interes gorena» kontzeptua mugatzea eta adingabeek entzunak izateko duten eskubidea aitortzea, besteak beste.

2018. urtean Diputatuen Kongresuko Osoko Bilkurak onartu zuen **Genero-Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna 2018-2022** ere aipatzeko modukoa da; izan ere, itun horretan, pertsona, antolakunde eta erakunde asko daude, emakumeen aurkako indarkeria erazteko neurriak formulatzen aditu direnak. Itunak hau aurreikusten du: genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren xedapenak zabaltzea; zenbait aldagata egitea, emakumeenganako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmenean eta Emakumeen Aurkako Diskriminazio Modu Guztiak Desagerrarazteari Buruzko Konbentzioaren (CEDAW) 19. gomendio orokorrean (Espainiak berretsi du) xedatutakoa oinarri hartuta, eta legerian eta praktikan emakumeak nozitzen duen diskriminazioari buruz Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideei buruzko Kontseiluaren gomendioak garatzea. Zehazkiago, Estatu Itunak, gutxienez aldagata hauek sartzea aipatzen du:

- Kapitulu berri bat, generoa dela-eta emakumearen aurka dauden beste indarkeria mota batzuk agerian uzten dituen, bikotearen baitako edo bikote ohiaren baitako tratu txarretatik harago; kapitulu horretan, besteak beste, sensibilizazioari, agenteen prestakuntzari, hezkuntzari, lankidetzeta-protokolo eta planei eta datuen bilketa eta zabalkundeari buruzko artikulua jasotzen ditu.

- Titulu berri bat, gai hauei buruzkoa: datuak biltzeko eskakizuna eta modua eta horien zabalkundea; azterlanak egitea; ikerketak sustatzea eta ikerketak egitea, biztanlerian oinarrituta, xedetzat hartuta emakumearenganako indarkeriaren kausak eta ondorioak aztertzea eta indarkeria hori desagerrarazteko neurriak eta neurri horien eraginkortasuna ezagutzea.
- Berariazko manu bat, 1/2004 Lege Organikoaren I. tituluaren barruan, sentsibilizazio-, prebentzio- eta detekzio-neurriei buruz, prebentziora eta detekzio goiztiarrera eta genero-indarkeria arbuiatzeko gizarte-kontzientzia sortzera bideratutako kontzientziazio publikoko ekintzetan gizarte zibilaren lankidetzaz agerian uzteko.

Itun hori onartu eta hilabete batzuen buruan, Diputatuen Kongresuko Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen, nahiz eta eztabaidatua izan, honako hau: **9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurriena**. Lege-dekretu horrek biktimen babes judiziala sendotzeko neurriak ahalbidetzen ditu, eta genero-indarkeriako egoerak egiaztatzeko mekanismoak gehitzen ditu.

Eta azkenik, garrantzitsua izan da, baita ere, **5/2018 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa erreformatzen duena eta genero-indarkeriaren alorreko estatu-ituna aplikatzeko presako neurriei buruzkoa dena**; izan ere, lege horrek genero-indarkeriaren alorreko itunean jasotako zenbait xedapen garatzen ditu, zehazki, esparru horretan lan egiten duten profesionalak genero-indarkeriaren gaian espezializatzea eta eraginkortasunez trebatzea lortzeari buruzkoak, funtsezko faktoretzat hartuta erantzun judizial egokia ematea. Bestalde, **Genero-indarkeriaren alorreko Estatu Ituneko neurrien dokumentu bateginak, 2019koak**, Kongresuko eta Senatuko Berdintasun Batzordeak genero-indarkeriaren alorrean sortutako neurriak biltzen ditu, bai eta biktimen prebentzio, babes eta erreparazioaren alderdiak ere. Horiek genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunean ezarritakoa lortzeko eta inplementatzeko gauzatu ziren.

#### **Autonomia-erkidegoan:**

---

**Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea** otsailaren 5eko 2/1988 Legearen bidez sortu zen: administrazio-izaerako erakunde autonomoa da, nortasun juridiko propioa du, eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzari atxikita zegoen. Sortu zenetik, haren helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea –benetakoa eta eraginkorra–, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintza, ekonomia, kulturgintza eta gizartearen eremu guztietan. Euskal Autonomia Erkidegoan berdintasun-politikak bultzatzeko, aholkatzeko, planifikatzeko eta ebaluatzeko erakundea da.

Emakunderen funtzioak, lehen aipatutako legean zehaztuak, aldatu egin ziren **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen** bidez. Horrenbestez, funtzio hauek hartu zituen Emakundek, besteak beste: proposatutako helburuak lortzeko zuzentarauak prestatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek zuzentarau horiek bete ditzaten bultzatzea; berdintasun-politiken eta autonomia-mailako legeen jarraipena egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipiora egokitzen ote diren ikusteko; legeak erreformatzeko proposamenak prestatzea, bi sexuen arteko benetako berdintasuna eraginkorra galarazten edo eragozten duten oztopoak desagerrarazteko; politika-eremu guztietan genero-ikuspegia aintzat hartzeko metodoak diseinatzea; eta EAEko administrazio publikoei aholku ematea eta haiek in lankidetzan jardutea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako prestakuntza-planak diseinatzeko.

Hori horrela, hau aitortzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak: «*Apustua, une honetan, zera da, berdintasunerako eskubide hori lege-testuetan*

*formalki aitortua ez ezik, praktikan benetan aplikatua izan dadin bermatzea ere (...) halako moldez non emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren fenomeno, egiturazkoa eta unibertsala, gizartetik desagerraraz dadin». Legearen VII. kapituluaren («Emakumeen aurkako indarkeria»), zenbait neurri arautzen dira etxean tratatu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeak babesteko; baita ikerketaren, prebentzioaren eta prestakuntzaren alorreko neurriak ere.*

Gainera, hau arautzen du 51.2. artikuluan: «Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aldian-aldian ebaluatu egingo du zein den Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabideen eta programen eraginkortasuna eta irismena. Horretarako, inplikaturik dauden gainerako EAEko administrazio publikoek informazioa emango diote beren ardurapean dituzten baliabideei eta programei buruz».

Haren eskudantzia eta eskumenei dagokienez, aipatzekoa da **34/2013 Dekretua, abenduaren 2koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena**, zenbait aldaketa xedatu baitzituen Emakunderi emakumeen aurkako indarkeriako biktimen alorrean esleitutako egitekoen eta bitartekoan alorrean.

Genero-indarkeriaren aurkako borrokaren alorrean autonomia-erkidegoan egindako lege-aurrerapenean, nabarmentzekoa da, besteak beste, **irailaren 11ko 148/2007 Dekretua, etxeko eremuan tratatu txarren biktima diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituen**, arautu egiten baititu genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei erantzuteko zentroek zer harrera egin, zer bitarteko eduki eta horiek nola baliatu. Eragin handia izan duten beste dekretu batzuk dira, besteak beste, **124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen**, zeinak genero-indarkeriako biktima diren emakumeen bermeak arautu baitzituen, deribazio judizialeko Familia Elkarguneak bete beharreko baldintza funtzionalei, materialei eta langileen alorrekoiei dagokienez; eta **29/2011 Dekretua, martxoaren 1ekoa, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean dauden koordinazio-mekanismoei buruzkoa**, zeinak Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eremuaren barruan arretarako kanal bateratutzat jotzen baitu Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza. Bai eta **264/2011 Dekretua, abenduaren 13koa, Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokia sortzeko eta bere funtzionamendua eta osaera arautzeko** ere, zeinak xedetzat baitu gaitz unibertsal hori desagerraraztea, horretarako propio behatoki bat abian jarrita.

Eusko Jaurlaritzak, berdintasunerako planen bidez, genero-indarkeriaren arloko helburuak eta jarduerak planifikatu ditu. Emakunderi dagokio berdintasunerako planak egitea, EAEko berdintasunerako politika publikoak bultzatzeko, aholkatzeko, planifikatzeko eta ebaluatzeko organoa den aldetik.

Erakundeen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren eremuan, nabarmentzekoak dira bi hauek: etxeko tratatu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakundeen Arteko Hitzarmena, 2001eko urriaren 18an izenpetua, eta **Etxeko tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa**, 2009an izenpetua. Akordio horrek etxeko tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten biktimei laguntza ematen dieten erakundeak hobeto koordinatzea du xede, biktimei babes osoa eman ahal izateko arlo sanitario, polizial, judizial eta sozialean. Horretarako, jarduteko jarraibide eta irizpide batzuk ezarri dira, profesionalek jarraitu beharrekoak, bai bakoitzari dagokion eremuan, bai erakundeen arteko harremanetan.

Hauek dira II. akordio horretan sortu den **Jarraipen Batzordearen** eginkizunak: akordioan adierazitako neurriak eta jarraibideak behar bezala aplikatzen direla bermatzea, jarduera bateratuak proposatzea, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egitea, eta jarduera-protokoloaren edukiak sor daitezkeen egoera berrietara egokitzeko proposamenak egitea. Batzordeko kide dira, Emakundeko Zuzendaritzaz gainera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia, Eusko Jaurlaritzako sail batzuk (osasungintzan, herritarren segurtasunean, justizian, gizarte-zerbitzuetan, gizarte-bazterketan, enpleguan, etxebizitzan eta hezkuntzan eskudun direnak), EAEko hiru aldundiak, Eudel, Arartekoa, Legelarien Euskal Kontseilua eta Euskadiko Sendagileen Kontseilua.

2013. urtean, **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana** onartu zen. Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea da plan horren hiru ardatz-ekintzetako bat, eta horrekin lortu nahi da indarkeriazkoak ez diren ereduak bultzatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko informazioa eta ikerketak hobetzea, eta indarkeriazko jokabideen detekzio goiztiarra eta horien gaineko informazioa indartzea.

2015ean, **7/2015 Legea, ekainaren 30ekoa, onartu zen, gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremani buruzkoa**, zeinak eztabaida handia sortu baitzuen. Arau horrek banandutako edo dibortziatutako bikoteen seme-alaben zaintza partekatua arautzen du, eta interes berezia du lantzen ari garen gairekin.

2018an **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana** onartu zen, eta hor jasotzen da berdintasunaren arloko politika-agenda 2018-2021rako. Planaren hirugarren esku-hartze ardatzean, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza aipatzen da, eta horretarako, honako hauek bultzatzea: sensibilizazioa eta prebentzioa, detekzioa, arreta eta kaltearen erreparazioa eta erakundeen arteko koordinazioa.

Horrezaz gain, 2019. urtean aurkeztu zen **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzeko lege-aurreproiektuaren** zirriborroa. Lege horren aldaketaren bidez, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako herrialde-politika eta -ituna ahalbidetu nahi da, legea sendotuz, eta gizarte- eta arau-testuinguru berriaren ondoriozko premia berrietara eta erronketara egokitzuz; arauen testuinguruan, nabarmentzekoa da EAEko ordenamendu juridikoa egokitzeko beharra 2011n Europako Kontseiluak adostutako Istanbulko Hitzarmenera, zeina Espainiako Estatuan 2014. urtean jarri baitzen indarrean.

Lege-aldaketaren erronketako batzuk hauek dira: emakumeen kontrako indarkeria emakume eta gizonen berdintasunik ezaren arazo sistemikoan kokatzeko baterako ikuspegia bermatzea, EAEko legeria azken urteotan izan diren aldaketetara egokitzea, parte hartzen duten profesional guztien prestakuntza bermatzea, eta ikuspegi intersektzionala bermatzea. Eta neurrietako batzuk, besteak beste, hauek dira: legea berdintasunaren mesedetan indartzea, esku-hartzeko esparru guztietan; legean jasotzea Istanbulko Hitzarmenaren arauak, haurrak eta nerabeak babesteko legeak, Delituen Biktimen Estatutua eta beste arau batzuk; nahitaezko prestakuntza (hasierakoa eta etengabea) profesional guztientzat; eta biktimentzako arreta osoa, doakoa eta kalitate onekoa, bereziki egoera ahulean daudenentzat.

Eta azkenik, adierazi behar da Emakundek hainbat txosten eta balantze egiten dituela aldiro, biktimizazioen eta biktimen datuak biltzeko eta etxean emakumeen kontra baliatzen den indarkeriaren arloan EAEn dauden programen eta baliabideen eraginkortasuna eta irismena ebaluatzeko. Nabarmentzekoa da, azterlan honen xedearekin duen loturagatik, informazio-sistemen lantaldeak, 2013tik 2015era bitartean, urrats nabarmenak eman dituela Erakundeen Arteko II. Akordioari atxiki zaizkion Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde guztiek sistema

homogeneo bat erabil dezaten informazioa biltzeko: erakundeek biltzen dituzten datuen eta datu horiek biltzeko sistemen arteko desberdintasunak eta berdinak edo konparagarriak diren ezaugarriak identifikatu dira, adierazleak adostu dira, etab.



# METODOLOGIAREN INGURUKO

## OHARRAK

Txosten hau egiteko, bigarren mailako iturriak kontsultatzeko teknika metodologikoa erabili da. Zehazki, emakumeen aurkako indarkeriaren arazoarekin lotutako estatistikak eta dokumentuak identifikatu eta bildu dira, gure ustez adierazgarrienak direnak, eta, horretarako, informazio-iturri hauek erabili dira: lege-esparrua, txostenak, planak, gidaliburuak, ebaluazioak, ikerlanak, eragiketa estatistikoak, erregistro ofizialak, literatura grisa, etab.

Konsultatu den informazio gehiena Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuko da, baina beste lurralde-eremu batzuetako datuak ere aintzat hartu dira (batik bat, Estatukoak eta Europakoak), ondorio osagarriak ateratzeko eta EAEn egindako analisia testuinguruan jartzeko.

Emakumeen aurkako indarkeriaren arazoaren kontzeptualizazioaren atalean, definizio zabal bat eman da, eta hainbat indarkeria modu aipatu dira, testuinguru desberdinetan gertatzen direnak; hala ere, txosten honetan jasotako datu estatistikoak informazio-iturri zorrotz eta sendoetatik bildu ditugu. Gaur egun erakundeek laguntzak eta arretak, eskuarki, *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioak* emakumeen aurkako indarkeria moduei buruz araututakoari aurre egiteko direnez (hots, bikotekideak edo bikotekide ohiak erabilitako indarkeria, etxean bikotekidea edo bikotekide ohi ez den gizonetako batek eragindako indarkeria eta familia-eremutik kanpoko sexu-indarkeria), indarkeria modu horiei buruz sortzen da aztertu beharreko informazio gehiena eta datu-kopuru handiena.

### Informazio-iturriei buruzko zehaztapen batzuk


Frogak agerikoak dira: emakumeen aurkako indarkeria arazo larria da, eta mundu osoan zabaldua dago; hala erakusten dute herrialde askotan gai horri buruz egin diren azterlanek. Hala ere, datuak biltzen jarraitzeko premia dago oraindik ere, horrela ahalbidetuko baita politiken eta estrategien formulazioa behar bezala dokumentatzea, indarkeria mota horri aurre egiteko neurriak ebaluatzea eta horien guztien ondorioak zehaztea.

Sarritan, ezin izaten da lanen arteko konparaziorik egin —ez herrialdeen artean, ez herrialde baten barruan—, definizio desberdinak erabiltzen direlako, aztertutako biztanle-taldeak desberdinak direlako, etab. Gainera, azterlan gutxi eguneratzen dira aldizkakotasun finko batez, eta zaila izaten da denboran gertatzen diren aldaketak neurtzea. Horrez gainera, indarkeria pairatzen duten emakumeen gaineko zenbait datu falta dira (esaterako, adinaren, jatorriaren edo bestelako faktore batzuen arabera bereizitako datuak), baina baita indarkeria erabiltzen duten erasotzaileen gainekoa ere.

Aitortu behar da zaila dela emakumeen aurkako indarkeria kuantifikatzea, zenbait faktore tarteko: emakumea, maiz, ez da ohartzen indarkeria pairatzen ari denik; gertatzen diren kasu guztien ehuneko txiki bat baino ez da salatzen; eta adostu gabe dago zer adierazle eta irizpide erabili behar diren datu-bilketan, estatistikak nolabaiteko fidagarritasunez egin ahal izateko. Hori horrela, askotariko datuak daude gaur egun: datu ofizialak, emakumeen elkaratek batutakoak, eta esku-hartzearen arloan lan egiten duten erakundeek jasotakoak.

Datuen iturri bat baino gehiago erabili da txosten hau egiteko, eta azken ataleko bibliografia-erreferentzien dossierrean jaso dira guztiak. Hala ere, txosten honetan sarri aipatzen diren iturrien metodologia-ezaugarri nabarmenenak azalduko dira atal honetan.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da bereiztea, batetik, poliziaren, epaitegien, emakumeak hartzeko zentroyen eta antzerako erakundeen erregistro ofizialetatik hartutako datuak, eta bestetik, inkestetatik ateratako datuak.



Inkestetako datuak ez dira beti fidagarriak izaten, eta zenbaitetan, zaila izaten da gai hau inkesten bidez lantzea. Hala ere, formula interesgarria da prebalentzia kuantifikatzeko (agintariak ezagutu ez dituzten gertakariak, baizik eta inplikaturako pertsonak edo bere ingurukoak bakarrik, eta, orokorrean, ezaugarri bera duten edo gauza bera gertatu zaien pertsonen proportzioari egiten dio erreferentzia), eta ohartzeko beste bide batzuetatik erregistra daitekeena baino askoz zabalagoa dela arazo hori. Bestalde, emakumeei arreta egiten dieten baliabideetatik edo salaketetatik jasotako datuek informazio fidagarria ematen dute (organo ofizialek erregistratutako gertaerak), baina emakumeek salaketa jartzen duten edo laguntza eskatzen duten kasuak soilik hartzen dituzte kontuan.

ERREGISTROETAKO DATUAK (intzidentzia)	INKESTETAKO DATUAK (prebalentzia)
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Gertatutako eta egiaztatutako egoeren gaineko informazioa jasotzen dute; beraz, oso fidagarriak dira.</li> <li>✓ Emakumeek salatzen edo laguntza eskatzen duten kasuak baino ez dituzte kontuan hartzen, eta, ondorioz, ez dute gainerako emakumeen berri ematen.</li> <li>✓ Ez dute une jakin batean dauden biktimen kopuru edo zenbateko osorik adierazten, denbora-epe jakin batean izan diren gertakarien ondoriozko biktimak adierazten baitituzte. (esaterako, estatistika polizialean ez da zenbatzen aurreko urteren batean delitu penala egin zaien emakumeen artean zenbatek jasaten dituzten oraindik ere indarkeria mota horren ondorioak, azken urtean delitu penalik egin ez bazaie ere).</li> <li>✓ Oro har, informazio gutxi jasotzen da biktimen eta erasotzaileen ezaugarriari buruz.</li> <li>✓ Ordenamendu juridikoak modu askotara tipifikatu izan du indarkeria, eta horrek sakabanatu egin ditu estatistika ofizialak.</li> <li>✓ Urteen joanean aldatu egiten dira datuak biltzeko irizpideak (definizioei eta abarrei dagokienez), eta horrek zaildu egiten du bilakaerari buruzko analisiak egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Salatu edo publikoak diren kasuetara iristen dira, eta gainerako kasuetara ere bai.</li> <li>✓ Informazio gehiago ematen dute biktimei buruz, gertakariaren inguruabarrei buruz, ondorioei buruz, eta abar.</li> <li>✓ Laginketa-erroreak egin daitezke edo lerratzeak gertatu, baldin eta hautaketa-metodoak ez badu herritarren zati bat kontuan hartu (esaterako, bazterketa-arriskuan dauden kolektiboak).</li> <li>✓ Elkarrizketatutako pertsonen oroimenarekin lotutako arazoak izan ditzakete.</li> <li>✓ Beti ez dira indarkeriaren definizio berdinak erabiltzen, eta galderen formulazioak baldintzatu egin dezake datuen fidagarritasuna.</li> </ul>

### «Erregistroei» buruzko iturri nagusiak:

Iturria	Datu mota	Eguneratze-maiztasuna
<b>Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Analisi Dibisioaren Zuzendaritza.</b>	Iturri honetatik bildutako datuek emakumeen aurkako indarkeriako kasuen eta emakumeen kopurua adierazten dute, eta EAeko poliziak ofizialki erregistratutakoak dira. Erreferentzia argia dira indarkeria kuantifikatzeko: bikotekideek edo bikotekide ohiek emakumeen aurka baliatzen duten indarkeria, familia barneko indarkeria eta sexu-askatasunaren aurkako delituak (sexu-indarkeria). Besteak beste, datu hauek erregistratzen dira: biktimen eta biktimizazioen kopurua, motaren arabera biktimizazioak, gertakarien lekua, indarkeriaren biktimen eta erasoak egin dituzten gizonen ezaugarri sozial eta demografikoak, biktimizazioen denbora-ezaugarriak, salaketak eta babes-aginduak.	Urtean behingoa
<b>Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. Estatistika Judizialaren Sekzioa</b>	Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren estatistika-atariaren helburua Justizia Administrazioaren alderdiei buruz eskuragarri dagoen informazio estatistikoa eskaintzea da. Kasu honetan, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko genero-indarkeriari buruzko epaitegietan aurkeztutako salaketen gaineko informazioa jaso da, bai eta salaketa horien jatorria ere.	Urtean behingoa
<b>Estatuko Fiskaltza Nagusia.</b>	Organo horren 2018ko urteko memorian, emakumearen aurkako indarkeria dela-eta aurkeztu diren akusazio eta salaketa faltsuengatik prozedura kopuruari buruzko datuak jaso dira.	Urtean behingoa
<b>Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza.</b>	Genero-indarkeriaren ondorioz eraildako kopuruari buruzko datu ofizialak jaso dira, 2019. urtera arte.	Urtean behingoa
<b>Barne Ministerioa. Kriminalitateari buruzko sistema estatistikoa.</b>	Espanian sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituei buruzko datuak bildu dira, biktimen eta atxilotuen nahiz ikertuen profilar bereziki heltzen diona. Horiek zenbatzeko kontuan hartzen diren egitateak polizia-kidego hauek jasotakoak dira: Guardia Zibila, Polizia Kidego Nazionala, autonomia-erkidegoen mendeko poliziak (Ertzaintza, Mossos d'Esquadra eta Nafarroako Foruzaingoa), eta datuak Kriminalitateari buruzko sistema estatistikoari helarazten dizkieten udaltzaingoak.	Urtean behingoa
<b>Emakunde. Emakumearen Euskal Erakundea.</b>	Emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioz eraildakoei buruzko datu estatistikoak bildu dira.	Urtean behingoa

### «Inkestei» buruzko iturri nagusiak:

Iturria	Datu mota	Eguneratze-maiztasuna
<b>Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza. «Genero-indarkeria EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011».</b>	Azterlanak, alde batetik, EAEn bizi diren 16 urteko edo gehiagoko emakumeen kontrako indarkeriaren intzidentziari buruzko datuak biltzen ditu, telefonoz 2.600 laguni eta 1.340 emakumeri egindako inkesta baten bidez. Bikotekideek edo bikotekide ohiek emakumeei eragindako indarkeriari buruzko informazioa dakar, bai eta emakumeei familiako beste gizonezko batzuek eragiten dieten indarkeriari eta lan-esparruan eta espazio publikoan eragiten dieten indarkeriari buruzkoa ere. Bereizi egiten ditu indarkeria noizbait jasan duten emakumeak eta egun (azken urtean) pairatzen ari direnak. Aitortutako indarkeriari buruzko datuak eta 25 adierazleren bidez ondorioztatutako indarkeriari buruzko datuak jasotzen dira azterlanean. Azterlanak, bestalde, herritarrek emakumeen aurkako indarkeriaren gainean duten pertzepzioari buruzko informazioa biltzen du.	Maiztasun jakinik gabe
<b>Oinarritzko eskubideen Europako Agentzia. Emakumeen</b>	Europar Batasunean (28 estatu kide) 42.000 emakumeri egindako elkarrizketak ditu oinarri. Indarkeria fisiko, sexual eta psikologikoko bizipenen gaineko informazioa biltzen da, bikotekideen arteko indarkeriari dagozkionak barne hartuta («etxeko indarkeria»). Era	Maiztasun jakinik gabe

Iturria	Datu mota	Eguneratze- maiztasuna
<b>aurkako genero-indarkeria: EBren esparruko inkesta. Inkestaren ondorioen laburpena, 2014».</b>	berean, jazarpenari, sexu-jazarpenari eta teknologia berriek emakumeek bizitako abusuen bizipenetan duten egitekoari buruzko galderak jasotzen dira inkestan. Horrezaz gain, haurtzaroan bizi izandako indarkeriaz galdetzen da.	
<b>Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. «Emakumeen aurkako indarkeria EAEn: herritarren pertzepzio eta iritziak, 2015».</b>	Genero-berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko jarrerari eta iritziei buruzko informazioa biltzen du. Telefono bidezko inkestak egin dira datuak biltzeko: 18 urtetik gorako 2.000 laguni egin zaizkie galderak.	Maiztasun jakinik gabe
<b>Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza. «Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko V. makroinkesta, 2015».</b>	Azterlanaren bidez, jakin nahi da Espainian bizi diren emakumeen zer ehunekok pairatu izan duen indarkeria edo gaur egun zenbatek pairatzen duen, emakume izateagatik. Bikote-eremuan emakumeen aurka eragiten den indarkeriari buruzko prebalentzia-datuak biltzen ditu estatu osoan; oraingoan, emakumeek bikotearen esparrutik kanpo pairatutako indarkeria fisikoaren eta sexualaren prebalentziari buruzko datuak ere bildu dira (orain arteko edizioetan ez bezala). Indarkeria jasan duten emakumeek adierazitako indarkeria soilik aztertzen da, baina bereizi egiten da noizbait pairatu duten emakumeena eta egun (azken urtean) pairatzen ari diren emakumeena. Metodologiaren arloan egin den berrikuntza nabarmenetako bat hau da: «kontrol» erako galdera bat egin da adierazi gabeko indarkeria-egoerak biltzen saiatzeko (alde horretatik, Nazio Batuetako jarraibideek gomendatzen dute emakume guztiei galdetzeko ea beldurrik izan duten beren egungo bikotekidearekin edo bikotekide ohiekin). Inkestak etxeetan egiten dira 2011. urteaz geroztik, eta 2015. urtean, lehen aldiz, elkarrizketak aurrez aurre egin zaizkie 16 urte edo gehiagoko emakumeei (aurreko makroinkestetan, adinez nagusi ziren emakumeei soilik egiten zitzaizkien). Lagin zabaleko azterlana izan da: 10.171 emakume hartu ditu.	Lau urtean behin
<b>Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza eta Ikerketa Soziologikoen Zentroa (CIS)</b>  <b>Genero-indarkeriaren gaineko pertzepzio sozialari buruzko inkesta, 2017</b>	Ikerketa Soziologikoen Zentroak 2017an egindako inkesta aztertzen duen azterlana da, zehazki, gai hauek: Espainian sexu-berdintasunaren eta sexismoaren gainean dagoen pertzepzioa, sexu-jazarpeneko jarrerak lantokian, sexu-erasoko jarrerak, emakumeen aurkako sexu-indarkeria moten zigorgarritasunari buruzko iritzia, sexu-erasoak maizen gertatzen diren tokiei eta erasotzaileen estereotipoei buruzko pertzepzioa, elkarrizketatutako pertsonen inguruan sexu indarkeriako kasuak ezagutzen dituzten, sexu-indarkeria dela-eta salaketa jarri duen norbait ezagutzen duten eta salaketa horien gaineko iritzia, eta hezkuntzaren eta herritarren sentsibilizazioaren bidez prebenitzea sexu-indarkeria.	Maiztasun jakinik gabe
<b>Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza eta Ikerketa Soziologikoen Zentroa (CIS)</b>  <b>Genero-indarkeriaren gaineko pertzepzio sozialari buruzko inkesta, 2012.</b>	Ikerketa Soziologikoen Zentroak 2012an egindako inkesta aztertzen duen azterlana da, zehazki, gai hauek: Espainian genero-berdintasunaren gainean dagoen pertzepzioa, tratu txarreko jarrerak eta haien zigorgarritasuna, genero-indarkeriako estereotipoei buruzko pertzepzioak, elkarrizketatutako pertsonen inguruan genero-indarkeriako kasuen zenbatekoa, biktimei eskaini beharreko baliabide motak, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko legearen ezagutza eta gizartean dagoen balorazioa, sentsibilizazio-kanpainen ezagutza eta balorazioa, genero-indarkeriaren biktimei telefono bidez laguntzeko (016) zerbitzuaren ezagutza, eta genero-indarkeriagatiko salaketei buruzko ezagutza eta iritzia.	Maiztasun jakinik gabe

# ARAZOAREN NORAINOKOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN INTZIDENTZIA ETA PREBALENTZIA

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketatzat hartzen da nazioartean, eta emakume askori eta haien seme-alabei eragiten die. Adierazi den moduan, ia aho batez onartzen da emakumeen aurkako indarkeria delitu ezkutua dela, askotariko arrazoiengatik. Oso gutxitan izaten da delitu horien berri, eta, proportzioan, salaketa gutxi egiten dira; beraz, zaila da indarkeria horren zifra egiazkoak jakitea. Horren ildotik, indarkeria hori «izozmendi» baten moduan irudika daiteke, alde «ezkutuak» duen funtsezko garrantziagatik. Hori oinarri hartuta, iturri askotako datuak uztartzen dira atal honetan, arazo sozial honen ahalik eta esparru zabal eta egiazkoena erakusteko.

## Erregistro ofizialetako datu orokor batzuk:

Atal honetan adierazitako datuak batez ere erregistro ofizialetatik jasoak dira, baina egoera zehatz batzuetan beste iturri batzuetako aipamenekin osatu ditugu, testuinguruan hobeto jartze aldera.

### Zenbat eraso erregistratu dira? Zenbat emakumek jasan dituzte erasoak?

EAEn, emakumeen kontrako indarkeriak oraindik ere biktima asko eragiten ditu urtean.

**2019an, Ertzaintzak indarkeria hori jasan duten 4.419 emakume erregistratu zituen: gehienek bikotekide edo bikotekide ohien erasoak jasan zuten; beste batzuek familiako beste gizon batena, eta % 9,5 familiaren eremutik kanpoko sexu-indarkeriaren biktima izan zen.**

Ertzaintzak 2019. urtean erregistratutakoaren arabera<sup>14</sup>, EAEn 3.098 emakumek indarkeria pairatu zuten beren bikotekideen edo bikotekide ohien eskutik; 899 emakumek, familiako beste gizon baten eskutik, eta 422 emakumek, sexu-indarkeria pairatu zuten familiatik kanpoko gizonen eskutik. Guztira, 4.419 emakume izan dira emakumeen aurkako indarkeriaren biktima, urtebeteko epean (2018. urtean baino 175 emakume gehiago).

Emakume batzuek eraso bat baino gehiago pairatzen dute urte berean. 2019an, Ertzaintzak emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko 5.518 biktimizazio kontabilizatu zituen <sup>15</sup> (2018an baino 203 gehiago).

<sup>14</sup> Datu horiek emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazio estatistikoa jasotzen dute (Ertzaintzak bere jardun- eta eskumen-eremuan ezagututako indarkeria, dokumentu polizialean erregistratuta dagoena).

Denbora-epe jakin batean legez kontrako egintza penala jasan duten emakumeak zenbatu dira biktima moduan. Gizonezkoek eragindako indarkeriari buruzko datuak dira (bikotekideak, bikotekide ohiak, senideren batek edo beste gizon batzuek eragindakoa).


<sup>15</sup> Biktimizazioa da emakume bat denbora-epe batean zigor-delitu baten biktima izan den aldi etako bakoitza. Emakume batek biktimizazio bat baino gehiago izan dezake.

Lau indarkeria-egoera horietako hirutan gutxi gorabehera (% 74), erasotzaileak eta biktimak lotura sentimentalaren bat zuten edo izan zuten (bikotekidea edo bikotekide ohia). Familian gertatu ziren egoera horien % 18,3 (ez dira hor sartzen bikotekideak eta bikotekide ohiek eragindakoak), eta gainerakoak (% 7,7) familia-eremutik kanpoko sexu-askatasunaren aurkako delituak izan ziren (sexu-erasoak, jazarpena, etab.).

Indarkeria motaren eta erasotzailearekiko harremanaren arabera 2019. urtean erregistratutako indarkeria-kasuen ehunekoen banaketa aurreko urteetako banaketaren oso antzekoa da, oro har. Alabaina, aipatu behar da nabarmenki gehitu direla familia-ingurunetik kanpoko sexu-indarkeriagatiko biktimizazioak (2018ko % 7,3tik 2019ko % 7,7ra).

Biktimizazioen eta biktimen datuen arabera, agerian geratzen da ohikoagoa dela emakume bati egiten dizkioten erasoak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremuan gertatzea.

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK ETA BIKTIMIZAZIOAK, INDARKERIA MOTAREN ARABERA**<sup>16</sup>. Absolutuak eta %a. EAE, 2019



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko biktimizazioen datuen bilakaerak goranzko joera erakusten du azken urteetan. EAEn, 2019an 2005ean baino 1.704 kasu gehiago erregistratu ziren (orduan hasi zen kasu horien segimendua egiten); horrek esan nahi du % 44,7 egin duela gora. Erreferentziatzat 2010. urtea hartzen bada (datu-erregistroan egun erabiltzen diren irizpideak hartu zirenean<sup>17</sup>), 1.233 kasu gehiago gertatu dira (% 28,8aren parekoa). Zalantzarik gabe,

<sup>16</sup> «Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria» epigrafeak bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumeari eragindako indarkeria adierazten du; «familia barneko indarkeria» epigrafeak bizikidetzaren unitateko edo aurreko epigrafean jaso gabeko senideren batek emakumeari eragindakoa (hau da, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa alde batera utzita), eta «sexu-indarkeria» epigrafeak familiaren eremutik kanpo erasotzaileek emakumearen aurka eragiten duten sexu-indarkeria da («sexu-askatasunaren kontrako delituak» dira, Zigor Kodean hala tipifikatuak).

<sup>17</sup> 2005etik 2008ra (hori barne), familia barneko indarkeriaren datuetan emakume erasotzaileak ere sartzen dira (alabek amei egindakoak, ahizpei...). Datuak ustiatzeko moduak hobetuta (2010), 2009ko datuak zuzendu dira, baina ezin izan dira aurreko urteetakoak hobetu. Horregatik, 2008tik 2009ra ikusten den jaitsiera ez da hala (gainera, aurreko metodologiari jarraituz, 2009ko txostenean jasotzen zen bezala, % 3ko igoera gertatu zen). Urte hauetan benetan gertatu den jaitsiera bakarra 2009tik 2010era artekoa da.


igoera horren arrazoi bat izan daiteke indarkeria pairatzen duten gero eta emakume gehiagok erabakitzen duela erakundeetara jotzea, laguntza eske.

Azken urteotako bilakaerari erreparatu, aipatu behar da biktimizazioen kopuruak behera egin zuela 2015ean eta 2016an (% 0,53 eta % 7,93, hurrenez hurren). Alabaina, 2017. urtetik aurrera, datuek erakusten dute erregistratutako kasuek gora egin dutela, eta 2019. urtean % 3,82 egin duela gora aurreko urtearekiko (2018an askoz ere gehiago egin zuen gora, hain zuzen, % 6,32).


**2019an, aurreko urtean baino % 3,82 biktimizazio gehiago erregistratu ziren, eta emakume biktimen kopuruak % 4,12 inguru egin zuen gora.**

**Hiru indarkeria motek egin dute gora, eta horien artean familia-eremutik kanpoko sexu-indarkeriak egin du gora gehien.**

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOEN BILAKAERA. Absolutuak eta ehunekoen igoera urtetik urtera. EAE, 2010-2019**




**INDARKERIA MOTAREN BAT PAIRATU DUTEN EMAKUMEEN BILAKAERA. Absolutuak eta ehunekoen igoera urtetik urtera. EAE, 2010-2019**



Azken urtean, biktimizazio kopuruak emakumeen aurkako indarkeria mota guztietan egin du gora, nahiz eta ez beti proportzio berean. Ehunekotan, sexu-indarkeriako kasuetan egin du gora gehien erregistratutako kopuruak: 2019an % 9,28 egin du gora aurreko urtearekiko, eta 2018an % 24,36 egin zuen gora 2017arekiko. Bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako indarkeria-kasuen kopuruak % 2,85 egin du gora, eta familia-barruko kasuen kopuruak % 5,77.

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOEN BILAKAERA, INDARKERIA MOTAREN ARABERA. Absolutuak eta %a. EAE, 2018-2019**



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Anlisi Dibisioaren Zuzendaritza.

EAEan 10.000 emakumeko batez besteko biktimizazio-tasa 2019an 48,6 puntukoa da, hau da, aurreko urtean baino puntu eta erdi gehiago. Guztira, 2018. eta 2019. urteen artean, bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeriagatiko, familia barneko indarkeriagatiko eta sexu-indarkeriagatiko biktimizazioek egiten dute gora; horien artean, bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeriagatiko biktimizazioak egin du gora gehien, % 1 inguru 10.000 biztanleko, gero familia barneko indarkeriagatiko biktimizazioak (% 0,5), eta, gero, sexu-indarkeriagatikoak (% 0,3).

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK 10.000 BIZTANLEKO. % tasa EAE, 2018-2019**

Biktimizazioak, 10.000 emakumeko	2018	2019
<b>Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria</b>	35,2	<b>36,0</b>
<b>Familia barneko indarkeria</b>	8,4	<b>8,9</b>
<b>Sexu-indarkeria</b>	3,4	<b>3,7</b>
<b>Guztira</b>	47,0	<b>48,6</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Anlisi Dibisioaren Zuzendaritza eta Errolda Jarraituaren Estatistika (EIN)

## Zer emakumek pairatu dute? Adina eta jatorria

Azterlanek agerian utzi dute ez dagoela biktimaren profil jakinik, indarkeria hori adin guztietako eta hezkuntza-maila guztietako emakumek pairatzen dutela, bai jatorri atzerritarreko emakumek bai Euskadin jaiotako emakumek, eta diru-sarrera maila guztietako etxeetan gertatzen dela.


**Emakumeen aurkako indarkeriak adin guztietako emakumeei eragiten die, gazteenei eta adinez nagusi direnei.**

**2019an, indarkeria mota hori pairatu duten emakumeen ia % 39 hogeita hamar (30) urtetik beherakoa zen.**

Ertzaintzaren azken datuek berretsi egin dute indarkeria adin guztietako emakumek pairatzen dutela, gazteek zein adinez nagusi direnek. 2019an indarkeria pairatu duten emakumeen % 38,7 hogeita hamar urtetik beherakoa zen, eta % 10,6 hemezortzi urtetik beherakoa. 31 urtetik 50 urtera bitarteko emakumeen ehunekoak % 47,2 egin zuen, eta 50 urtetik gorakoenak, % 14,1.



**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PAIRATU DUTEN EMAKUMEEN DATUAK, ADINAREN ARABERA. Absolutuak eta %a. EAE, 2019**



18 urtetik beherakoak: % 10,6  
 18-30 urte: % 28,1  
 31-50 urte: % 47,2  
 50 urtetik gorakoak: % 14,1



\*Kanpoan utzi dira kasu batzuk, adina ez dakigulako (% 0,05)  
 Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

2019an, familia barneko indarkeria izan da emakume gazteek pairatu duten indarkeria nagusia (hamalau urtetik beherakoen % 67,7k eta 14 urtetik 17 urtera bitartekoen % 34,3k); indarkeria mota horren ondotik sexu-indarkeria da (hamalau urtetik beherakoen % 30,5ek, eta 14 urtetik 17 urtera bitartekoen % 38,8k).

Bestalde, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren biktimen % 33,8 hogeita hamar urtetik beherakoa zen, eta azpimarratu behar da indarkeria jasan duten 14 urtetik 17 urtera bitarteko biktima nerabeen % 26,9ri bikotekideak edo bikotekide ohiak egin ziola eraso 2019an.

**18 urtetik beherako emakumeek sufrizten duten indarkeria nagusia familia barneko indarkeria eta sexu-indarkeria da. Hala ere, azpimarratu behar da hamar biktima nerabetatik ia hiruri bikotekideak edo bikotekide ohiak egin ziola eraso (14 urtetik 17ra bitarteko nerabeak).**

18 eta 50 urte arteko emakumeen artean, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria izan da ohikoena. 50 urtetik gorakoen artean, gora egiten du familia barneko indarkeriak, eta 2019an, indarkeria mota hori jasan du, hain justu, erasoak pairatu dituzten 65 urtetik gorako emakumeen % 64,9k.

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PAIRATU DUTEN EMAKUMEEN DATUAK, ADINAREN ETA INDARKERIA MOTAREN ARABERA. %a. EAE, 2019**

Ehuneko horizontalak	Bikotekidearen/bikotekide ohiaren	Familia barnekoa	Sexu-indarkeria	Guztira
14 urtetik behera	1,8	67,7	30,5	100,0
14 - 17 urte	26,9	34,3	38,8	100,0
18 - 20 urte	63,9	15,6	20,4	100,0
21 - 30 urte	82,6	8,1	9,2	100,0
31 - 40 urte	88,6	7,0	4,4	100,0
41 - 50 urte	79,5	16,0	4,5	100,0
51 - 64 urte	54,0	43,2	2,7	100,0
65 urtetik gora	30,3	64,9	4,9	100,0

*Adin talde bakoitzeko indarkeria mota nagusia:*  
 ► 14 urtetik behera → % 67,7 familia barnekoa  
 ► 14 - 17 urte → % 38,8 sexu-indarkeria  
 ► 18 - 50 urte → % 82,24 bikotekide/bikotekide ohi  
 ► 51 - 64 urte → % 54,0 bikotekide/bikotekide ohi  
 ► 65 urtetik gora → % 64,9 familia

\*Kanpoan utzi dira kasu batzuk, adina ez dakigulako (% 0,05)  
 Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Adinaren aldagaia indarkeria mota bakoitzaren emakume biktima guztiekiko kontuan hartuz gero, berriz, datuek adierazten dute bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako

indarkeriaren emakume biktimen % 32 zela 31-40 urte bitartekoa, eta % 82, berriz, 21-50 urte bitartekoa.

Emakumeen aurka familia barnean gauzatutako indarkeriaren kasuan, kasu guztien % 21 zen 51-64 urte bitartekoa, eta % 40 inguru 41-64 urte bitartekoa. Indarkeria mota horren emakumezko biktimen % 17 14 urtetik beherakoa zen.

Sexu-indarkeriari dagokionez, biktimen % 22,3 zen 14-17 urte bitartekoa. 17 urtetik beherako emakumeak biktimen % 40 inguru izan ziren 2019an. Deigarria da, halaber, 21-30 urte bitartean dituzten emakumeen artean, sexu indarkeriagatiko biktimak % 21,3 izan zirela.

Hortaz, biktima gazteen taldea da sexu-indarkeriagatiko talderik zaugarriena; emakume helduagoak bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako genero-indarkeriaren biktima izateko zaugarriagoak dira, eta adinez nagusi diren emakumeak, berriz, familia barneko norbaitek gauzatutako indarkeriaren biktima izateko.

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PAIRATU DUTEN EMAKUMEEN DATUAK, ADINAREN ETA INDARKERIA MOTAREN ARABERA. %a. EAE, 2019**

Ehuneko bertikalak	Bikotekidearena / bikotekide ohiarena	Familia barnekoa	Sexu-indarkeria
<b>14 urtetik behera</b>	% 0,1	% 17,0	% 16,4
<b>14 - 17 urte</b>	% 2,1	% 9,2	% 22,3
<b>18 - 20 urte</b>	% 5,6	% 4,7	% 13,0
<b>21 - 30 urte</b>	% 26,0	% 8,8	% 21,3
<b>31 - 40 urte</b>	% 32,0	% 8,7	% 11,6
<b>41 - 50 urte</b>	% 24,8	% 17,2	% 10,2
<b>51 - 64 urte</b>	% 7,6	% 21,0	% 2,8
<b>65 urtetik gora</b>	% 1,8	% 13,3	% 2,1
<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0

*Adin talde bakoitzeko indarkeria mota nagusia:*

► **Bikotekidea/bikotekide ohi** → 31-40 urte bitarteko emakumeen % 32.

► **Familia barnekoa** → 51-64 urte bitarteko emakumeen % 21.

► **Sexu-indarkeria** → 14-17 urte bitarteko emakumeen % 22,3.

\*Kanpoan utzi dira kasu batzuk, adina ez dakigulako (% 0,05)

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Jende askok uste du indarkeria hori pairatzen duten emakume gehienak emakume migratuak direla; *Eusko Jaurlaritzak egindako Biztanleen pertzepzioari buruzko 2015eko azterlanak* adierazten duenez<sup>18</sup>. EAEko biztanleriaren % 27 inguru bat dator ideia horrekin.

Hala ere, datuen arabera, 2019an indarkeria jasan zuten emakumeen % 49,73 EAEn jaioa zen (2018an, % 52,10), eta beste % 11,47, beste autonomia-erkidego batzuetan jaioa. Bien artean guztizkoaren % 61,20 dira (2018an, % 63,63).

Emakume atzerritarrak % 38,80 ziren (2018an, % 36,37) gure autonomia-erkidegoan Ertzaintzak erregistratutako biktimen artean (emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak).

Baina atzerrian jaiotako emakumeak EAEko emakume biztanleen % 7,24 direnez<sup>19</sup>, datuek erakusten dute emakumeen aurkako indarkeriaren prebalentzia handiagoa dela atzerrian jaiotakoaren artean. Zehazki, 2019an, Espainiako Estatuan jaiotako 1.000 emakumetatik 2,56k indarkeria jasan zuen; aldiz, atzerrian jaiotako 1.000 emakumetatik 20,91k. Bi ratio horiek joan den urtean erregistratutakoaren oso antzekoak dira, baina pixka bat gora egin du emakume atzerritarren aurkako indarkeria-kasuen prebalentziak (2018an, 18,85 zen).


<sup>18</sup> PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA. *Emakumeen aurkako indarkeria EAEn: herritarren pertzepzio eta iritziak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza, 2015.

<sup>19</sup> Iturria: EIN. Errolda Jarraituaren Estatistika. Behin betiko datuak, 2019.

Hainbat arrazoi egon daitezke emakume atzerritarrek tasa handiagoak izateko; esate baterako, zenbait faktore kultural eta sozial izan ditzakete, zaurgarritasun sozial, emozional eta ekonomiko handiagoa dakarkiena: indarkeriaren gaineko pertzepzio desberdina izatea; hizkuntzarekin zailtasunak izatea, eta hori oztupo izan daiteke gizarteratzeko, laneratzeko edo independentzia sozio-afektiborako; harrerako herrialdeetan laguntzako sare sozialik ez izatea; ingurunea ez ezagutzea; informazio eta laguntzako baliabideetarako sarbide murriztagoa izatea, besteak beste.

Emakume horietako gehienak jatorri atzerritarrekoak dira (% 68,34); nagusiki Latinoamerikatik etorritakoak (2018an, % 64,99); % 11,75 Europako beste herrialde batetik (2018an, % 15,09); % 17,25 Afrikatik, % 2,54 Asiatik eta % 0,12 Ozeanitik.

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PAIRATU DUTEN EMAKUMEEN DATUAK, JAIOTERRIAREN ARABERA.** Absolutuak eta %a. EAE, 2019



\* Kanpoan utzi dira kasu batzuk, jaioterrria zein den ez dakigulako (% 0,1)

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Erasotako emakumeen jatorria kontuan hartu gabe, bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako indarkeria-kasuak maizago gertatzen dira beste eraso batzuk baino; hala ere, indarkeria mota horrek eragin handiagoa du atzerriko emakumeen artean, familia barneko indarkeriak edo sexu-indarkeriak baino.

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PAIRATU DUTEN EMAKUMEEN DATUAK, JATORRIAREN ETA INDARKERIA MOTAREN ARABERA. %a. EAE, 2019**

Ehuneko horizontalak	Bikotekidearena/bikotekide ohiarena	Familia barnekoa	Sexu-indarkeria	Guztira
EAE	64,80	24,40	10,81	100
BESTE ERKIDEGOREN BAT	59,49	30,83	9,68	100
ATZERRIA	80,36	12,16	7,48	100
Ehuneko bertikalak	Bikotekidearena/bikotekide ohiarena	Familia barnekoa	Sexu-indarkeria	Guztira
EAE	45,87	59,51	56,16	49,63
BESTE ERKIDEGOREN BAT	9,72	17,35	11,61	11,45
ATZERRIA	44,38	23,14	30,33	38,72
GUZTIRA	100,00	100,00	100,00	100,00

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Bestalde, esan behar da indarkeria jasan duten emakumeak antolatzen ari direla. Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat elkarte sortu dira: Mujeres Bizirik, Mujeres que Aman Demasiado, Haize Berria edo Mujeres al Cuadrado. Elkarte horiek erreferente izateaz gain indarkeriarik gabeko bizitza egiteko bideari ekiten dioten emakumeentzat, presente egon nahi

dute indarkeriari aurre egiten dioten emakumeak artatzeko politikak diseinatzen, eta borroka egiten dute politika horiek diseinatzerakoan beren ahotsak entzun daitezzen.

## Indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak

Ohikoa da indarkeria jasaten duten emakumeen seme-alabak beren amek jasaten duten indarkeria-egoeren lekukoak izatea. Nazioarteko gomendioak aintzat hartuta, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabei biktimaren izaera aitortu zitzaizen, Genero-indarkeriaren aurkako babes integralko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa aldatuta, eta aldaketa hori haur eta nerabeentzako babes-sistema aldatzeko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa xedatutakoari jarraituz egin zen.

Datuak erregistratzeko egungo sistemak ez du aukera ematen indarkeria horren eraginpean egoteagatik kalteak jasan dituzten seme-alaben kopuruari buruzko zifra argirik lortzeko; hala ere, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak horri irtenbidea emateko jarduerak abian jarri ditu, eta hurrengo edizioetan zenbait datu edukitzea aurreikusten da.

Estatu-mailan argitaratu den azken inkestaren arabera, hots, *Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko 2015eko makroinkesta*<sup>20</sup>, kalkulatu da azken urtean (12 hilabete) indarkeria fisikoaren biktima izan den emakume bat bizi den etxean % 52,2tan neska-mutiko adingabeak bizi direla.

Oso erreferentzia adierazgarria da, halaber, emakumearen aurkako indarkeriaren biktimentzat hiru foru-aldundietan dauden laguntza psikologikorako zerbitzuetan 1.609 emakume artatu zituztela lehenbizikoz 2019an, eta emakume horien % 67,2k seme-alaba adingabeak zituztela ardurapean (neska-mutiko horien % 46,1 neskak ziren).

**Indarkeria mota jasaten duten hamar emakumetatik sei inguruk seme-alaba adingabeak dituzte ardurapean, eta horiek ere biktimak dira.**

EMAKUMEENGANAKO SEXU-ERASOETAN ETA ETXEKO TRATU TXARREKO EGOERETAN LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA EMATEKO FORU-ALDUNDIETAKO ZERBITZUAK. Absolutuak eta %a. EAE, 2019

	ARABAKO FORU ALDUNDIA	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	GUZTIRA
<b>Kasuak, guztira</b>	603	1088	554	<b>2245</b>
<b>Lehenbizikoz artatutako kasuak, guztira</b>	603	663	343	<b>1609</b>
<b>Lehenbizikoz artatutako emakumeen %a, guztizkoarekiko</b>	100,0	60,9	61,9	<b>71,7</b>
<b>Ardurapean seme-alaba adingabeak dituzten emakumeak</b>	455	469	157	<b>1081</b>
<b>Seme-alabak ardurapean dituzten emakumeen %a, kasu berri guztiekiko</b>	75,5	70,7	45,8	<b>67,2</b>
<b>Ardurapeko seme-alaba adingabeen kopurua</b>	-	526	265	<b>791</b>
<b>Alaba kopurua</b>	-	240	125	<b>365</b>
<b>Ardurapeko neska adingabeen %a, adingabe guztiekiko.</b>	-	45,6	47,2	<b>46,1</b>

Iturria: EMAKUNDE. EAE*n* indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaien arretaren estalduraren inguruko datuak. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2019.

<sup>20</sup> OSASUN MINISTERIOA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2015*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa, 2015.

Adingabeek pairatzen duten indarkeriaren beste erreferentzia adierazgarri bat da Ertzaintzak erregistratutako biktimizazio-datua: bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindakoak, bai familia-harremanen aurkako delituen ondorioz, bai zaintza-betebeharrak urratzeagatik egindako falten ondorioz.

2019an, familia-harremanen aurkako 58 delitu erregistratu ziren (horietako batzuk dira, esaterako, zaintza-betebeharra urratzea, adingabea etxetik joan dadin bultzatzea edo zaintza-erregimena urratzea, adingabea berekin eramatea, familia abandonatzea eta prestazio ekonomikoak ez ordaintzea).

Espainiako Estatuan, 2013. urtean 6 adingabe hil ziren, 2014an 4, 2015ean 3, 2016an 1, 2017an 8, 2018an 7 eta 2019an 3.<sup>21</sup>.

Bestalde, azpimarratzekoa da seme-alabenganako indarkeria, batik bat, bikotekideak edo bikotekide ohiek gauzatutako indarkeriaren (genero-indarkeria ere esaten zaio) esparru espezifikoan gertatzen dela, baina emakumeen aurkako beste indarkeria modu batzuen esparruan ere gertatzen dela emakume horiek seme-alabak badituzte; adibidez, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren esparruan.

## Nork gauzatzen du indarkeria hori? Zer harreman edo lotura izaten dute erasotzaileak eta biktimak?

**Bikotekide ohiek eraso egin zienean, emakumeen erdia bananduta edo banantze-bidean zeuden.**

Adierazi den moduan, emakumeen aurkako indarkeria-kasu gehienetan, erasotzailea eta biktima harreman sentimental batez lotuta daude edo egon dira, Ertzaintzak 2019an erregistratutako indarkeria-kasu guztien % 74.

Kasu horietatik, erasotzailea eta biktima ezkondata zeuden edo ezkondata egon ziren % 26,4 kasutan; bikotekideak elkarrekin bizi ziren edo elkarrekin bizi izan ziren, ezkondu gabe, % 70,9 kasutan; eta ezkongai-harremana zuten, elkarrekin bizi gabe, % 2,7 kasutan.

Azpimarratu behar da 2019an bikotekideak edo bikotekide ohiek eraso egin zien emakumeen erdia baino gehiago (% 52) bananduta zegoela aurretiaz edo etena zuela erasotzailearekiko harreman sentimentala, eta emanak zituela egoera gainditzeko lehen urratsak.


### EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK, BIKOTEKIDEEK EDO BIKOTEKIDE OHIEK ERAGINDAKOAK, ARAU-HAUSTE MOTAREN ARABERA (FAMILIA-HARREMANEN AURKAKO DELITUAK ETA ZAINTZA URRATZEAGATIKO FALTAK). EAE, 2019

FAMILIA-HARREMANEN AURKAKO DELITUAK, GUZTIRA	58
Zaintza-betebeharra urratzea	2
Adingabea etxea uztera bultzatzea / zaintza-erregimena urratzea	1
Adingabea berekin eramatea	3
Familia abandonatzea	4
Prestazio ekonomikoak ez ordaintzea	48

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

<sup>21</sup> Iturria: BERDINTASUN MINISTERIOA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *Estadística de Víctimas Mortales por Violencia de Género*.

**BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIEK EMAKUMEEN AURKA GAUZATUTAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK, ERASOTZAILEAREKIKO HARREMAN MOTAREN ARABERA. %a. EAE, 2019**



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Prozesu luzea eta mingarria da indarkeriazko harreman bat eten eta tratu txarren egilea uztekoa, eta, sarritan, ez da lehen saialdian lortzen; izan ere, Torres Falcón autoreak adierazten duen moduan: «Emakumeek senarren indarkeriari aurre egiten diotenean eta, batik bat, harremana eteteko urratsen bat ematen dutenean, gizonaek sufritu-itxurak egiten dituzte, eta ulertua ez denaren, bere kabuz baliatu ezin duenaren eta laguntza behar duenaren lekuan jarrita, xantxia handiak egiten dituzte. Oso erraza da emakumezkoak jolas horretan erortzea eta, orduan, erreparazio-lanen ardura hartzea»<sup>22</sup>.

Beste indarkeria modu batzuen biktimizazioari dagokionez, familiaren barruko emakumearen aurkako indarkeria guztien % 43,5 kasutan biktima erasotzailearen ama izan da, eta % 16,9 kasutan aitak erasotako alaba adingabea izan da biktima.

**Seme-alabek erasotako amen kopurua handia da, familia barneko indarkeria-kasuen artean.**

**SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO FAMILIA BARNEKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK, ERASOGILEAREKIKO HARREMANAREN ARABERA. Absolutuak eta %a. EAE 2019**


	2019	Guztira	%
<b>FAMILIA BARNEKO INDARKERIA (BIKOTEKIDEARENA EDO BIKOTEKIDE OHIARENA IZAN EZIK)</b>		<b>1.008</b>	<b>100,0</b>
Alaba adingabea	170		16,9
Ama	438		43,5
Beste senitarteko bat	400		39,7
<b>SEXU-ASKATASUNA</b>		<b>424</b>	<b>100,0</b>
Beste harreman mota bat	424		100,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.518</b>		<b>100,0</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

2002tik 2019ra bitartean bikotekideak edo bikotekide ohiak eraildako hamar emakumetik lau (% 41,3) erailketaren unean ez ziren bizi hil zituen gizonarekin.

Bestalde, epe horretan bikotekideak edo bikotekide ohiak eraildako emakume horietatik, hamarretik hiruk amaitua zuen alde aurretik haiekiko harremana.


**2002TIK 2019RA BITARTEAN BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAILDAKO EMAKUMEAK, ERASOTZAILEAREKIN IZANDAKO BIZIKIDETZAREN ARABERA. %a. EAE**



Iturria: Emakunde

<sup>22</sup> TORRES, M. *La violencia en casa*. Mexiko: Paidós, 2001.

**2002TIK 2019RA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ONDORIOZ ERAILDAKO EMAKUMEAK, ERASOTZAILEAREKIKO HARREMAN MOTAREN ARABERA. EAE %a**




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

**30 urtetik beherakoa da erasotzaileen ia % 30.**

Erasotzaileetako asko gizonezko gazteak dira. Nahiz eta erasotzaile gehienak (% 54,91) 31 eta 50 urte bitartekoak izan, nabarmendu behar da emakumeen aurka indarkeria erabili zuten hamar gizonetik ia hiru (% 29,98) 30 urte baino gutxiagokoa dela. Zehazki, erasotzaile guztien % 3,68 adingabeak dira (2017an, % 3,77; eta 2018an, % 3,82).

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ERABILI DUTEN ERASOTZAILEEN DATUAK, ADINAREN ARABERA. %a. EAE, 2019**



\*Kanpoan utzi dira kasu batzuk, adina zein den ez dakigulako (% 2,87)

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Nabarmentzekoa da erasotzaile gazteenen kopurua familia barneko indarkeria-kasuetan eta familiarik kanpoko sexu-indarkeriaren kasuetan:

- Familia barneko indarkeriaren erasotzaileen artean, 18 urtetik behera dituztenak % 12,17 dira (2018. urtean, % 10,59). Gainera, 30 eta 50 urte bitartekoak ziren % 42,91 eta 50 urtetik gorakoak % 17,02.

**Erasotzaile gazteen kopurua bereziki handia da familia barneko indarkeria-kasuetan eta familiarik kanpoko sexu-indarkeriaren kasuetan. Gainera, nabarmentzekoa da 2019an bikotekideari edo bikotekide ohiari eraso egin zioten lau gizonetatik batek 30 urte edo gutxiago zituela.**

- Familiaren eremutik kanpoko sexu-indarkeriaren erasotzaileen artean, adingabeak % 9,62 dira (2018an, % 13,93), eta 30 urtetik beherakoak, % 42,63 (2018an, % 46,07). 50 urtetik gorako sexu-erasotzaileen ehunekoak ez da askorik aldatu (2019an, % 16,67; eta 2018an, % 17,5).
- 31 eta 50 urte bitartekoak ziren bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremuko erasotzaileen % 59,65 (2018an, % 60,06) eta 30 urtetik beherakoa, berriz, % 25,93 (2018ko ehunekoaren oso antzekoa, % 26,60 izan baitzen).

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ERASOTZAILEAK, INDARKERIA MOTAREN ARABERA. %a EAE, 2019**

2019			
	Bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako indarkeria	Familia barneko indarkeria	Sexu-askatasuna
<b>18 urtetik behera</b>	0,75	12,17	9,62
<b>18 - 30 urte</b>	25,18	27,90	33,01
<b>31 - 50 urte</b>	59,65	42,91	40,71
<b>50 urtetik gora</b>	14,42	17,02	16,67


Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

**Erasotzaile gehienek nazionalitate espainiarra dute, eta emakume atzerritarrei ere egiten diete eraso.**

2003tik 2017ra bitartean, emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko erailketa-kasuetan, erasotzaileen ia % 60k nazionalitate espainiarra zuen.

Bestalde, jatorriari dagokionez, kontuan izan behar da gizonezko erasotzaile gehienak espainiarrak direla. *Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren 2017ko txostenak (XI.a), Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak argitaratutakoak*<sup>23</sup> zera adierazten du: 2003tik 2017ra bitartean, kasuen % 24an erasotzaileak beste herrialde batzuetakoak ziren eta emakume erailak ez ziren espainiarrak; kasuen % 60an, aldiz, erasotzailea eta biktimak espainiarrak ziren.

**GENERO-INDARKERIAREN ONDORIOZ HILDAKO EMAKUMEEN ETA ERASOTZAILEEN EHUNEKOAK, HAIEN GUZTIEN JAIOTERRIAREN ARABERA. ESPAINIA (%a), 2003-2017.**



Iturria: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza; Presidentzia, Gorteekiko Harremanak eta Berdintasun Ministerioa.

Nahiz eta erailketa gehienetan biktimak eta hiltzaileak nazionalitate bera izan, azpimarratzekoa da 2003tik 2017ra bitartean emakume atzerritarren hiltzailea espainiarra izan zela kasuen % 7an, eta emakume espainiarren hiltzailea atzerritarra, aldiz, kasuen % 6an.

<sup>23</sup> EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. *Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren urteko txostena, XI.a. 2017. urtea*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2018.




## Non gertatzen dira erasoak?

2019an erasotako emakumeen % 53,7 Bizkaian bizi zen, % 30,4 (hamarretik hiru) Gipuzkoan, eta % 15,9 Araban. Biktimen ehuneko horiek ez dira apenas aldatu, aurreko urteen aldean.

### EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA.

Absolutuak eta %a. EAE, 2019




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Aurreko urtean baino biktima gehiago izan dira hiru lurralde historikoetan. Hain zuzen ere, Bizkaian 62 gehiago (aurreko urtean baino % 2,68 gehiago), Gipuzkoan 61 gehiago (% 4,76 gehiago), eta Araban 52 gehiago (% 7,98 gehiago).

Indarkeria motaren arabera, erasotako emakumeen ehunekoa oso antzekoa da hiru lurralde historikoetan, baina sexu-indarkeriaren emakume biktimen ehunekoa Araban (% 7,8) txikiagoa da Bizkaian (% 9,8) eta Gipuzkoan baino (% 10). Baina bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako indarkeriaren biktimen ehunekoa handiagoa da Arabako lurralde historikoan (% 71,2) Bizkaian (% 69,9) eta Gipuzkoan (% 69,8) baino; eta familia barneko indarkeriaren biktimen ehunekoa ere bai (% 21 Araban, eta % 20,2 Bizkaian zein Gipuzkoan).



### EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, INDARKERIA MOTAREN ARABERA, LURRALDE HISTORIKOKA. %a. EAE, 2019




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Biktimizazioen ehunekoei dagokienez, % 54,2 Bizkaian gertatu ziren, % 30,5 Gipuzkoan eta % 15,3 Araban. Tasa horiek erlazio garbia dute emakumeek lurralde horietan duten banaketa proportzionalarekin.

Biktimizazio-tasarik txikiena 10.000 emakumeko Gipuzkoakoa da (45,5), eta handiena Arabakoa (50,3).


BIKTIMIZAZIO-TASA 10.000 EMAKUMEKO, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. %a. EAE, 2019



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Anlisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Lurralde Historikoen artean, azken urte honetan Araban egin du gora gehien biktimizazio kopuruak (aurreko urtean baino % 7,63 gehiago), eta gero, Gipuzkoan (% 5,39) eta Bizkaian (% 1,94).

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOEN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. Absolutuak eta %a. EAE, 2018-2019



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Anlisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Oro har, biktimizazioen ratioa handitu egin da hiru lurralde historikoetan, 2018. urtearekin alderatuta, nahiz eta joeran zenbait aldaketa nabari diren. Tasarik handiena 2017an eta 2018an Bizkaian izan zuten, eta 2019an, berriz, Araban izan dute (50,3 puntu). Horrezaz gain, lurralde historiko horretan izan dute gorakada handiena 2017. urtetik (urte horretan baino 6,3 puntu gehiago, eta 2018an baino 3,15 puntu gehiago).

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. Absolutuak eta %a. EAE, 2018-2019

	Biktimizazioak, 10.000 emakumeko		Biktimizazioak		EAEko emakumezko biztanleak		Biktimizazioak, 10.000 emakumeko	
	2018	2019	2019	2019	2019	2019	2019	
	Tasa	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	Tasa	
<b>Araba</b>	47,15	846	% 15,3	168050	14,8		<b>50,3</b>	
<b>Bizkaia</b>	49,30	2989	% 54,2	596439	52,6		<b>50,1</b>	
<b>Gipuzkoa</b>	43,29	1683	% 30,5	370213	32,6		<b>45,5</b>	
<b>Guztira</b>	47,02	5518	% 100,0	1134702	100,0		<b>48,6</b>	


Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Anlisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Datuak udalerrrika aztertuta, aurreko urteetako joera berresten da: biktimizazio kopuru handiena hiriburuetan eta udalerrri handietan gertatzen da. Joera hori bereziki nabarmena da Araban.

- Bizkaian erregistratutako hiru biktimizaziotik bat (% 31,4) Bilbon gertatu zen (938 Bilbon eta 2.051 beste udalerrri batzuetan).
- Gipuzkoan erregistratutako biktimizazioen % 29,9 Donostian gertatu zen (504 Donostian, eta 1.179, beste udalerrri batzuetan).
- Araban erregistratutako biktimizazioen % 78,7 Gasteizen gertatu zen (666 Gasteizen, eta 180, beste udalerrri batzuetan).

Hala ere, hiru hiriburuak biktimizazioen kopuruan dituzten aldeak ez dira hain handiak udalerrri bakoitzean dauden emakumeen populazioaren bolumena kontuan hartuta. Nahiz eta Arabako hiriburuak duen ratorik handiena (10.000 emakumeko biktimizazio-tasa Gasteizen 51,6 da, Bilbon tasa 51,2 da eta Donostian, 50,9); oso antzeko tasak dituzte. Gasteizen tasak nabarmen egin du gora, aurreko urtearekin alderatuta (45,30 zen). Donostian ere gora egin du (45,10 baitzen 2018an). Baina Bilbon tasak 2,2 egin du behera (53,4 zen 2018an, eta 51,2, berriz, 2019an).

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAGATIKO BIKTIMIZAZIOAK (bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, familia barnekoa edo sexu-indarkeria) HIRIBURUETAN. %a. EAE, 2019**



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Bestalde, adierazi behar da EAEko biktimizazioen % 71,5 udalerrri handietan gertatu zela (10.000 emakume baino gehiagoko udalerrietan), eta 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, biktimizazio guztien % 3,1 bakarrik. Alabaina, biktimizazioen bat erregistratu duten udalerrien % 43,5 txikiak dira (1.000 emakume baino gutxiago), eta % 10,9 udalerrri handiak dira (10.000 emakume baino gehiago).

**BIKTIMIZAZIOEN KOPURUAK, UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA, LURRALDE HISTORIKOKA. Absolutuak eta %a. 2019**

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	%
<b>UDALERRIA &gt; 10.000 EMAK.</b>	666	2199	1079	3944	71,5
<b>5.001-10.000 EMAKUMERA ARTEKO UD.</b>	54	274	315	643	11,7
<b>1.001- 5.000 EMAKUMERA ARTEKO UD.</b>	32	342	206	580	10,5
<b>UDALERRIA &lt; 1.000 EMAK.</b>	60	71	39	170	3,1
Ezezaguna	34	103	44	181	3,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>846</b>	<b>2989</b>	<b>1683</b>	<b>5518</b>	<b>100</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Anlisi Dibisioaren Zuzendaritza.

EAEko udalerrien % 73,3k biktimizazioen bat erregistratu zuen 2019. urtean, eta aldeak daude lurralde historikoaren arabera. Bizkaian, udalerrien % 80,4 udalerritan izan ziren biktimizazioak (2018. urtean baino 6,3 puntu gehiago), Gipuzkoan, % 69,3 udalerritan (2018. urtean baino 3,4 puntu gehiago), eta Araban % 64,7 udalerritan (2018. urtean baino 3,9 puntu gehiago).

**BIKTIMIZAZIOAK IZAN DITUZTEN UDALERRIAK, UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA, LURRALDE HISTORIKOKA. Absolutuak eta %a. 2019**

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	%
<b>UDALERRIA &gt; 10.000 EMAK.</b>	1	11	8	20	10,9
<b>5.001-10.000 EMAKUMERA ARTEKO UD.</b>	2	9	13	24	13,0
<b>1.000- 5.000 EMAKUMERA ARTEKO UD.</b>	5	33	22	60	32,6
<b>UDALERRIA &lt; 1.000 EMAK.</b>	25	37	18	80	43,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>33</b>	<b>90</b>	<b>61</b>	<b>184</b>	<b>100</b>
<b>%, udalerrri guztiekiko</b>	<b>64,7</b>	<b>80,4</b>	<b>69,3</b>	<b>73,3</b>	

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Anlisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Guztira, EAEko 67 udalerritan (udalerrri guztien % 26,7 udalerritan) ez zen biktimizaziorik erregistratu. Udalerrri guztien % 5,18 dira biktimizazioen tasa oso txikia duten udalerrriak (10.000 emakumeko 0,1 eta 14,9 biktimizazio bitartean dituztenak); udalerrri guztien % 15,14 dira biktimizazio-tasa txikia dutenak (15 eta 29,9 artekoa); udalerrrien % 18,33 dira tasa ertainak dituztenak (30 eta 44,9 artekoak); udalerrrien % 14,34k biktimizazioen tasa handia du (45 eta 59,9 artekoa); eta gainerako % 15,54ak oso tasa handiak ditu (60 biktimizaziotik gorakoa 10.000 emakumeko)<sup>24</sup>.

<sup>24</sup> Gogoan izan behar da zuhur hartu behar direla oso biztanle gutxi duten udalerrien tasak. Gogorarazi behar da askotan nahikoa dela udalerrri batean biktimizazio bakarra gertatzea bertako tasak gora egiteko; beraz, datu hori tentu handiz interpretatu behar da.

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIO-TASAK, UDALERRIEN ARABERA. EAE, 2019**




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

**Noiz gertatzen dira erasoak?**

Biktimizazioak urte osoan erregistratzen dira, eta hilabetearen arabera aldeak esanguratsuak ez direla iruditu arren, uda-sasoian (udako hilabeteetan) gertatzen da biktimizazio gehien. 2019an, biktimizazio kopuru handiagoak erregistratu ziren abuztuan (529) eta irailean (510) gainerako hilabeteetan baino; uztailean ere kopuru handia erregistratu zen (494).

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK, HILABETEKA, INDARKERIA MOTAREN ARABERA. Absolutuak. EAE, 2019**



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.


Joera horri hein handi batean bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako indarkeriaren joerak eragiten dio (4.086 biktimizazio), zeinak biktimizazio guztien (5.518) hiru laurden inguru

hartzen baititu. Horrela, familia-eremutik kanpoko sexu-indarkeria soilik kontuan hartuta, abuztuan gertatu ziren gehienak (57 biktimizazio).

Bestalde, emakumeen aurkako indarkeria-kasu gehien asteburuetan (batez ere igandeetan) erregistratzen dira.

Igandeetan erregistratutako biktimizazio kopurua batez beste erregistratutako kopurua baino % 39,3 handiago izan zen.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK, ASTEKO EGUNAREN ARABERA. Absolutuak eta %a. EAE, 2019



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Eguneko ordu-garaiari dagokionez, eraso gehienak arratsaldean gertatzen dira (% 37,8), eta ondoren, gauetan (% 34,1) eta goizean (% 19,7). Biktimizazio kopuru handiena izaten duten ordu-garai zehatzen artean, goizean 12:00etan izan ohi dira (% 5,3), arratsaldean 20:00etan (% 6,14) eta 16:00etan (% 5,1), eta gauetan 21:00etan (% 5,3), 22:00etan (% 5,3) eta 23:00etan (% 5,1).

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK, EGUNEKO ORDUAREN ARABERA. %a. EAE, 2019

Ordua	07:00	08:00	09:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	23:00	00:00	01:00	02:00	03:00	04:00	05:00	06:00	
<b>Goizez</b> % 19,7																									
	%	2,4	2,2	2,4	3,7	3,7	5,3																		
<b>Arratsaldean</b> % 37,8																									
	%	3,70	4,31	4,84	5,11	4,35	4,49	4,82	6,14																
<b>Gauetan</b> % 34,1																									
	%	5,3	5,3	5,1	3,4	3,4	2,9	2,7	2,2	2,0	1,8														

Oharra: kasuen % 8,4tan ez dakigu zer ordutan gertatu zen eraso.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

## Zer eraso mota egiten dira gehien?

Txostenean aipatu ditugun biktimizazioetan, eraso mota asko sartzen dira. 2019an, «Tortura edo osotasunaren aurkako delituak»<sup>25</sup> izan ziren EAEn emakumeen aurka gehien egiten ziren delituak,

<sup>25</sup> Zigor-kodean ez dago genero-indarkeriagatik deliturik. Besteak beste, giza hilketak, lesioak eta mehatxuak dira, eta dagozkien arau-hausteetan sailkatzen dira. Baina salaketaren batean esaten bada tratatu txarrak ohikoak direla, Zigor Kodearen 173.2. artikulua orokorrera jotzen da (VII. Titulua-Torturak eta askatasun moralaren aurkako beste delitu batzuk): Norbaitek ohikotasunez indarkeria fisikoa edo psikikoa erabiltzen baldin bada bere ezkontidearekin edo ezkontidea izan denarekin, eta, bizikidetzarik izan gabe ere, haren pareko afektibotasun-lotura duen edo izan duen pertsonarekin, aurrekoekin, ondorengoekin edo odol, adopzio edo afinitatezko senidetasunez berezko edo ezkontza bidezko neba edo arreba dituenekin, edo berekin bizi diren adingabeekin edo minusbaliotasunak izan eta babes berezia behar duten pertsonekin edo ezkontidearen edo bizikidetzen ahalaren, tutoretzaren, kuradoretzaren edo izatezko zaintzaren pean bizi direnekin, edo bere familia-bizikidetzako gunearen barruan bestelako harremanen bat duten pertsonekin, edo, oso kalteberak direlako, zentro publiko edo pribatuaren zaintzapean edo babespean dauden pertsonekin, sei hilabetetik hiru arteko espetxealdi-zigorrekin, armak eduki eta eramateko eskubidea hiru eta bost urte artean kentzearekin zigortuko da, bai eta, epaileak edo auzitegiak, adingabearen edo minusbaliotasunak izan eta babes berezia behar duen pertsonaren interesean, egoki irizten duenean, guraso-ahala, tutoretza, kuradoretzak, zaintza edo harrera urtebetetik bost urte artean izateko desgaitasuna berezia ere, eta hargatik eragotzi gabe indarkeria fisikoko edo psikikoko ekintzei dagozkien delituengatik ezartzeak izan daitezkeen zigorrak. Zigorrak goiko erdialdean ezarriko dira, baldin eta indarkeria-ekintzetako bat edo batzuk adingabearen aurrean egiten baldin badira, armak erabiltzen baldin badira, bizileku komunean edo biktimaren etxean egiten baldin badira, 48. artikulua araututako zigorrak bat urratuz egiten baldin badira, edo izaera bereko kautela-neurriak, segurtasun-neurriak edo debekuak urratuz egiten baldin badira. Horrez gainera, zaintzapeko askatasunaren neurria ezar daiteke apartatu honek adierazten dituen egoeretan.

familia barnean ohikotasunez eragindako tratu txarren harian (erregistratutako biktimizazio guztien % 39,34 izan ziren; eta 2018an, berriz, erregistratutakoen % 44,50 izan ziren).

Indarkeria mota horren atzetik hauek datoz: «lesioak» (2019an % 22,58, eta 2018an, % 20,08), hor sartzen dira familia barneko tratu txarrak eta lesioak, eta gero, «Justizia Administrazioaren kontrako» delituak (2019an % 17,29, eta 2018an % 16,48), hots, kautelazko segurtasun-neurriak eta zigorra urratzea, etab.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK, ARAU-HAUSTE MOTAREN ETA INDARKERIA MOTAREN ARABERA. Absolutuak eta %a. EAE, 2018-2019

ARAU-HAUSTE MOTA	Bikotekidearena/bikotekide ohiarena	Familia barnekoa	Sexu-indarkeria		GUZTIRA		
			2019	2018	2019	Aldea, %	% 2019
Giza hilketa eta haren formak*	4	2	0	10	6	-40,00	0,11
Lesioak	894	352	0	1.067	1.246	16,78	22,58
Askatasunaren aurkakoak	315	211	0	442	526	19,00	9,53
Tortura eta osotasun fisikoaren aurkakoak	1.873	298		2.365	2.171	-8,20	39,34
Gizakien salerosketa	0	0	2	6	2	-66,67	0,04
Intimitatearen aurkakoak, norberaren irudirako eskubidearen aurkakoak, etab.	5	1	0	9	6	-33,33	0,11
Sexu-askatasunaren aurkakoak	53	50	422	445	525	17,98	9,51
Ohorearen aurkakoak	1	1	0	3	2	-33,33	0,04
Familia-harremanen aurkakoak	58	22	0	92	80	-13,04	1,45
Justizia Administrazioaren aurkakoak	883	71	0	876	954	8,90	17,29
<b>BIKTIMIZAZIOAK, GUZTIRA</b>	<b>4.086</b>	<b>1008</b>	<b>424</b>	<b>5.315</b>	<b>5.518</b>	<b>3,82</b>	<b>100,00</b>

\*Giza hilketa eta haren formak bere barnean hartzen ditu erailketak, erailketa-saiakuntzak eta inori bere buruaz beste egitera bultzatzea edo bere buruaz beste egiten laguntzea.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Anlisi Dibisioaren Zuzendaritza.

«Askatasunaren aurkako» arau-hausteak biktimizazio guztien % 9,53 izan ziren 2019an; mehatxuak, hertsapenak eta jazarpena nabarmendu ziren. Era horretako delituak arau-hauste guztien % 8,32 izan ziren 2018. urtean.

«Sexu-askatasunaren aurkako» arau-hausteengatiko biktimizazio kopuruak nabarmenki egin du gora, bai termino absolutuetan (2018an 445 izan ziren, eta 2019an, 525), bai termino erlatiboetan, delitu horiek 2018an delitu guztien % 8,37 izan baitziren, eta urtebeteren buruan, % 9,51. Gehienbat sexu-erasoak eta -abusoak erregistratu ziren, baina baita hauek guztiak ere: sexu-exhibizionismoa eta -probokazioa, ustelkeria eta adingabeen pornografia.

Bestalde, erregistratutako arau-hausteen % 1,45 «familia-harremanen aurkakoak» izan ziren; gehienak prestazio ekonomikoak ez ordaintzearen ondoriozkoak izan ziren, baina familia abandonatzeak, adingabea abandonatzeak, adingabea berekin eramateak eta zaintzeko betebeharrak urratzeak ere pisu handi samarra izan dute.


Horrez gain, berariaz nabarmendu behar da «giza hilketa eta haren formak» esan diegun delituen barnean 6 eraso erregistratu zirela 2019an (2018an, 10); zehazki, horietatik kasu batean erasotzaileak emakumea hil zuen, eta gainerakoak erailketa-saiakuntzak izan ziren.

## Indarkeria horrek zer ondorio eragiten dizkie emakumeei?

Indarkeria horren ondorioz emakumeek mota askotako lesio fisikoak eta kalte psikologiko handiak sufritzen dituzte, eta, zenbaitetan, hil egiten dira.

Azken urtean, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeen % 28,02k zauriak izan dituzte, gehienek zauri arinak (% 27,53) eta baten batzuek zauri larriak (% 0,49). Gainera, emakume bat erail zuten Bizkaian familia barneko indarkeriaren ondorioz (% 0,02).

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK, KALTEGARRITASUNAREN ARABERA. %a. EAE, 2019




Analisia egiterakoan, kanpoan utzi dira biktimizazioen ehuneko batzuk, kaltegarritasuna ezagutzen ez delako (% 16,68).

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

2002tik 2019ra bitartean bikotekideak edo bikotekide ohiak eraildako emakumeen kopuruari dagokionez, gure autonomia-erkidegoan 46 emakume hil dira indarkeria mota horren ondorioz. 2019an ez da bikotekideak edo bikotekide ohiak eraildako kasurik erregistratu.

BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAILDAKO EMAKUME KOPURUAREN BILAKAERA. EAE, absolutuak. 2002-2019



Iturria: Emakunde.

Estatu-mailan, bikotekideak edo bikotekide ohiak eraildako emakume kopuruari dagokionez, 2019an 55 emakume hil ziren, eta 2013tik gaurdaino 1.033 emakume hil dira indarkeria mota horren ondorioz<sup>26</sup>.

BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAILDAKO EMAKUMEAK, AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA. Absolutuak eta %a. Espainia 2019.

Autonomia-erkidegoa	Hildako emakume kopurua	%
Andaluzia	13	23,6
Katalunia	9	16,4
Kanariak	8	14,5
Valentziako Erkidegoa	7	12,7
Madrilgo Erkidegoa	7	12,7

<sup>26</sup> Iturria: BERDINTASUN MINISTERIOA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *Genero-indarkeriak eragindako heriotzen estatistika, 2020ko martxoaren 20a.*



Autonomia-erkidegoa	Hildako emakume kopurua	%
Gaztela eta Leon	3	5,5
Galizia	3	5,5
Kantabria	2	3,6
Aragoi	1	1,8
Balear Uharteak	1	1,8
Murtziako Eskualdea	1	1,8
Asturiasko Printzerria	0	0
Gaztela-Mantxa	0	0
Extremadura	0	0
Nafarroako Foru Erkidegoa	0	0
EAE	0	0
Errioxa	0	0
Ceuta	0	0
Melilla	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>55</b>	<b>% 100</b>

Iturria: Berdintasun Ministerioa. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza. Genero-indarkeriaren ondoriozko hildakoen estatistika.

Ertzaintzak indarkeria mota horren kaltegarritasunari buruz bildutako datuak mugatuak dira, lesio fisikoei buruzkoak baitira, batik bat<sup>27</sup>. Zenbait azterlanek, hala nola *Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko 2015eko makroinkestak*<sup>28</sup>, ikuspegi zabalagoa hartzen du alderdi horri dagokionez, eta agerian uzten du nabarmen kaltetzen dela indarkeria mota hori jasaten duten emakumeen osasun fisiko eta mentala. Bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria fisikoa edo sexuala, edo beldurra pairatu izan duten emakumeen % 78,2k adierazi du indarkeria horrek dezente edo asko kaltetu duela beren ongizate fisiko edo mentala.

Lesio fisikoei dagokienez, % 42,1ek jasan ditu bizitzaren joanean. Emakume horien % 21,9k lesio moderatuak izan zituen (ebakiak, harramazkak, ubeldurak edo minak) eta emakumeen % 20,2k lesio larriak (erredurak, barruko organoen lesioak, hausturak, nahi gabeko abortuak, etab.). Gainera, eraso fisiko horietako batzuek, bai lesio moderatuek (% 3,4) eta bai larriek (% 3,1) bizitza osorako lesio fisikoak eragin zizkieten jasan zituzten emakumeei.

Inpaktu emozionalari dagokionez, inkestatutako emakume biktimen % 60,71k adierazi zuen egoerari aurre egiteko ezintasun-sentsazioa izan zuela, % 59,76k tristura, % 58,37k amorrua eta % 51,55ek beldurra. Nabarmentzekoak dira, era berean, indarkeria horrek emakume askorengan sorrarazten dituen lotsa (% 38,71) eta erruduntasun-sentipena (% 30,15).

Azterlanaren emaitzek adierazten dute azken urtean bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria fisikoa edo sexuala, edo beldurra pairatu izan duten emakumeek gainerako emakumeek baino maizago izaten dituztela osasun-egoera txarra izatearen sintomak, hala nola arrazoi jakinik gabeko negargura (% 43,3), aldarte-aldaketak (% 60,8), antsietatea edo larritasuna (% 53), insomnia, lo egin ezina (% 53,3) edo tristura, ezertarako balio ez dutela pentsatuta (% 33,1).

Horrezaz gain, adituek adierazi dute kalte horietako batzuek iraun egiten dutela: konortea galtzea, hemorragiak, elikaduraren trastornoak, lo egin ezina, takikardiak, giharretako mina eta zorabioak.

<sup>27</sup> Kaltegarritasunaren gaineko datuak Ertzaintzak biltzen ditu ertzain-etxeetan (auzitegiko medikurik gabe, epailerik gabe ...), emakumea artatzen denean. Balorazio fisikoa izaten da gehienbat, eta emakumeek daramaten mediku-txostena izaten da erreferentzia, baldin eta txostenik baldin badago. Hori da atestatua egiteko eginbideetako bat. Datu horiek zuhurtiaz irakurri behar dira, testuinguru jakin batean biltzen baitira eta emakumeen aurkako indarkeriak lehen begiratuan ikusten ez diren arrastoak uzten baititu haien ongizate psikologikoan eta sozialean (beldurrak, segurtasunik eza, egoera sozial ahula, indarkeria ekonomikoa...).

<sup>28</sup> OSASUN MINISTERIOA GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2015*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa, 2015.

Emakumearen Institutuak eguneroko bizitzako indarkeriei buruz egindako txostenak<sup>29</sup> adierazten duenaren arabera, hauek dira, laburtuta, emakume biktimek esparru psikologikoan pairatzen dituzten ondorioak:

- Nortasunari dagozkion ondorioak, hura garatzea eragozten dutenak. Ziurgabetasuna, mesfidantza, mendekotasuna eta autoestimu apala sorrarazten dute.
- Depresioari lotutako ondorioak. Tristura-sentimenduak eta suizidio eta heriotzako ideiak ekar ditzakete.
- Ondorio emozionalak. Beldurra, larritasuna, antsietatea, urduritasuna, tentsioa eta trastorno afektiboak eragin ditzakete. Horrezaz gain, erasotzailearekiko sentimen kontrajarriak sortzen dira: gorrotoa, erremina, haren heriotza desiratzea, eta zenbaitetan, pena eta errukia.

Emakumearen aurkako indarkeriak epe luzeko ondorioak ekartzen ditu, bai emakumearentzat, bai haren seme-alabentzat, eta gai horri ez heltzeak berak ere ondorio larriak dakartzkio gizarte osoari.

Azterlan ugari adierazten du indarkeria pairatzen duen emakumeak askotariko osasun-arazoak izaten dituela, eta, gainera, murriztu egiten zaizkiola diru-sarrerak eskuratzeko eta bizitza publikoan parte hartzeko gaitasunak. Indarkeriak pobretu egiten ditu, eta pobreago bihurtzen ditu haien seme-alabak.

Bestalde, bereziki erreparatu behar zaie era horretako indarkeriak adingabeengan dituen ondorioei. Neska-mutiko horiek tasa handi batean dituzte arazo emozionalak (antsietatea, autoestimu txikia, erruduntasun-sentimenduak, haserrea eta frustrazioa), jokabidekoak (egonezina, arreta-gabezia eta enuresiaren edo enkopresiaren gisako jokabide erregresiboak), arazo kognitiboak eta eskolan integratzeko arazoak (kontzentrazio-maila txikia, arretaren defizita eta eskola-errendimendua murriztea) eta pertsonen arteko harremanetakoak (gizarteratzeko arazoak, isolamendua, segurtasunik eza eta oldarkortasuna), trauma osteko estresagatiko nahasmendu-sintomak (insomnioa, fobiak, antsietatea, disoziaziozko nahasmenduak) eta garapen afektiboaren asaldurak (emozioak baliatzeko zailtasunak, indarkeriazko ereduak ikastea, genero-rol okerrak barneratzea, gurasotzea eta amaren babes-rola hartzea).

Azken batean, arrisku handiagoa dute osasun-arazoak, eskola-errendimendu apala eta jokabide-nahasmenduak izateko. Sarritan, traumak eta sintoma psikopatologikoak izaten dituzte (fobiak, tikak, kontzentrazio-falta, etab.), baina epe luzera, gainera, distimia, autoestimu apala, ezkortasuna, zailtasun sozialak eta mesfidantza izan ditzakete, eta, azken batean, transgenerazionalitatea ere bai (hautzarroan bizi izan duten esperientzia bikotekideekin errepikatzea).

Eta azkenik, emakumeen aurkako indarkeria bizi duten etxeetan, etxeko seme-alabak etengabe daude desberdinkeria oinarri duen oso harreman-eredu arriskutsuaren eraginpean, eta gizonek zein emakumeek «izan behar duten» ereduaren eraginpean. Adu batzuek «bahiketa emozionalak»<sup>30</sup> gertatzen direla esaten dute, adingabe horiek bizi diren munduan indarkeriaren bidez konpontzen direlako gatazkak, gizonek emakumeek baino garrantzi handiagoa dutelako eta emakumeek men egin behar dutelako.

<sup>29</sup> MARTIN, E. *Las violencias cotidianas cuando las víctimas son mujeres*. Madril: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, Emakumearen Institutua, 1999.

<sup>30</sup> LIZANA, R. *A mí también me duele. Niños y niñas víctimas de la violencia de género en la pareja*. Bartzelona: Gedisa argitaletxea, 2012.

## Zenbat eraso salatzen dira?

Emakume batek arau-hauste penalen tipifikazioa duen erasoren bat jasan arren eta eraso hori Ertzaintzak erregistratu arren, beti ez da salaketa jartzen. Era berean, salaketa dagoen kasuetan, salaketa ez da jartzen indarkeriazko egitatea gertatu eta berehala.

Izan ere, eta Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak 2019an argitaratu berri duen azterlan bat oinarri hartuta<sup>31</sup>, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek batez beste 8 urte eta 8 hilabete behar dituzte bizitzen ari diren indarkeria-egoeraren berri emateko, dela autonomia-erkidego bakoitzean biktimei laguntza eta aholkularitza emateko dauden zerbitzuen eta baliabideen bidez, edo dela salaketa jarritz.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, 2019. urtean 5.931 salaketa gehiago jaso dira aurreko urtean baino EAEko genero-indarkeriaren epaitegietan, iaz baino % 5,2 gehiago.



**EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIAGATIKO SALAKETAK...**  
Guztira, 2018an: **5.931 salaketa**

Urte horretako salaketek % 5,08 biktimek aurkeztu zituzten zuzenean, beste % 59,26 biktimaren salaketa egon den polizia-atestatuen kasuei dagozkie, eta % 27,21 poliziaren zuzeneko esku-hartzeagatik egindako atestatuak dira.

**GENERO-INDARKERIAREN EPAITEGIETAN JASOTAKO SALAKETEN KOPURUAREN BILAKAERA (bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria). EAE. 2009-2019**

GENERO-INDARKERIAREN EPAITEGIETAN JASOTAKO SALAKETEN KOPURUA (bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria)											
SALAKETAREN URTEA	2009	2010.	2011.	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
	urte a	urtea	urtea	urte a	urte a	urte a	urte a	urtea	urte a	urte a	urte a
<b>Biktimak zuzenean aurkeztua</b>	319	158	209	481	240	238	223	226	235	245	301
<b>Senideek zuzenean aurkeztua</b>	22	15	10	12	10	14	22	15	19	23	26
<b>Polizia-atestatuak, biktimak salatuta</b>	2.999	2.820	2.809	1.955	2.308	2.348	2.373	2.562	3.174	3.483	3515
<b>Polizia-atestatuak, familiak salatuta</b>	67	79	45	43	48	59	46	70	43	46	65
<b>Polizia-atestatuak, zuzenean poliziak esku hartuta</b>	371	369	790	1.092	1.085	1.079	1247	1488	1.373	1.477	1614
<b>Lesioen parteak</b>	139	159	196	213	190	200	225	261	229	222	236
<b>Hirugarrenei laguntzeko zerbitzuak, oro har</b>	141	91	66	57	56	52	96	142	119	144	174
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.058</b>	<b>3.691</b>	<b>4.125</b>	<b>3.853</b>	<b>3.937</b>	<b>3.990</b>	<b>4.232</b>	<b>4.764</b>	<b>5.192</b>	<b>5.640</b>	<b>5931</b>

Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. Estatistika Judizialaren Sekzioa.

Bestalde, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datu-erregistroaren arabera, 2019an 706 prozesuri egin zitzaion uko, hau da, emakumeek ez zuten prozesu horietan deklaratu, eta, bestelako frogarik ezean, artxibatu egin ziren espedienteak. Egindako ukoen ehunekoak oso antzekoak dira bertako emakumeen eta emakume atzerritarren artean (% 54,96 eta % 45,04,

<sup>31</sup> PRESIDENTETZA, GORTEEKIKO HARREMANAK ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *Estudio sobre el tiempo que tardan las mujeres víctimas de la violencia de género en verbalizar su situación*. Madrid, 2019.

hurrenez hurren). Aurreko urteetako datuekin alderatuta, ikusten da era horretako salaketen ehunekoak behera egin duela, zehazki, -% 4,1.

Emakumeek arrazoi asko izaten dituzte bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik pairatzen duten indarkeria ez salatzeke edo prozesuan zehar kentzeko aurrez jarri diren salaketak. Besteak beste, faktore hauek hartu behar dira kontuan: beldurra; etsipena edo konfiantzarik ez izatea sistema judizialean edo indarkeria salatzearen edo publiko egitearen ondorioetan; prozesu judizialak abiatzearen kostu handiak; mendetasun ekonomikoa (baliabide ekonomikorik ez izatea, etxebizitzarik ez izatea, etab.) edo lotura afektiboa izatea biktimak erasotzailearekiko; bikote-harremanaren porrota ez onartzea; bikotearen barruan gertatzen dena arazo pribatua dela (eta ez delitua) eta soilik familiari dagokiola pentsatzea; erruduntasuna edo lotsa sentitzea, baldin eta indarkeria berak sorrarazi duela pentsatzen baldin badu emakumeak; erasotzaileak gizartean onespina izatea edo biktimaren inguruneak ez aurre egitea indarkeria mota horri; zenbaitetan biktimak berek eta ingurukoek (batzuetan, baita profesionalek ere) izaten dituzten zailtasunak indarkeria moduan identifikatzeko indarkeria modu jakin batzuk (batik bat, psikologikoa eta sexuala); eta jendaurrean indarkeriaren biktima izateak dakarren estigma.

*Genero-indarkeriari buruzko 2015eko makroinkestak*<sup>32</sup> diotenaren arabera, indarkeria pairatu duten emakumeek hiru arrazoi nagusi hauek izaten dituzte indarkeria hori ez salatzeke: pairatutako genero-indarkeriari behar adina garrantzirik ez ematea, beldurra eta lotsa izatea eta indarkeria horren berri inork jakin dezan nahi ez izatea.

Horrezaz gain, inkesta horrek agerian uzten du poliziaren aurrean edo epaitegietan salaketa jarri zuten emakumeen % 20,9k kendu egin zutela gerora salaketa. Inkesta horren arabera, emakumeek arrazoi hauek izaten dituzte salaketak kentzeko: erasotzaileak berriro ez dela gertatuko agindu dielako (% 29,35), egoera alda daitekeela pentsatzen dutelako (% 28,66), beldurra dutelako (% 28,59), bere seme-alaben aita delako (% 24,86), bikotekidearekiko pena sentitzen dutelako (% 23,95) edo mehatxuak egin dizkietelako (% 20,82).

Salaketa jartzeak esan nahi du emakumeak urrats bat egin duela aurrera, baina arriskua ere ekar diezaiokie; beraz, berebiziko garrantzia du emakumeak berak hartzea erabakia eta salaketa jartzeko unerik egokiena ere aukeratzea. Askotan emakumeak kriminalizatu egiten dira ez salateagatik edo salaketa jartzeko denbora luzea pasatzen uzteagatik, baina ez da kontuan hartzen zenbait arrisku saihesteko premiak baldintzatuta egon daitekeela erabakia.

Funtsezkoa da emakume bakoitzak salaketari dagokionez egiten duen banakako prozesua errespetatzea, eta funtsezkoa da, halaber, biktimizazio kopuruak gora egiten duen proportzio berean egiteko gora salaketa jartzen duten emakumeen kopuruak, sistema judizialak erabakitzen dituen neurriek zein epaiek emakumeen ongizatea sustatzea eta emakumeei erasotzailearekiko segurtasuna ematea.

Emakumeek sentitzen dutenean sistemak ez dituela babesten, entzuten dutenean indarkeriaren emakume biktimek erasotzailearekin zaintza partekatua izaten dutela edo datuek erakusten badute emakumeek erasoak pairatzen jarraitzen dutela salaketa jarrita ere, mugatu egiten dira salatzeke aukerak.

---

<sup>32</sup> OSASUN MINISTERIOA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2015*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa, 2015.

## Zer babes dute emakumeek?

Babes-agindua ebazpen judizial bat da, indarkeria mota horren biktimei «babes osoko estatutua» ematen diena. Horren bidez, jurisdikzio-organo bakar batek neurri penalak eta zibilak hartzen ditu, eta gizarte-laguntzako beste neurri batzuk aktibatzen.

2019an, Ertzaintzak babes-agindurako 1.534 eskaera tramitatu zituen guztira (2018. urtean baino gutxiago, zehazki, -% 4,4; urte hartan, berriz, biktimizazioen kopuruak gora egin zuen, hain zuzen, % 3,82 egin zuen gora). 1.367 eskaera bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako indarkeriaren ondoriozkoak ziren (% 89,11); 153, familia barneko indarkeriaren ondoriozkoak (% 9,97) eta 14, familia-eremutik kanpoko sexu-indarkeriaren ondoriozkoak (% 0,91).

Bestalde, 2.047 babes-agindu zenbatu ziren, bai EAEko epaitegietakoek eta bai Espainiako gainerako epaitegietakoek emandakoak, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako delituak edo faltak gertatu izanaren zantzu oinarrituak eta emakumeen arrisku-egoera objektiboak egiaztatu ondoren. Kopuru hori 2018koa baino askoz handiagoa da, urte hartan 1.966 izan baitziren; hau da, % 4,1 egin du gora aurreko urtearen aldean.

**Auzitegiek emandako babes-neurrien kopuruak % 4,1 egin du gora 2018tik 2019ra bitartean.**


**Erasotzaile askok ez dituzte betetzen epaitegiek emakumeak babesteko agintzen dituzten neurriak.**

**2019an, 954 biktimizazio erregistratu ziren guztira, segurtasun-neurriak, urruntze-aginduak eta bestelako neurriak urratzeagatiko delituengatik.**

Emakume asko erabakiak hartzen ari dira indarkeria-egoeretatik irteteko, baina erasotzaile batzuek ez dituzte errespetatzen, eta urratu egiten dituzte epaitegiek emakumeen arrisku-egoeretan erabakitzen dituzten neurri penalak. Horren harira, azaldu behar da 2019an 954 biktimizazio erregistratu zirela guztira, segurtasun-neurriak, urruntze-aginduak eta bestelako neurriak urratzeagatiko delituengatik.

Hau da, urte horretan erregistratu ziren emakumeen aurkako indarkeria-kasuen % 17,29 kasutan (guztira, 5.518 erregistratu ziren), urratze-delituak egin zituzten erasotzaileek.

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOEN BILAKAERA, SEGURTASUN-NEURRIAK, URRUNTZE-AGINDUAK ETA BESTELAKO NEURRIAK URRATZEAGATIKO DELITUEN ARABERA. Absolutuak eta tasa. EAE, 2011-2019**



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

## Indarkeria ezkutua: inkestetako datu orokor batzuk

**Erregistro ofizialek arazoaren zati bat baino ez dute azaleratzen, indarkeria hori jasaten duten emakume asko oraindik erregistroetan jaso gabe baitago. Kalkuluen arabera, indarkeria hori pairatzen ari diren emakumeen % 48k ez du jo ez poliziarengana, ez epaitegira, ez laguntza-zerbitzuetara, laguntza eske.**

Lehen adierazi dugunez, Ertzaintzaren datuek arazoaren zati bat baino ez dute azaleratzen; izan ere, erakundeetara laguntza eske jo ez duten emakumeak ez dira erregistroetan jasotzen.

*Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak (FRA)*<sup>33</sup> Europar Batasunean emakumeei eragiten zaien indarkeriaren gainean egindako azterlan batek ohartarazten du indarkeriaren biktima diren emakume gehienek ez dutela egoera salatzen, ez poliziaren aurrean, ez delitu mota horren biktimei laguntzeko elkarreetan; beraz, indarkeriaren biktima diren emakume gehienek ez dute jotzen ez sistema judizialera, ez beste zerbitzu batzuetara.

Ildo horri berari jarraitzen dio *Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko 2015eko makroinkestak*<sup>34</sup> ohartarazten du Espainian bizi diren eta beren bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria pairatu duten emakumeen % 29k soilik jo duela (beren kabuz edo beste norbaiten bidez) poliziarengana edo epaitegietara bere egoera salatzerako. Alde horretatik, indarkeria mota hori pairatu duten emakumeen % 45ek jo du zerbitzu mediko, juridiko edo sozialetara, laguntza eske. Kalkuluen arabera, indarkeria hori pairatzen ari diren emakumeen % 48k ez du jo ez poliziarengana, ez epaitegira, ez laguntza-zerbitzuetara, laguntza eske.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 2016an argitaratutako datuen arabera, bikotekideek edo bikotekide ohiak erail dituzten emakumeen artean, oso gutxi jarri zuten salaketa beren erasotzaileen aurka. *Bikotekideen edo bikotekide ohiaren arteko hilketek edo erailketek eta gurasoek seme-alabei eragindakoei buruz 2016an emandako sententziak aztertze*<sup>35</sup> txostenean, eremu horretan zinpeko epaimahaiek eta lurralde-auzitegiek emandako 48 sententzia aztertzen dira, eta ondorioztatzen denez, hildakoen artean soilik % 24k salatu zuten erasotzailea. Azterketa hori sakon aztertzen jarraitze aldera, erakunde horrek berak *2016tik 2018ra bitartean bikotekidearen edo bikote ohiaren barruko genero-indarkeriagatiko heriotzei buruz*<sup>36</sup> egindako txostenak dio 2016-2018 epealdian bikotekideak edo bikotekide ohiak hildako 151 emakumetatik 46k salaketa jarrita zutela aurretik, hau da, emakumeen % 30,5ek.

<sup>33</sup>EUROPEAN UNION AGENCY FOR FUNDAMENTAL RIGHTS. *Violence against women: an EU-wide survey*. Brusela: 2014. Ebz bizi diren 18 urtetik 74 urtera bitarteko emakumeak.

<sup>34</sup> OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERTINTASUN MINISTERIOA. *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015*. Emaizten aurrerapena. 2015.

<sup>35</sup> BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA. *Bikotekideen edo bikotekide ohiaren arteko hilketek edo erailketek eta gurasoek seme-alabei eragindakoei buruz 2016an emandako sententzien azterketa*. Madril: 2018.

<sup>36</sup> BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA. *2016tik 2018ra bitartean bikotekidearen edo bikote ohiaren barruko genero-indarkeriagatiko heriotzei buruzko txostena*. Madril: 2018.

Horren ildo beretik, Genero Indarkeriaren Aurkako Gobernu Ordezkaritzak urtero argitaratzen duen buletinak<sup>37</sup> 2018an jasotakoaren arabera, eraildako 50 emakumetatik 14k jarria zuten salaketa, hau da, % 28k.

**Eraildako 10 emakumetatik 3 inguruk aurretik salatu zuten.**

Hala eta guztiz ere, arazoaren prebalentzia jakitea xede duten inkestetako datuak oso garrantzitsuak dira, alde batera utzita gertaerak formalki jakinarazi diren erakunderen batean, edo salatu diren ala ez; izan ere, funtsezko informazioa eskaintzen dute, arazoaren dimentsioari buruzko ikuspegia osatze aldera.

**Europar Batasuneko emakumeen erdiek desplazamenduak mugatu egiten dituzte, zenbait leku edo egoera eragozte aldera, eraso egingo dietelako beldur direlako.**

*Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak (FRA)*<sup>38</sup> egindako azterlanak, lehen ere aipatutakoak, kalkulatu du Europar Batasuneko 13 milioi emakumek nozitu zutela indarkeria fisikoa 2014. urtean; hau da, 18 eta 74 urte bitarteko emakumeen % 7k. Honako hauek identifikatu dira emakumearen aurkako indarkeria fisikoko modu ohiko gisa: bultza egitea, aurpegian jotzea, heldzea eta iletatik tira egitea. Horrez gain, azterlanak adierazten du 3,7 milioi emakumek pairatu zutela sexu-indarkeria azken urtean Europar Batasunean (emakumeen % 2k).

Horrez gain, azterlanaren arabera, Europar Batasuneko emakumeen erdiek (% 53k) ahalegina egiten dute leku eta egoera jakin batzuk saihesteko –zenbaitetan bederen–, eraso fisiko edo sexualen biktima izateko beldurra dela eta; gizonezkoen dagokionez, askoz gutxiagok mugatzen dituzte desplazamenduak.

Estatu-mailan argitaratutako azken inkestaren arabera, hots, *Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko 2015eko makroinkestaren*.<sup>39</sup> arabera, Espainian bizi diren 16 urtetik gorako emakumezkoen % 24,2k jasan du inoiz bizitzan bikotekideak, bikotekide ohiak edo familia-eremutik kanpoko hirugarren pertsonenak baliatutako indarkeria fisikoa edo sexuala. Zehazki, % 19,6k indarkeria fisikoa jasan zuen, eta % 13,7k, sexu-indarkeria. Ehuneko horiek % 4,3, % 3 eta % 1,9 egiten dute hurrenez hurren, azken urtean indarkeria jasan duten emakumeak kontuan hartuta.

Iturri horrek berak jasotakoaren arabera, emakumeen % 13 bikotekidearen edo bikotekide ohiaren beldur izan da noizbait, eta % 2,9 modu jarraituan izan da haren beldur (beldurra, neurri batean, emakumeek lehendik jasan dituzten erasoan larritasunaren adierazletzat har daiteke, ondorio psikologikoari dagokionez, batik bat).

**Espainian bizi diren emakumeen % 13 izan da noizbait bikotekidearen edo bikotekide ohiaren beldur.**

<sup>37</sup> PRESIDENTETZA, GORTEEKIKO HARREMANAK ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. Urteko buletin estatistikoa, 2018. Madril: 2018.

<sup>38</sup> EUROPEAN UNION AGENCY FOR FUNDAMENTAL RIGHTS. *Violence against women: an EU-wide survey*<sup>38</sup>. Brusela: 2014ko martxoa.

<sup>39</sup> OSASUN MINISTERIOA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2015*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa, 2015.

EAEri dagokionez, prebalentziari buruz eskuragarri dauden azken datuak Eusko Jaurlaritzak 2011n egindako *Emakumeen aurkako Indarkeria Matxista EAEn* azterlanekoak dira<sup>40</sup>. Azterlan horren arabera, 16 urtetik gorako emakumeen % 12,5ek jasan du noizbait emakumeen aurkako indarkeria motaren bat. Horrez gain, kalkulatu zuen azken urtean emakumeen % 2 inguruk jasan duela indarkeria mota hori.

**EAEn 16 urtetik gorako emakumeen % 12,5 inguruk jasan du noizbait emakumeen aurkako indarkeria mota hori, eta azken urtean, berriz, % 2k.**

Azterlan horren arabera, emakume horien % 7,5ek bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria jasan du edo jasaten ari da; emakumeen % 1,79k familia barneko beste gizonen baten indarkeria –bikotekidearena edo bikotekide ohiarena salbu–; emakumeen % 1,42k, lan-eremuan baliatutako indarkeria, eta emakumeen % 2,7k eremu sozialean edo publikoan baliatutako indarkeria).

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, INDARKERIA MOTAREN EDO EREMUAREN ARABERA. %a. EAE (2011), ESPAINIA (2015) ETA EUROPA (2014).**

		EAE 2011		ESPAINIA 2015		EUROPA 2014	
		noizbait	azken urtean	noizbait	azken urtean	noizbait	azken urtean
<b>Emakumeen aurkako indarkeria (bikotean eta bikotetik kanpo)</b>		% 12,5	% 2	% 24,2 (fisikoa edo sexuala) % 19,6 (fisikoa) % 13,7 (sexuala)	% 4,3 (fisikoa edo sexuala) % 3 (fisikoa) % 1,9 (sexuala)		% 7 (fisikoa) % 2 (sexuala)
<b>Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria</b>		% 7,5	% 1,2	% 12,5 (fisikoa edo sexuala)	% 2,7 (fisikoa edo sexuala)	% 22 (fisikoa edo sexuala)	% 4 (fisikoa edo sexuala)
<b>Bikotetik kanpoko indarkeria</b>	<b>Familia barneko indarkeria</b>	% 1,8	% 0,7	% 11,6 (fisikoa <sup>41</sup> )	% 1,3 (fisikoa)		
	<b>Lan-eremuko indarkeria</b>	% 1,4	% 0,4	% 7,2 (sexuala)	% 0,6 (sexuala)		
	<b>Eremu sozialeko / espazio publikoko indarkeria</b>	% 2,7	% 0,2				

EAEri buruzko datuak txosten honetakoak dira: *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011*. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila).

Espainiari buruzko datuak azterlan honetakoak dira: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko makroinkestak. 2015. Osasun, Gizarte Gaietako eta Berdintasun Ministerioa.

Europari buruzko datuak azterlan honetakoak dira: *Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Agentziak (FRA) Europar Batasunean emakumeei eragiten zaien indarkeriari buruz egindako inkesta, 2014ko martxoan*.

Indarkeria mota bakoitzari erreparatuz gero, eta azterlan horrek berak adierazten duenaren arabera, indarkeria psikologikoa da erabiliena, eta haren atzetik, tarte batera, indarkeria fisikoa. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izan direla adierazi duten emakumeen % 78,4k aitortu du indarkeria psikologikoa jasan duela noizbait bizitzan (emakume guztien % 9,8).


Indarkeria mota bakoitzaren intzidentzia nabarmen aldatzen da eremutik eremura. Izan ere, indarkeria psikologikoa gehiago erabiltzen da lan-eremuan eta bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremuan (indarkeria fisikoa ere bai), baina indarkeria mota horren erabilera nabarmen jaisten da eremu sozialean edo publikoan. Azken eremu horretan, ezezagunen sexu-erasoak maizago gertatzen dira.

<sup>40</sup> EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA. *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2012.

<sup>41</sup> Datu horrek bere baitan hartzen ditu, era berean, beste emakume batzuek emakumeen aurka gauzatutako eraso fisikoak.



**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, PAIRATZEN DUTEN EDO PAIRATU IZAN DUTEN INDARKERIA MOTAREN ARABERA. %a. EAE, 2011**



Oharra: Ehunekoen batura ez da 100, aukerak ez direlako baztertzaileak.

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi diren 16 urteko edo gehiagoko emakumeak.

Emakumeen aurkako indarkeria erdi ezkutuan gertatzen dela eta gizarteak nekez ikusten duela kontuan hartuta, emakume batzuek berariaz salatutakoaz harago ikertu nahi izaten dute inkesta batzuek. Aintzat hartuta emakumeak indarkeria-egoerak pairatzen egon daitezkeela –indarkeria hori bizi dutela aitortuta edo aitortu gabe–, Eusko Jaurlaritzak 2011n egindako inkestaren galderetako batzuek adierazle zuzen eta zeharkakoak jasotzen dituzte, emakumeen aurka hainbat eremutan erabiltzen diren indarkeria motak antzemateko.

Hori horrela, emakumeek galdera horiei emandako erantzunari erreparatuta, haien aurka indarkeria erabili dela ondoriozta daiteke zenbait kasutan, alde batera utzita haiek indarkeriaren biktima diren aitortzen duten ala ez. Aurrez egindako azterlanek indarkeria «teknikoa» edo «ondorioztatua» deritzote indarkeria aitortu gabeko horri, eta bereizi egin dituzte egoera horiek, «ageriko» edo «adierazitako» indarkeria-egoerekiko. Inkestak, guztira, 25 indarkeria-egoera<sup>42</sup> planteatzen ditu: 4 egoera indarkeria fisikoaren adierazpen dira; 11, indarkeria psikologikoarena; 7, sexu-indarkeriarena; eta 3, beste indarkeria mota batzuen (ekonomikoa, soziala...). Horrekin jakin nahi du galdetuak izan diren EAeko emakumeek azken urtean zer maiztasunekin bizi izan dituzten egoera horiek.

Indarkeria ondorioztatuari buruz eskuragarri dauden datuek adierazten dutenez, EAeko emakumeen % 29,6k bizi izan du azken urtean emakumeen aurkako indarkeria-egoeraren bat, eta % 18,2k bizi izan du gutxienez egoeraren bat aldizkakotasun jakin batez (maiz edo noizean behin). Bestalde, galdetutako emakumeen % 2,9k adierazi du egoera horietako hiru edo gehiago bizi izan dituela *maiz edo noizean behin*, eta % 1,6k adierazi du horrelako bost egoera baino gehiago bizi izan dituela.

**Gutxi gorabehera emakumeen % 18 askotan dago indarkeria-egoeraren baten eraginpean, nahiz eta askotan halakotzat ez hartu.**

Adierazitako kasuen eta ondorioztatutako kasuen arteko aldeak agerian uzten du emakumeek berek zailtasunak izan ditzaketela identifikatzeko edo jabetzeko zenbait jarrera (nahiz eta egunerokoak izan) indarkeriaren adierazpen direla, izan larriak edo ez hain larriak.

<sup>42</sup> Eremuaren arabera, adierazleak elkar baztertzen dira; hala, familia-eremuko 23 item galdetu dira, lan-eremuko 18 item, eta eremu sozialeko 17 item.

**AZKEN URTEAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA-EGOERAK BIZI IZAN DITUZTEN EMAKUMEAK, MAIZTASUNAREN ETA EGOERA KOPURUAREN ARABERA. %a. EAE, 2011**

OROKORRA (EDOZEIN EREMUTAN)	NOIZBAIT	MAIZ EDO NOIZEAN BEHIN
EGOERA BAT GUTXIENEZ (1/25 edo gehiago)	29,6	18,2
HIRU EGOERA BAINO GEHIAGO (3/25 edo gehiago)	5,1	2,9
BOST EGOERA BAINO GEHIAGO (5/25 edo gehiago)	2,6	1,6

Oharra: Egoera horretan dauden emakumeen zenbatespena egiteko, maiz edo noizean behin erantzun duten emakumeen ehunekoak hartu dira kontuan.

Iturria: Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saila). *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011*. EAEn bizi diren 16 urteko edo gehiagoko emakumeak.

Taula honetan indarkeria-adierazpen edo -egoera horiei buruzko datuak berezita ageri dira.

**EMAKUMEEN AURKAKO ZENBAIT INDARKERIA-EGOERA PAIRATU DITUZTEN EMAKUMEAK, MAIZTASUNAREN ARABERA. %a. EAE, 2011.**

	Noizbait azken urtean	Maiz edo noizean behin	
<b>INDARKERIA FISIKOA</b>	<b>Haserretzen denean, zuk estimatzen dituzun gauzen edo animalien kontra egiten du.</b>	<b>1,6</b>	<b>1,6</b>
	<b>Bultza egiten dizu, jo egiten zaitu edo objektuak botatzen dizkizu.</b>	<b>1,2</b>	<b>0,7</b>
	Kalean atzetik jarraitu dizu.	3,4	0,7
	<b>Arma, aizto edo bestelako objekturen batekin eraso egin dizu.</b>	<b>0,7</b>	<b>0,4</b>
<b>INDARKERIA PSIKOLOGIKOA</b>	<b>Ironiaz mintzatzen da edo ez ditu zure sinesmenak balioesten (elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea, etab.).</b>	<b>7,7</b>	<b>4,5</b>
	<b>Oihu egiten dizu, laidotu edo mehatxatu egiten zaitu.</b>	<b>6,6</b>	<b>4,1</b>
	<b>Lotsagarri uzten zaitu (iraindu, irrigarri uzten) beste batzuen aurrean (lankideak, lagunak, senideak, etab.).</b>	<b>5,8</b>	<b>3,7</b>
	<b>Ez du zure lana balioesten.</b>	<b>8,8</b>	<b>6,8</b>
	Ordutegiak kontrolatzen dizkizu.	1,8	1,2
	Zer jantzen duzun kontrolatzen dizu (zer jantzi behar duzun esaten dizu).	0,7	0,7
	<b>Zenbaitetan, haren beldur zara.</b>	<b>3,0</b>	<b>2,2</b>
	Etengabe gizonak erakarri nahian zabiltzala esaten dizu edo, bestela, ez duzula zeure burua zaintzen, itxura txarra duzula.	1,6	1,1
	<b>Dena gaizki egiten duzula esaten dizu, traketsa zarela.</b>	<b>2,4</b>	<b>1,9</b>
	Errudun sentiarazten zaitu ez duzulako behar bezala zaintzen/ulertzen.	2,3	1,8
	<b>Heriotzarekin mehatxatu zaitu edo mehatxu larriren bat egin dizu.</b>	<b>1,0</b>	<b>0,6</b>
	<b>SEXU-INDARKERIA</b>	<b>Presio egiten dizu sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez duzula nahi edo ez duzula gogorik.</b>	<b>0,4</b>
Mezu pornografikoak edo zakarrak bidali dizkizu paperean, ordenagailura edo telefonora.		2,1	1,0
Hitz edo keinu erasokorrek egin dizkizu kalean.		6,6	3,1
<b>Zu bortxatzen saiatu da.</b>		<b>0,4</b>	<b>0,4</b>
<b>Bortxatu egin zaitu.</b>		<b>0,2</b>	<b>0,2</b>
Exhibizionismo-ekintzak ikusi dituzu kalean.		5,7	1,0
Jazarpenak, ukituak edo nahi gabeko igurtziak izan dituzu taberna edo dantzalekuren batean, kalean...		4,5	2,3
<b>BESTE BATZUK</b>	<b>Ez dizu familia ikusten uzten edo harremanak izatea lagunekin, auzokoekin eta beste jende batzuekin</b>	<b>1,0</b>	<b>0,7</b>
	Telefonoa, posta edo sare sozialetan egiten dituzunak kontrolatzen ditu.	1,3	1,0
	<b>Irabazten duzun dirua kentzen dizu edo ez dizu ematen autonomiaz bizitzeko behar duzun adina.</b>	<b>0,8</b>	<b>0,8</b>

Oharra: taulan, beltzez adierazi dira larrirentzat jo diren egoerak.

Iturria: Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saila). *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011*. EAEn bizi diren 16 urteko edo gehiagoko emakumeak.

# ZENBAIT DATU ETA EZAUGARRI ESPEZIFIKO, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA-MOTEN ARABERA

## Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria:

Emakumeen aurka erabiltzen diren indarkeria mota guztien artean, bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutakoak erakusten ditu tasa handienak, bai gurean, bai mundu osoan (indarkeria mota horri, zentzu hertsian, genero-indarkeria esan ohi zaio sarritan).

Bikotekideek edo bikotekide ohiak eguneroko bizitzan edo etxean gauzatzen duten indarkeria mota horrek ezaugarri zehatzak ditu, eta zenbait autorek identifikatuta dauzkate ezaugarri horiek<sup>43</sup>:

- *Kode patriarkalaren ondoriozko desberdintasunak*: gizonek beren bikotekideengan eragiten duten indarkeriaren arrazoiak egiturazkoak dira, eta gizonak emakumeen gainetik daudela deritzon ideologian oinarritzen dira. Emakumezko askok bat egiten du pentsaera horrekin, eta, ondorioz, gizonek eta emakumeek oso bestelako rola barneratzen dituzte.
- *Ikusezintasun soziala*: emakumeen bikotekideek etxeetan emakumeen aurka gauzatzen duten indarkeria da munduan zabalduen dagoen krimen ezkutua.
- *Kontrolatzeko eta zigortzeko tresna*: emakumeen aurka etxeetan gauzatzen den indarkeria instrumentala da erabat, haren helburua baita gizonaren nagusitasuna eta emakumearen menekotasuna ziurtatzea, emakumeari zer egin behar duen adieraztea, autoritatea nork duen erakustea eta bikoteko kide bakoitzak zer egiteko dituen erakustea. «*Emakumeari argi utzi nahi zaio gizonaren borondatearen eta gogoaren mende izan behar duela, eta gizonak ahalmena duela emakumeari kontuak eskatzeko, hura kontrolatzeko eta zenbait gauza debekatzeko*».
- *Erruduntasun-sentipena*: erasotzaile askok ez du erruduntasun-sentipenik, baina emakume askok erruduntasun handia sentitzen du bikotekidearengandik jasotzen duten tratu txarrarengatik.
- *Irteerarik gabeko harremana*: indarkeria behin eta berriro tresna moduan erabilia, prozesu bat osatzen da, eta prozesu horretan harrapatuta geratzen dira bai emakumea, bai gizona. Kateatuta geratzen direla esan daiteke: emakumea, beldur delako eta hartzen duen indarkeriaren meneko delako; gizona, berriz, erasoekin jarraituz seguru sentitzen delako. Gizonaren kontrola finkatu egiten da, eta horrek gero eta eraso handiagoak egitera darama; hala, indarkeria progresiboa izaten da sarritan.


Lehen adierazi dugunez, 2019. urtean emakumeek beren bikotekideengandik edo bikotekide ohiengandik pairatutako 4.086 indarkeria-kasu erregistratu zituen Ertzaintzak EAEn, (erregistratutako biktimizazio guztien % 74,05), eta 3.098 emakumeri eragin zien indarkeria

<sup>43</sup>ALBERDI, I. eta MATAS, N. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. Bartzelona: La Caixa fundazioa, 2002. Gizarte Azterlanen Bilduma. 10. zk.

mota horrek (indarkeria jasan duten emakume guztien % 70,11). Bestalde, seme-alabei dagokienez, 2019an familia-harremanen aurkako 58 delitu erregistratu ziren; horietako batzuk dira zaintza-betebeharra urratzea, adingabea etxetik joan dadin bultzatzea edo zaintza-erregimena urratzea, adingabea berekin eramatea, familia abandonatzea eta prestazio ekonomikoak ez ordaintzea.

31 urtetik 50 urtera bitartean zituzten indarkeria mota hori sufritu zuten emakumeen % 56,8k; hala ere, nabarmentzekoa da 30 urtetik beherakoak % 33,8 zirela. 50 urte baino gehiago dauzkate biktimen % 9,4k.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, BIKOTEKIDEE ETA BIKOTEKIDE OHIAREN EREMUAN, ADINAREN ARABERA. %a. EAE, 2019



\* Kanpoan utzi da kasu bat, adina ez dakigulako

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Aurreko atalean ere adierazi dugunez, zifra askoz ere handiagoak adierazten dituzte inkestek:

- **EAE<sup>44</sup>** kalkulatu da emakumeen % 7,5 dela bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria jasan ahal izan dutenak noizbait bizitzan, eta azken urtean % 1,2.
- Indarkeria tekniko edo ondorioztatutakoari buruzko datuek (indarkeria jakin batzuen adierazleak edo adierazpenak abiapuntu hartutakoak)<sup>45</sup> adierazten dutenez, baliteke EAEko emakumeen % 8,5ek bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako indarkeria-egoeraren bat bizi izana azken urtean, eta % 6,3k halako egoerak nahiko maiz bizi izana.

Nahiz eta bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria fisikoa jasan duten emakumeen ehunekoak nabarmena izan, gogoan izan behar da bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremuan indarkeria psikologikoa dela ohikoena. Gainera, emakume kopuru handi batek jasaten du sexu-indarkeria bikotearen edo bikote ohiaren eremuan.

- **Estatu-mailan<sup>46</sup>**, kalkuluen arabera, Espainian bizi diren 16 urtetik gorako emakumeen % 10,3k jasan du bikotekiderengandik edo bikotekide ohiren batengandik indarkeria fisikoa, eta % 1,8 izan da indarkeria mota horren biktima azken urtean. Bikotekidearengandik edo bikotekide ohiren batengandik indarkeria fisikoa noizbait jasan duten emakumeen % 12,6k esan du gertaera bakan bat izan zela, eta % 85,2k adierazi du behin baino gehiagotan izan dela eraso fisikoen biktima. Azken urtean biktima izandako emakumeei dagokienez, ehunekoak % 15,8 eta % 84,2 dira, hurrenez hurren.

<sup>44</sup> Iturria: GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZA. EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA. *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAE: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2012.

<sup>45</sup> Egin kontsulta aurreko atalean.

<sup>46</sup> OSASUN MINISTERIOA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2015*. Madrid: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa, 2015.

- Emakumeen % 8,1ek jasan du noizbait bizitzan sexu-indarkeria bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik (sexu-harremanak edo iraingarriak zein umiliagarriak iruditzen zitzaizkien sexu-jardun motaren bat gogoz kontra edukitzera behartu dituzten emakumeak), eta azken 12 hilabeteetako biktimei dagokienez, % 1,4 dira. Sexu-erasoen biktimea behin baino gehiagotan izan dela adierazi dute emakume horien % 94k eta % 88,6k, hurrenez hurren.
- Bi indarkeria motak batera kontuan hartuta, emakumeen % 12,5ek jasan du bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria fisikoa edo sexu-indarkeria noizbait, eta % 2,7k azken urtean.
- Emakumeen % 13 izan da bikotekidearen edo bikotekide ohiaren beldur noizbait, eta % 2,9 modu jarraituan izan da haren beldur.
- Emakumeen % 25,4k jasan du noizbait kontrol-izaerako indarkeria psikologikoa (bikotekideak lagunak ikus ditzan eragozten die, leiala ez dela arrazoirik gabe uste du bikotekideak, leku jakinetara joateko baimena eskatzea espero du bikotekideak, etab.); (% 95,4k adierazi du behin baino gehiagotan izan dela indarkeria mota horren biktimea) eta % 9,2k egun dela (% 92,9k esan du ez zela gertaera bakan bat izan).
- Emakumeen % 21,9k jasan du noizbait indarkeria psikologiko emozionala (besteak beste, laidotu, gutxietsi, beldurtu eta mehatxatu egin dituzten emakumeak), eta % 7,9k, azken urtean.
- Emakumeen % 10,8k jasan du noizbait indarkeria ekonomikoa (bikotekideak edo bikotekide ohiak ez die dirua ematen etxeko gastuetarako, ez diete uzten familia-ekonomiari buruzko erabakiak hartzen, ez diete uzten etxetik kanpo lan egiten edo ikasten, etab.), eta emakumeen % 2,5ek azken 12 hilabeteetan.
- **Europan**<sup>47</sup>, 18 urtetik 74 urtera bitarteko emakumeen % 20k indarkeria fisikoa noizbait jasan du noizbait bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik, eta % 7k, sexu-indarkeria.
- Guztira, emakumeen % 22 inguruk indarkeria jasango zuen bi modalitate horietako batean, eta gaur egun indarkeria jasaten duten emakumeen kopurua % 4 ingurukoa da.
- Europan bizi diren emakumeen % 35ek jasan du bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik kontrol-izaerako indarkeria noizbait bizitzan, emakumeen % 32k indarkeria psikologiko emozionala jasan du, eta % 12k indarkeria ekonomikoa.

**Emakumeen % 12,5ek jasan du bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria fisikoa edo sexu-indarkeria noizbait bizitzan, eta % 2,7k azken urtean.**

**Azken urtean emakumeen % 9,2k jasan du bikotekidearengandik kontrol-izaerako indarkeria psikologikoa, eta % 7,9k indarkeria psikologiko emozionala.**

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, INDARKERIA MOTAREN ETA EREMUAREN ARABERA. %a. EAE (2011), ESPAINIA (2015) ETA EUROPA (2014).

<sup>47</sup> EUROPEAN UNION AGENCY FOR FUNDAMENTAL RIGHTS. *Violence against women: an EU-wide survey*<sup>47</sup>. Brusela: 2014.

BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN INDARKERIA	EAE 2011		Espainia 2015		Europa 2014	
	Noizbait	Azken urtean	Noizbait	Azken urtean	Noizbait	Azken urtean
<b>Indarkeria orokorra/teknikoa</b>	% 7,5 (adierazitakoa)	% 1,2 (adierazitakoa) % 8,5 (teknikoa, noizbait) % 6,5 (teknikoa, askotan)				
<b>Indarkeria fisikoa</b>			% 10,4	% 1,8	% 20	% 4
<b>Sexu-indarkeria</b>			% 8,1	% 1,8	% 7	% 1
<b>Indarkeria fisikoa edo sexuala</b>			% 12,5	% 2,7	% 22	% 4
<b>Kontrol-izaerako indarkeria psikologikoa</b>			% 25,4	% 9,2	% 35	
<b>Indarkeria psikologiko emozionala</b>			% 21,9	% 7,9	% 32	
<b>Beldurra</b>			% 13	% 2,9		
<b>Indarkeria fisikoa, sexuala edo beldurra</b>			% 15,1			
<b>Indarkeria ekonomikoa</b>			% 10,8	% 2,5	% 12	

Oharra:

EAERI buruzko datuak txosten honetakoak dira: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila).

Espainiari buruzko datuak azterlan honetakoak dira: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko makroinkestak. 2015. Osasun, Gizarte Gaietako eta Berdintasun Ministerioa.

Europari buruzko datuak azterlan honetakoak dira: Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziak (FRA) Europar Batasunean emakumei eragiten zaien indarkeriari buruz egindako inkestak, 2014ko martxoa.

Lehen ere esan dugunez, bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria jasaten duten emakumeen seme-alaba adingabeak ere biktimatzat hartu beharko lirateke. Emakumeak kontrolatzeko erabiliak izaten dira askotan, eta haiek ere etxeko indarkeriaren ondoriozko kalteak pairatu ohi dituzte.

Lehen aipatu dugun Eusko Jaurlaritzaren 2011ko txostenak<sup>48</sup> zenbatetsi zuen bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatzen duten emakumeen % 68,8k dituela seme-alabak, eta kalkulatu zuen emakume biktimeen % 27,3 inguruk dituela seme-alaba adingabeak. Zifra horiek oinarri hartuta, kalkulatu zen EAeko neska-mutikoen % 4 inguru izan zitekeela indarkeria horren biktima, eta *Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Estatu-mailako 2011ko makroinkestak*<sup>49</sup> kalkulatu zuen % 10 izan zitekeela.

*Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko 2015eko makroinkestak*<sup>50</sup> egiaztatu du ohikoa dela seme-alabak indarkeria-egoeren lekuko izatea; zehazki, indarkeria fisikoa edo sexuala edo bikotekideen edo bikotekide ohien beldurra pairatu duten unean seme-alabak zituzten emakumeen % 63,6k adierazi du beren seme-alabek ikusi edo entzun egin zituztela indarkeria-egoera horietakoren bat edo batzuk (seme-alabak adingabeak zirenean gertatu ziren egoera horietako gehienak, % 92,5). Horrezaz gain, seme edo alaba adingabeek, indarkeria-egoerak ikusi edo entzuteaz gain, erasoak zuzenean pairatzen dituzte sarritan (egoeren % 64,2tan).

<sup>48</sup> EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA. *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2012.

<sup>49</sup> MEIL, G. *Análisis sobre la macroencuesta de violencia de género 2011*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2012.

<sup>50</sup> OSASUN MINISTERIOA. GENERO-INDARKERIAAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2015*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa, 2015.

Eusko Jaurlaritzaren inkestako datuen arabera<sup>51</sup>, bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatzen duten emakumeen ehuneko handi batek (% 46,7k) 10 urtez pairatzen du indarkeria hori.

**Bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako indarkeria-egoerek batez beste 10 urte baino gehiago irauten dute.**

**Hiru biktimatik batek bikotekide berrien tratu txarrak pairatzen ditu.**

**BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN INDARKERIA PAIRATZEN DUTEN EMAKUMEAK, INDARKERIAREN IRAUPENAREN ARABERA. EAE 2011**

	%
<b>Urtebete baino gutxiago</b>	26,7
<b>1 eta 5 urte bitarte</b>	13,3
<b>6 eta 10 urte bitarte</b>	13,3
<b>10 urtetik gora</b>	46,7
<b>Guztira</b>	<b>100</b>

Iturria: *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011*. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herraingoa Saila). EAEn bizi diren 16 urteko edo gehiagoko emakumeak.

Bestalde, aipatutako Estatu-mailako makroinkestak ohartarazi du indarkeria hainbat bikotetan errepikatzen dela. Aurretik izandako bikotekideren batengandik genero-indarkeria (psikologikoa, fisikoa, sexuala, ekonomikoa...) jasan zuten emakumeen % 33,9k berriro jasan du azken bikotekidearengandik (uneko bikotekidea edo azken bikotekide ohi). Zehazki, iraganean bikotekidearen indarkeria fisiko edo sexualaren biktima izan ziren edo haien beldur izan ziren emakumeen % 12,3k pairatu du berriro indarkeria mota hori azken bikotekidearengandik (uneko bikotekidea edo azken bikotekide ohi).

Bestalde, *Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak (FRA)* egindako azterlanak<sup>52</sup> agerian utzi du sexu-indarkeriako gertakariak errepikatu egiten direla: uneko bikotekideak bortxatu dituen edo uneko bikotekideak bortxatzen saiatu edo emakumeak ukatzeko gai izan ez eta sexu-jardueretan parte hartzera bultzatu dituzten Europar Batasuneko emakumeen erdiak baino gehiagok sexu-indarkeriako gertakari bat baino gehiago jasan dituzte.

<sup>51</sup> EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA. Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2012.


<sup>52</sup> EUROPEAN UNION AGENCY FOR FUNDAMENTAL RIGHTS. *Violence against women: an EU-wide survey*<sup>52</sup>. Brusela: 2014ko martxoa.

## Emakumeen aurkako familia-eremuko indarkeria:

Emakume batzuek indarkeria pairatzen dute bikotekidea edo bikotekide ohia ez diren familiako beste gizon batzuen eskutik. 2019an mota horretako indarkeriagatiko 1.008 biktimizazio erregistratu ziren (hau da, urte horretan erregistratutako biktimizazio guztien % 18,27) eta 899 emakumek jasan zuten (urte horretan emakumeen aurkako indarkeria jasan zuten emakume guztien % 20,34).

Semeak amari eraso dionean gertatu dira familia barneko indarkeriaren ondoriozko biktimizazioen % 43,5. Biktimizazioen % 39,7 biktimarekin lotura duten gizonaek gauzatutakoak dira (osaba, aitona, anaia...). Gainera, aitaren erasoak pairatu duten alaba adingabeak % 16,9 izan dira.

EMAKUMEEN AURKA FAMILIA BARNEAN ERAGINDAKO INDARKERIAREN ONDORIOZKO BIKTIMIZAZIOAK, ERASOTZAILEAREKIKO HARREMANAREN ARABERA (BIKOTEKIDEAK ETA BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA SALBU). %a. 2019



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Familia barneko indarkeriako kasuen kopuruak % 5,8 egin du gora aurreko urtearen aldean, eta era horretako biktima izan diren emakumeen kopuruak % 3,3 egin du gora. Batez ere, erasotzailea semea izan den kasuen kopuruak egin du gora; hau da, 2018. urtean % 39,2 izan ziren, eta 2019an % 43,5 izan dira.

EAEn Ertzaintzak erregistratu dituen familia barneko indarkeriagatiko biktimizazioko kasu gehienetan, erasoak jasan duen emakumea 50 urtetik gorakoa zen (kasuen % 34,4), edo biktima 18 urtetik beherakoa zen (% 26,3), eta 31 urtetik 50 urte bitartekoa (% 25,9).


Edonola ere, merezi du azaltzea adingabeen artean behera egin duela indarkeria mota horren biktimen kopuruak, bereziki 14 urtetik beherako adingabeen artean. Izan ere, 2018an 178 izan ziren, eta 2019an, berriz, 153; horrek esan nahi du % 14,04 egin duela behera. Gora gehien egin duen adin-tartea 50 urtetik gorako emakumeena da; zehazki, 2018an 278 kasu erregistratu ziren, eta 2019an, berriz, 309 (% 11,15 egin du gora).

**Familia-eremuko indarkeriak 50 urtetik gorako emakumeengan eragiten du batez ere (kasuen % 34,4), eta erasotzaileak semeak izaten dira.**

**Indarkeria horrek emakume gazteei ere eragiten die bereziki, eta erasotzaileak aitak izaten dira. Biktimen % 26,3k 18 urte baino gutxiago zituen.**



**FAMILIA BARNEAN EMAKUMEEN AURKO INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIRENAK (BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN INDAKERIARENAK IZAN EZIK), ADINAREN ARABERA. %a. EAE, 2019**



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Berriro ere gogora ekarri behar da kasuen kopuruak gora egin duela adierazten dutela inkestek. Eusko Jaurlaritzak 2011n egindako *Emakumeen aurkako Indarkeria Matxista EAEn*<sup>53</sup> azterlanak identifikatu zuen EAEko emakumeen % 1,79 inguruk jasan duela noizbait familia barneko indarkeria (bikotekidearena edo bikotekide ohiarena ez dena), eta azken urtean indarkeria modu horrek emakumeen % 0,67k jasan duela.

Azterlan horren arabera, familia barnean ohikoena ere izaten da emakumeek indarkeria psikologikoa pairatzea. Familia-eremuko indarkeria pairatu duten emakumeen % 84,8 indarkeria psikologikoaren biktima izan da. Horrezaz gain, inkesta bete duten emakumeen % 43,8k adierazi du indarkeria fisikoko egoerak bizi izan dituela, eta % 13,4k sexu-indarkeriako egoerak bizi izan dituela.

**FAMILIA BARNEAN ERAGITEN DIREN INDARKERIA MOTAK. %a. EAE. 2011**

	NOIZBAIT	EGUN
Psikologikoa	84,8	90,0
Fisikoa	43,8	20,0
Fisikoa eta psikologikoa	34,8	15,0
Soziala	17,9	10,0
Ekonomikoa	17,0	10,0
Sexuala	13,4	5,0

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi diren 16 urteko edo gehiagoko emakumeak.

<sup>53</sup> EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA. Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2012.

## Sexu-indarkeria familia-eremutik kanpo:

Sexu-indarkeria indarkeria mota bat da, bere barnean hartzen dituen hertsadura, manipulazio edo beste indarkeria mota batzuen bidez gauzatzen diren sexu-portaerak, eta sexu-portaera horiek izan daitezke kontaktu fisikoarekin (igurtziak, masturbazioa, laztanak, penetrazioa...) edo kontaktu fisikorik gabe (neskato zein mutiko bat pertsona helduen sexu-harremanak ikustera behartzea, exhibizionismoa, sexuarekin lotutako txantxak edo irainak...). Sexu-indarkeria familia barnean zein familia-eremutik kanpo gerta daiteke; hala ere, atal honetan familia-eremutik kanpokoa izango dugu hausnarketagai.

Oso gutxi ezagutzen den indarkeria da, benetako dimentsioari dagokionez; izan ere, oso informazio gutxi dago eskuragarri, eta kalkulatu da prebalentzia askoz handiagoa dela ezagutzen diren kasuak oinarri hartuta egindako estatistikek adierazi ohi dutena baino.


Estigma soziala eta prozesu judizialean sortzen diren eragozpenak izan daitezke indarkeria mota honen salaketak ez jartzearen arrazoiak, eta horrek eragotzi egiten du zer dimentsio duen jakitea. Salaketak mesfidantza ugari eragiten ditu, bai ingurunean eta bai biktimaren baitan, batez ere biktimak adingabeak direnean. Nahiz eta gero eta gehiago ematen diren ezagutzera sexu-abusuko kasuak, oraindik ere gai tabua da eta pairatzen dutenak estigmatizatuta sentitzen dira oraindik ere.

Ertzaintzak erregistratutako biktimizazioen % 7,7 familia-eremutik kanpoko sexu-indarkeriaren kasuak dira. 2019an, horrelako 424 biktimizazio erregistratu ziren, eta 422 emakumek jasan zituzten.

Familia-eremutik kanpoko sexu-indarkeriak emakume gazteenei eragiten die, bereziki. Indarkeria mota honen lau biktimatik hiru 30 urtetik beherakoak ziren. Garrantzitsua da kontuan izatea, gainera, indarkeria mota honen biktima diren emakumeen % 38,72 hemezortzi urtetik beherakoa dela.

**2019an, familia-eremutik kanpoko sexu-indarkeriak 422 biktima eragin zituen; 30 urtetik beherako emakumeak, gehienbat.**

**FAMILIA-EREMUTIK KANPOKO EMAKUMEEN AURKAKO SEXU-INDARKERIAREN EMAKUME BIKTIMAK, ADINAREN ARABERA. %a. EAE, 2019**




*\*Kanpoan utzi dira kasu batzuk, adina ez dakigulako (% 1,24)*

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

2010. urteaz geroztik, familia-eremutik kanpoko sexu-indarkeriagatiko biktimizazioen kopuruak % 99 egin du gora; hain zuzen ere, 2010ean 212 kasu izan ziren, eta 2019an, berriz, 422. Aurreko urtearekin alderatuta (2018), era horretako kasuen kopuruak % 8,8 egin du gora.

**FAMILIA-EREMUTIK KANPOKO EMAKUMEEN AURKAKO SEXU-INDARKERIAGATIKO BIKTIMIZAZIOEN BILAKAERA**  
**. Absolutuak eta ehunekoan igoera urtetik urtera. EAE, 2010-2019**



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Emakumeen sexu-askatasunaren aurka EAEn 2019aren joanean erregistratu diren delituen % 80,4 familia-eremutik kanpo gertatu ziren, delituen % 10,1 bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako indarkeriaren eremuan, eta % 9,5 familia barneko norbaitek gauzatutako indarkeriaren eremuan.

**SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUENGATIK IZANDAKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK, INDARKERIA MOTAREN ARABERA. Absolutuak eta %a. EAE, 2019**

Sexu-askatasunaren aurkakoak	BIKOTEKIDEA/BIKOTEKIDE OHIA	FAMILIA BARNEKOA	SEXU-ASKATASUNA	GUZTIRA
Absolutuak	53	50	422	525
%	10,1	9,5	80,4	100

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren Azterlan eta Análisi Dibisioaren Zuzendaritza.

Sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurka izandako delituei buruz Barne Ministerioak egindako txostenak aditzera eman duenez,<sup>54</sup> 2018an erregistratutako emakumeen biktimizazio guztietatik, % 69 ezezagun batek eragindakoa izan zen.

Hala eta guztiz ere, Estatu-mailako makroinkestako datuek<sup>55</sup> badirudi adierazten dutela erregistro horiek ez direla behar bezain sentikorrek biktimaren ingurune hurbilenean gertatzen den sexu-indarkeria hautemateko. Azterlan horren arabera, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremutik kanpo bizitzan behin bortxatu dituzten emakumeen % 56,5ek esan du erasotzailea gizon ezezagun bat zela (laguna, irakaslea, ikaskidea, lankidea...), % 23,9k esan du erasotzailea senide bat zela, eta % 18,6k, gizon ezezagun bat izan zela.

EAEn bezala, sexu-askatasunaren aurkako delituen kopuruak gora egin du Estatuan azken urteotan, batez ere 2016an eta 2017an, % 8 eta % 9, hurrenez hurren. Txosten horretako datuek agerian utzi dute sexu-abusuen eta -erasoen prebalentzia handiagoak direla, azken urteotan gora gehien egin duten delituak baitira.

Txosten horrek agerian utzi du, halaber, sexu-delituen biktimen ia % 40 adingabeak zirela 2019an (% 38,72, zehazki). 30 urtetik beherako biktimak kontuan hartuta, % 73,16ra igotzen da ehunekoak.

<sup>54</sup> BARNE MINISTERIOA. SEGURTASUNeko ESTATU IDAZKARITZA. *Informe sobre delitos contra la libertad e indemnidad sexual en España*. Madrid: Barne Ministerioa, 2018.

<sup>55</sup> OSASUN MINISTERIOA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2015*. Madrid: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Belduntasun Ministerioaren argitalpen-zentroa, 2015.

## BIKTIMIZAZIOAK, TIPOLOGIA PENALEN ARABERA. ABSOLUTUAK. ESPAINIA 2018

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Sexu-abusua	3.352	3.826	3.788	4.650	5.085	6.479
Sexu-erasoa	1.945	1.866	1.717	1.808	1.801	1.983
Sexu-erasoa, penetrazioarekin	1.250	1.171	1.185	1.260	1.358	1.638
Sexu-abusua, penetrazioarekin	388	412	450	689	825	1.116
Exhibizionismoa	809	929	878	887	859	762
Adingabeak/ ezindiak galbidean jartzea	500	595	574	560	614	341
Sexu-jazarpena	290	261	268	347	384	481
Prostituzioari lotutako delituak	678	694	540	378	311	335
Teknologia-harremana 16 urtetik behera	124	166	240	473	439	530
Adingabeen pornografia	266	272	269	180	285	254
Sexu-probokazioa	138	201	114	142	176	107
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.740</b>	<b>10.393</b>	<b>10.023</b>	<b>11.374</b>	<b>12.137</b>	<b>14.026</b>

Iturria: Barne Ministerioa. Segurtasuneko Estatu Idazkaritza. *Informe sobre delitos contra la libertad e indemnidad sexual*, 2018.

Prebalentziari buruzko azterlanak<sup>56</sup> bereziki garrantzitsuak dira sexu-indarkeria denean aztergai; izan ere, lehen adierazi dugunez, emakumeen aurkako indarkeria-moduen artean ezkutuen geratzen denetako bat da. Eskura ditugun datuek adierazten dute Espainian bizi diren 16 urtetik gorako emakumeen % 7,2k pairatu izan duela noizbait bizitzan sexu-indarkeria motaren bat bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremutik kanpo, eta azken urtean, % 0,6k. Emakume horien % 3,5ek sexu-indarkeria 15 urterekin baino gutxiagorekin pairatu zuen, eta % 4,2k 15 urte bete ondoren.

**Espainian bizi diren 16 urtetik gorako emakumeen % 7,2k pairatu izan du noizbait sexu-indarkeria motaren bat bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremutik kanpo, eta azken urtean, % 0,6k.**

Bikotekidea ez zen edo bikotekide ohi ez zen pertsonaren baten sexu-indarkeria 15 urterekin baino gutxiagorekin pairatu duten emakumeen % 46,9k esan du kasu bakan bat izan zela, eta % 53,1ek, berriz, behin baino gehiagotan izan dela sexu-erasoen biktima. Indarkeria mota hau 15 urte bete ondoren jasan duen emakumeen kasuen ehunekoak % 50,6 eta % 49,4 dira, hurrenez hurren. Indarkeria azken 12 hilabeteetan pairatu dutenei dagokienez, emakumeen % 53,9k esan du eraso bakan bat izan dela.

Familia-eremutik kanpoko sexu-indarkeriaz hitz egiterakoan, kontuan hartu behar da kirol-eremuari ere dagokiona, hori baita emakumeen eta gizonen desberdintasun estrukturala gehien nabarmentzen den eremuetako bat. Nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoen kirol-eremuko sexu-abusuaren eta sexu-jazarpeneren prebalentziari buruzko datu kuantitaborik, ez eta sexu-jazarpeneratiko prebalentziari buruzkorik ere, zenbait azterlanek adierazten dute prebalentzia % 3tik % 52ra artekoa izan daitekeela, metodologia, herrialdea eta erabilitako definizioen arabera<sup>57</sup>.

Hurtzarroan jasandako sexu-abusuen kasuak ere aipatzekoak dira. Azterlan batzuek kalkulatzeko dute Espainian 5 pertsonatik batek sexu-indarkeria motaren bat pairatu duela hurtzarroan<sup>58</sup>,

<sup>56</sup> OSASUN MINISTERIOA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2015*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa, 2015.

<sup>57</sup> Begirada. Kirol-arloan sexu-abusuaren eta -jazarpeneren eta sexuagatiko jazarpeneren aurkako informazio- eta arreta-zerbitzua jarri du abian Eusko Jaurlaritzak. 2018ko azaroaren 20a. Eskuragarri hemen: <http://begirada.org/not/20209/gobierno-vasco-pone-en-marcha-un-servicio-de-informacion-y-atencion-para-casos-de-acoso-y-abuso-sexual-en-el-deporte/>

Eraso horiei aurre egiteko, Kultura eta Hizkuntza Politikarako Sailak, Basque Team eta Emakunderekin batera, informazio- eta arreta-zerbitzu espezializatu bat jarri du abian, kirolaren eremuan gertatzen diren sexu-jazarpeneren, sexu-abusuaren eta sexuagatiko jazarpenerarako ([www.euskadi.eus/somosdetuequipo](http://www.euskadi.eus/somosdetuequipo))2FP. Zerbitzu horretan, arazo honen inguruko laguntza ematen zaie biktimari, biktimen hurbilekoei eta federazioei, klubei eta elkartei. Ekimen horrek informazio-iturri ere izan nahi du, Euskadin arazo hori norainokoa den jakiteko.

<sup>58</sup> Iturria: SAVE THE CHILDREN. *Ikusi nahi ez duten begiak*. Euskadiri buruzko eranskina. *Ume baten kontrako sexu-abusu kasu batean izan daitezkeen hutsegiteak*. Save the Children, 2017.

eta, horrezaz gain, neska-mutikoen aurkako indarkeria-kasuen % 10 baino gutxiago notifikatzen dela indarkeria gertatzen denean<sup>59</sup>.

Oso adin goiztiarretan, pubertaroaren aurretik eta bigarren mailako sexu-ezaugarriak oraindik argi eta garbi zehaztuta ez daudenean, nesken eta mutilen arteko biktima kopuruan ez dago alde nabarmenik, hau da, abusuak neskatoei zein mutikoei egiten zaizkie; baina pubertarotik aurrera, sexu-abusuek nabarmen gehiago eragiten diete neskei, eta erasotzaileak gizonezkoak dira gehienbat. Beste indarkeria modu batzuek bezala, honek ere lotura du kutsu ideologikoa, kulturala eta sinbolikoa duten egiturazko faktoreekin, eta horiek «helduak orokorrean, eta gizonezkoak bereziki, pribilegio- eta gailentasun-egoeran jartzen dituzte, eta beren abusu-ekintza zilegitzen dute»<sup>60</sup>.

Polizien erregistroetako datuek adierazten dutenez, sexu-askatasunaren aurkako delituengatiko biktimizazioen % 75 hamahiru urtetik beherako neskatoa da, eta 14-17 urte bitarteko adingabeen aurkako biktimizazioen % 81 neska da<sup>61</sup>.

Neskatoek arazo gehiago dituzte bizitzen ari diren egoera identifikatzeko eta salatzeke emakume helduek baino, eta, horrezaz gain, beren lekukoen sinesgarritasunarekin zerikusia duten eragozpen gehiago dituzte, eta horrek are birbiktimizazio handiagoa eragiten du.

Eta azkenik, nahiz eta EAEn intzidentzia ez den beste testuinguruetan bezain handia, aipatzekoak dira sexu-indarkeriaren barruan sar daitezkeen beste indarkeria mota batzuk ere, hala nola ziberindarkeria, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa eta emakumeen genitalen mutilazioa. Gaiaren espezifikotasuna dela-eta, indarkeria horiei buruzko datuak txosten honetako atal espezifikotan aurkeztuko ditugu, emakumeen aurkako beste indarkeria modu batzuei buruzkoan.

---

<sup>59</sup> Iturria: WORLD HEALTH ORGANIZATION. *European report on preventing child maltreatment*. Kopenhage: World Health Organization, 2013.

<sup>60</sup> BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Haurrenganako sexu-abusuak. Indarkeriak ikusaraziz*. Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.

<sup>61</sup> Iturria: Kriminalitateari buruzko sistema estatistikoa. Kriminalitateari buruzko sistema estatistikoan biltzen diren datuak atestatuen instrukzioa egiteko bide ematen duten polizia-jarduerak dira. Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako, polizia autonomikoetako eta udaltzaingoetako datuak biltzen ditu.

## Emakumeen aurkako indarkeria moduak:

Emakumeen aurkako indarkeria modu ohikoenak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, familia barneko indarkeria eta sexu-askatasunaren aurkako indarkeria dira. Hala ere, badira emakumeen aurkako beste indarkeria modu batzuk arlo pribatuan zein publikoan, askotan askoz ere ikusezinagoak direnak.

Atal honetan haietako batzuei buruzko datuak azalduko ditugu; izan ere, Emakunderi kezka eragiten dien indarkeriak dira, eta horregatik sustatu ditu azken urteotan mekanismo eta tresna espezifikoak, indarkeria horiek desagerraraztea xede hartuta. Zehazki:

- **Ziberindarkeriak**
- **Lan-eremuko indarkeria**
- **Sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa**
- **Emakumeen genitalen mutilazioa**

### Ziberindarkeriak

Azken urteotan gizartean izugarri aldatu dira harremanak edukitzeko eta komunikatzeko moduak, besteak beste, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, Internet, sare sozialak eta gailu mugikorrek erabiltzen direlako. Teknologia horiek guztiak abantaila handiak ekar ditzakete, baita zenbait abusu-arrisku eta indarkeria modu berriak areagotzea ere, hala nola sexting-a (irudi edo beste eduki sexual edo erotiko batzuk mugikor edo Internet bidez zabaltzea) eta grooming-a (adingabeen kontrako sexu-abusua, helduek gauzatzen dutena, Internet bidez lortzen dituzten irudi eta informazioarekin hertsatuz Internet bidez)<sup>62</sup>; izan ere, oso eskuragarri daude edonorentzat, eta erasotzaileei pribatutasunez eta inpunitatez jarduteko aukera ematen diete.

Ziberkontrola esan zaiona ere aipatu behar da, halako egoerak asko ugartu baitira. Tresna horietako batzuk (smartphone-a, sare sozialak...) indarkeria gauzatzeko erabiltzeak egoera batzuetan emakumeen aurkako indarkeria-egoerak are larriago bihurtzea eragin lezake, hala nola bikotekideen edo bikotekide ohien arteko harremanak, eta, bereziki, haiek gazteak badira. Emakumeak kontrolatzeko aukerak eta bitartekoak ematen dituzten tresnak dira, etengabe «harremanetan eta konektatuta» egoteko, eta zer gertatzen ari den eta non dauden berehala jakiteko aukera ematen baitute. Antza, nerabeen kulturen gero eta ohikoagoa da neska-mutilek profilak, kontuak eta bikote-egoerak kontrolatzea.

Ikusten dugunez, eremu digitalean gertatzen diren eraso motak izendatzeko termino desberdinak daude, eta, askotan, gainjartzen diren kontzeptuei dagozkie, mugak ez baitaude beti behar bezain garbi. Ziberjazarpena kontzeptu orokor moduko bat izan liteke, guztiak hartuko lituzkeena.

Ziberjazarpena inbasiotzat jo daiteke: biktimaren bizitza eta mundua inbaditzea, behin eta berri, modu disruptiboan eta baimenik izan gabe, Internetek eskaintzen dituen aukerak erabiliz. Harreman asimetrikoko portaerak dira; hau da, eremu zibernetiko horretan pertsona batek jarrera dominatzailea du, eta bestea men egiteko rola hartzera behartzen du, horretarako

---

<sup>62</sup> Grooming-a neskatilen eta mutikoen kontrako jazarpen eta abusu modu berri bat da, batez ere txaten eta sare sozialen bidez egiten dena. Heldu batek bere burua beste pertsona bat balitz bezala aurkezten du, biktimaren adin bereko norbait balitz bezala, normalean. Sexu-gaiak sartzen ditu solasaldietan (gaiaz hitz egiten du, irudi erotikoak trukutzen ditu, etab.). Une horretan gertatzen da sexu-abusua izateko arriskua.

boterea erabiliz, Harremanetako, Informazioko eta Komunikazioko Teknologien (gaztelaniaz, TRIC) bidez. Offline gertatzen den jazarpenarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarekin gertatzen den bezala, erasotzailearen helburua biktimaren bizitza pribatuan zakarki sartzea da, eta babesgabetasun eta beldurra sorraraztea<sup>63</sup>.

Ziberjazarpenari buruz gaurdaino egin diren eta datuak sexuaren arabera bereizita ematen dituzten azterlanei dagokienez, batzuek ondorioztatu dute ez dagoela genero-aldetik desberdintasunik, eta beste batzuek, berriz, emakumeen biktimizazio handiagoa dagoela. Baina azterlan guztiek agerian utzi dute «badirela nolabaiteko aldeak neskatoek eta mutikoek pairatzen duten ziberjarpenean, eta sexua elementu komuna dela mutikoek neskatoen aurka gauzatzen dutenean ziberjazarpena»<sup>64</sup>.

Horrexegatik da garrantzitsua fenomeno hori genero-ikuspegia oinarri hartuta aztertzea, eta emakumeen aurka gauzatzen den ziberindarkeriaren forma espezifikoak ikusaraztea, «gizonezkoei nagusitasuna irauarazteko mekanismoak diren aldetik, zeinetan errepikatu egiten baitira emakumearenganako botere-jardun zehatz batzuk (jazartzea, iraintzea, umiliatzea...) hura mendean edukitzeko asmoz».

Horren harira, ziberjazarpen matxista terminoak Sarean gauzatzen den emakumeenganako (sexu-izaeragatik eta barneratutako genero-eraikuntzagatik) hainbat jokabide iraingarriren funtsa jasotzen du. Jokabide horiek emakumezkoei ezaugarri kaskarragoak aplikatzen dizkie gizonezkoei baino, errepikakorak dira eta onartu gabeak, eta biktimen bizitza pribatuan sartzea dakarte (esaldi matxistak, irudi sexistak bidaltzea...). Bestalde, ziberjazarpen sexualaren terminoaren barruan, emakumeei egoera umiliagarria sortzen dien jokabide iraingarri eta sexual oro sartzen da (Sarean gauzatutakoa).

Zenbait azterketa<sup>65</sup> ohartarazten ari dira emakumeen aurkako indarkeria erabiltzeko modu berri horiek gure gizartean duten presentziaren dimentsioaz, eta bereziki gazteen artean. Ziberjazarpen sexistak eta sexualak matxismoa errepikatzen du, eta bereziki ohikoa da nerabeen artean; hala ere, indarkeria modu ikusezinak dira, eta askotan ez dira ezbaian jartzen, ezta haiei aurre egiten ere, eta emakumea hartzen da erruduntzat<sup>66</sup>.

**Ziberjazarpen sexistak eta sexualak matxismoa errepikatzen du, eta bereziki ohikoa da nerabeen artean; hala ere, indarkeria modu ikusezinak dira, eta askotan ez dira ezbaian jartzen, ezta haiei aurre egiten ere.**

Sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituei buruz Barne Ministerioak egindako txostenak<sup>67</sup> agerian utzi du sexu-ziberdelinkuentziari lotutako gertakariak, bai emakumeen aurkakoak bai gizonen aurkakoak, arian-arian gehitzen ari direla, batez ere 2014az geroztik.

<sup>63</sup> TORRES ALBERO, C. (zuz.). *El ciberacoso como forma de ejercer la violencia de género en la juventud: un riesgo en la sociedad de la información y del conocimiento*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioako argitalpen-zentroa. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza, 2014.

<sup>64</sup> LINARES, Estibaliz. *El Iceberg Digital Machista: análisis, prevención e intervención de las realidades machistas digitales que se reproducen entre la adolescencia de la CAE*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2019.


<sup>65</sup> TORRES ALBERO, C. (zuz.). *El ciberacoso como forma de ejercer la violencia de género en la juventud: un riesgo en la sociedad de la información y del conocimiento*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioako argitalpen-zentroa. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza, 2014.

<sup>66</sup> LINARES, Estibaliz. *El Iceberg Digital Machista: análisis, prevención e intervención de las realidades machistas digitales que se reproducen entre la adolescencia de la CAE*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2019.

<sup>67</sup> BARNE MINISTERIOA. SEGURTASUNNEKO ESTATU IDAZKARITZA. *Informe sobre delitos contra la libertad e indemnidad sexual en España*. Madril, 2018.

2018. urtean 1161 biktimizazio erregistratu ziren, eta, beste sexu-delituekin gertatzen den bezala, sexu-ziberdelinkuentziari lotutako gertakariak adingabeen aurkakoak izaten dira gehienbat (delitu horien guztien % 83,2).

Sexu-ziberdelinkuentziari lotutako gertakarien barruan, aipagarriak dira 16 urtetik beherakoekin teknologiaren bidez sexu-helburuekin egindako kontaktu-delituak, adingabeak galbidean jartzeagatiko delituak, adingabeen pornografia eta sexu-abusuak. Nolanahi ere, indarkeria mota horren adierazpenak askotarikoak izan daitezke, honako hauek barne hartuta: xaxatze eta jazarpen etengabea online (mezuak bidaltzea, emakumeen profiletan iruzkinak argitaratzea, zurrumurru faltsuak sortzea, etab.), mugikorrek lokalizatzeko zerbitzuak erabiltzea emakumea non dagoen jakiteko, grabazio edo argazki intimoak edo sexu-izaerakoak zabaltzea sare sozialen bidez, sexu-erasoak grabatzea, identitatea lapurtzea, profil faltsuak sortzea, biktimak zelatatzeko aplikazioak (spyware), eta abar.



Iturria: Barne Ministerioa. *Espanian sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurka 2018. urtean izandako delituei buruzko txostena*

Gaztedia eta Generoari buruzko Barometroa<sup>68</sup> 2017an egin zen, genero-indarkeriari buruz zer pertzepzio zuten galdetuta 15 urtetik 29 urtera bitarteko 1.200 gazteri. Hauek dira han jasotako zenbait datu: adin-tarte horretako emakumeen % 27,5ek esan du *bikotekideak mugikorra berrikusi* diola; % 20ari *bikotekideak mehatxu egin dio edo iraindu egin du Internet edo mugikor bidez*; % 9,7k esan du *bikotekideak bere irudiak, mezuak edo irainak zabaltu* dituela, bere baimenik gabe; eta % 8,2 *mugikorraz edo bidez grabatu dute edo argazkiak egin dizkiote, emakumeak jakin gabe*.

Zenbait azterlanetan<sup>69</sup> ondorioztatzen denez, gazteek oso ondo dakite nola funtzionatzen duten sare sozialek edo Internetek; ordea, Interneteko erabilera-eredu batzuk ez dituzte arrisku-praktikatzat hartzen, hala izanik ere.

Adibidez, nerabeen artean jardunbide hauek dira aipagarrienak: nesken % 37,1ek eta mutilen % 44,5ek ezezagun bat lagun gisa onartu dute sarean, behin edo gehiagotan; nesken % 17,4k eta mutilen % 23k esan du bere amak edo aitak baimenduko ez lukeen argazki bat argitaratu duela birritan edo gehiagotan, eta nesken % 4,7k eta mutilen % 8,2k webcama erabili dute ezezagunekin komunikatzeko.

**ARRISKUTSUTZAT JO DAITEZKEEN PRAKTIKAK (birritan/gehiagotan) EGIN DITUZTEN GAZTEAK, SEXUAREN ARABERA. EAE. 2013**

DELITUAK	MUTILAK	NESKAK
ezezagun bat laguntzat hartzea sarean	% 44,5	% 37,1
amak edo aitak baimenduko ez liokeen argazkia argitaratzea bitan edo gehiagotan	% 23	% 17,4
webcama erabiltzea ezezagunekin komunikatzeko	% 8,2	% 4,7
sexu-izaerako bere argazki bat argitaratzea	% 2,2	% 1,1
bikotekidearen sexu-izaerako argazki bat argitaratzea	% 1,5	% 0,7

Iturria: OSASUN, GIZARTE POLITIKA ETA BERDINTASUN MINISTERIOA / GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *La evolución de la adolescencia española sobre la igualdad y la prevención de la violencia de género*. Madrid, 2014.

<sup>68</sup> REINA SOFÍA ZENTROA, NERABEZAROA ETA GAZTEDIA. *Genero-indarkeriari buruzko pertzepzioak*. Madrid, 2017.

<sup>69</sup> GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *La evolución de la adolescencia española sobre la igualdad y la prevención de la violencia de género*. Madrid: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa, 2014.



Aipatu praktikak egiten dituzten mutilen kopurua neskena baino handiagoa den arren, neskak sareetan agertzea arriskutsuagoa da erasotzaileek praktika horiekin egiten duten erabilera eta abusua dela-eta.

Sexting-arriskua eragin dezaketen praktika batzuez ere ohartarazten da (irudi edo beste eduki erotiko batzuk telefono mugikorren bidez edo Internetez bidaltzea da sexting-a), nahiz eta ohitura horiek ez dauden oso zabaldua: nesken % 1,1ek eta mutilen % 2,2k sexu-izaerako bere argazki bat argitaratu du birritan edo gehiagotan; nesken % 0,7k eta mutilen % 1,5ek bere bikotekidearen sexu-izaerako argazki bat argitaratu du birritan edo gehiagotan.

Bestalde, *Jarduerak, bitartekaritza, aukerak eta adingabekoen online arriskuak konbergentzia mediatikoaren aroan*<sup>70</sup> txostenaren arabera, 2018. urtearen joanean 11 urtetik 17 urtera bitarteko Espainiako neska-mutikoen % 42k ikusi ditu kutsu sexualeko irudiak Interneten edo beste bitarteko baten bidez, eta hamarretik hiruk eduki sexualeko mezuak jaso ditu (sexting-a).

**EDUKI SEXUALEKO MEZUAK JASO DITUZTEN (SEXTING-A) ADINGABEAK, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ESPAINIA. EHUNEKOAK. 2010-2015-2018.**

	%a	Guztira	11-12 urte	13-14 urte	15-17 urte
2010	<b>Guztira</b>	<b>10</b>	<b>3</b>	<b>10</b>	<b>13</b>
	Mutilak	7			
	Neskak	11			
2015	<b>Guztira</b>	<b>30</b>	<b>19</b>	<b>34</b>	<b>42</b>
	Mutilak	35			
	Neskak	28			
2018	<b>Guztira</b>	<b>26</b>	<b>12</b>	<b>30</b>	<b>45</b>
	Mutilak	27			
	Neskak	24			

Iturria: Hainbat egile. *Jarduerak, bitartekaritza, aukerak eta adingabekoen online arriskuak konbergentzia mediatikoaren aroan. EU Kids online taldeak Espainian 9-17 urte bitarteko adingabeei egindako inkestaren emaitzak*. León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.

Indarkeria horrek emakumeen osotasunaren eta pribatutasunaren aurkako eskubideak nabarmen urratzen ditu, eta indarkeria psikologikoa izan ohi da, nahiz eta abusu fisikoa ere ekar dezakeen, bai eta bere buruaz beste egitea ere. Praktika bereziki kaltegarriak dira, oso azkar hedatzeaz gain, biral bilakatzen baitira. Gainera, indarkeria-egintza horiek anonimotasunean eta urrutitik egiten dira, eta horrek zaildu egiten du erasotzailea jarraitzea edo salatzea.

## Lan-eremuko indarkeria

Lan-eremuko sexu-jazarpenera eta jazarpen sexistara emakumeen aurkako indarkeria modu espezifikoak dira. Honako hauek hartzen dira sexu-jazarpentzat: «Sexu kutsuko edozein jokabide hitzezko, ez hitzezko edo fisiko, pertsona baten duintasunari erasotzeko asmoz egiten dena edo ondorio hori dakarrena haren gogoaren kontra, eta, batez ere, inguru beldur-eragile, etsaitasunezko, iraingarri, umiliagarri edo laidogarria sortzen duena»<sup>71</sup>. Sexu-jazarpenera, bestalde, horizontalean (lankideek gauzatzen dutena) edo bertikalean (lan-eremuan goragoko mailan daudenek gauzatzen dutena) gerta daiteke. Entitateko langileek berek gauzatutakoa izan daiteke, edo hirugarren batzuek gauzatutakoa, hala nola bezeroek eta zerbitzuen erabiltzaileek.

<sup>70</sup> Hainbat egile. *Jarduerak, bitartekaritza, aukerak eta adingabekoen online arriskuak konbergentzia mediatikoaren aroan. EU Kids online taldeak Espainian 9-17 urte bitarteko adingabeei egindako inkestaren emaitzak*. León: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.

<sup>71</sup> Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/73/EE Zuzentaraua, 2002ko irailaren 23koa, Kontseiluaren 76/207/EE Zuzentaraua aldatzen duena, enplegua lortzeari, prestakuntzari eta sustapen profesionalei eta lan-baldintzei dagokienez, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa.

Honako hauek hartzen dira, besteak beste, sexu-jazarpenentzat: eduki sexualeko iruzkin, piropo, iradokizun eta txisteak, ingurunea kutsu sexualeko motiboekin dekoratzea, eduki sexualeko aldizkariak zein web-irudiak erakustea, xantaia sexuala, gogoaren kontrako kontaktu fisikoa, ukituak, inguratzeak eta sexu-erasoak.

Bestalde, hau da sexu-jazarpenaren definizioa: «Pertsona jakin baten sexuarekin zerikusia duen edozein jokabide, xede nahiz ondore dituen pertsonaren duintasunaren aurka egitea eta larderiakoa, apalesgarria eta ofentsakoa den ingurua sortzea»<sup>72</sup>. Zehazki, bere barnean hartzen ditu hierarkian goian edo behean daudenen edo lankideen keinuzko edo hitzezko jokabide, portaera edo jarrera oro, genero-estereotipoekin zerikusia dutenak edo estereotipo horien ondorio direnak, eta errepikakorak edo sistematizatuak izateagatik pertsona baten duintasunaren eta osotasun fisiko edo psikikoaren kontrakoak direnak; enpresa baten antolaketa eta zuzendaritzaren markoan gertatzen dira, biktimaren lan-baldintzak degradatu, eta biktimaren enplegua arriskuan jartzen dute, bereziki jarduera horiek amatasun-aitatasun egoerekin edo beste senide batzuk zaintzaren ardura hartzearekin lotuta daudenean.

Jarduera hauek hartzen dira, besteak beste, sexuan oinarritutako jazarpenentzat: pertsona edo bere lana gutxiesteko adierazpenak, irudi fisikoari buruzko iruzkin iraingarriak etengabe egitea, bete ezinezkoak diren aginduak edo lan-eginkizunak agintzea, agindu iraingarriak egitea, gehiegizko eta etengabeko kontrola dakarten jarrerak, pertsona bat inkomunikatzea edo isolatzea eta eraso fisikoak.

*Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak (FRA)* 2014an egindako azterlanaren arabera<sup>73</sup>, 15 urtetik aurrera noizbait bizitzan indarkeria pairatu duten emakumeen % 32k adierazi zuen erasotzailea lan-eremuko zela.

EAEn ez da berriki gaian sakontzeko azterketarik egin. Erreferentzia moduan baliagarria izan daiteke 2007an argitaratutako *Sexu-jazarpena lan-eremuan*; azterlanaren arabera, EAEko herritarren % 1,8k esan zuen sexu-jazarpenaren biktima izan zela lantokian, eta emakumeak ziren jazarpenaren biktima gehienak. Halaber, ondorioztatu zuen emakumeen % 0,4ri sexu-mesedeak egiteko presio egin ziotela, eta % 8 hitzezko jazarpen matxista, iraingarri eta laidogarriaren biktima izan zela<sup>74</sup>.

Gerora, Eusko Jaurlaritzak 2011n egindako *Emakumeen aurkako Indarkeria Matxista EAEn* txostenean jasotakoaren arabera, lanean ari ziren emakumeen % 5,5ek adierazi zuen lana balioetsi ez ziotelako egoerak sarritan edo batzuetan bizi izan zituela; % 1,9k esan zuen lan-eremuan hirugarren batzuen aurrean irainduta sentitu zela; eta % 1,6k, berriz, oihiu egin ziotela eta irainak eta mehatxuak jasan zituela. Txosteneko zenbatespenak kontuan hartuta, azken urte horretan aipatutako egoera horietakoren bat bizi izan duten emakumeen kopuruak % 7,8, % 2,9 eta % 2,9 egin zuten gora, hurrenez hurren<sup>75</sup>.

Lan egiten duten emakumeenganako lan-jazarpenaren ondorioak izugarri negatiboak dira, haien askatasuna mugatzeaz gain, haien ibilbide profesionalaren garapen askea murriztu egiten baita. Biktimen lan-portaeran aldaketak eragiten ditu, hala nola lan-eritmoa eta erasotzailea ez

<sup>72</sup> Definizioa hemendik hartu dugu: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa.

<sup>73</sup> EUROPAR BATASUNEKO OINARRIZKO ESKUBIDEEN AGENTZIA (FRA). *Emakumeen aurkako genero-indarkeria: EBren esparruko inkesta*. Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa, 2014.

<sup>74</sup> LEZAUN BARRERAS, Zuriñe, IBÁÑEZ GONZÁLEZ, Mónica eta beste batzuk. *Acoso sexual en el ámbito laboral su alcance en la Comunidad Autónoma de Euskadi*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2007.

<sup>75</sup> EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA. *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2012.

ikusteko lan-espazioak aldatzea, janzkera aldatzea, lanetik botatzeko edo lanean gora egiteko aukera galtzearen beldurragatik jazarpena isilean gordetzea edo ezkutetzea.

Osasunean ere eragiten ditu kalteak. Ondorio psikologikoen artean, nabarmentzekoak dira estresa, antsietatea, depresioa, insomnia eta nekea. Autoestimuan ere eragiten du, eta horrek berekin dakar produktibitatean behera egitea, eta, zenbaitetan, lanera ez agertzea edo lanetik alde egitea<sup>76</sup>.

Gaitz horren aurka borrokatzeko lege- eta arau-mekanismoak abian jarri diren arren,<sup>77</sup> indarkeria mota horren salaketak arazoaren zati txiki bat baino ez direla uste da. *Europako Parlamentuak 2018ko irailaren 11n emandako Ebazpenak*<sup>78</sup> ohartarazi du lan-eremuetan gertatzen diren sexu-jazarpeneko eta jazarpen sexistako kasu asko ez direla salatzen hainbat faktoreren ondorioz, besteak beste, hauek: sexu-jazarpenaren gaineko sentibilizazio sozial eskasa, frogak lortzeko zailtasuna, salaketa-bideetara jotzeko zailtasunak, biktimen jarraipen eta babes eskasa eta lan-eremu batzuetako indarkeria matxistaren normalizazioa.

Azkenik, jazarpenaz gain, lan-eremuan emakumeen aurka gauzatzen den indarkeriaren esparruan, aipatu beharrekoa da (nahiz eta txosten honen helburua ez den sakon aztertzea) soldata-arrakala eragiten duen indarkeria ekonomikoa, hori ere ikusezina eta iraunkorra den beste indarkeria modu bat baita<sup>79</sup>.

2018ko datuen arabera, EAEko emakumeen urteko batez besteko irabazia gizonena baino % 22,6 txikiagoa da<sup>80</sup>.

Soldata-arrakalak edo gizonen eta emakumeek jasotzen dituzten ordainsarietako aldeak zenbait genero-faktoreekin eta elementu soziokulturalekin du zerikusia. Faktore horiek gizonen eta emakumeek enpleguarekin duten harremana markatzen dute, eta esparru ekonomikora bideratzen dira emakumeek eta gizonen gizaratean duten oso bestelako kokapen hori. Hala, hauek dira, besteak beste,<sup>81</sup> desberdintasun horietan eragina duten faktoreak: zuzeneko soldata-bereizkeria; sektore- eta okupazio-bereizketa eta bereizketa bertikala edo kristalezko sabaia; lan-iruzurra; zainketa-lanean erantzukidetasunik eza; eta emakumeen jarduera-tasa txikia.

## Sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa

*Palermoko Protokoloaren*<sup>82</sup> arabera, pertsonen salerosketa zera da: «Pertsonak biltzea, garraiatzea, lekualdatzea, babestea edo hartzea, horretarako mehatxua edo indarra erabiltzen bada, edo beste indarkeria forma batzuk, edota bahiketa, iruzurra, engainua, botere abusua,

<sup>76</sup> BERDINTASUN MINISTERIOA. Lan-arloko sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena: Madril: Berdintasun Ministerioa, 2020.

<sup>77</sup> Zehazki, EAEn bada *Protokoloa, lanean sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko*, zeinak helburu baitu emakume langileak ahalduntzea eta mota horretako edozein egoera leheneratzeko salaketa-bideak jartzea<sup>77</sup>. Mekanismo hori bat dator Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin, 43. artikuluan jasotzen baita sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena.

<sup>78</sup> EUROPAKO PARLAMENTUA. *EBko lantokietan, espazio publikoetan eta bizitza politikoan sexu-jazarpena eta jazarpen psikologikoa prebenitu eta borrokatzeko neurriei buruzkoa*. Ebazpena P8\_TA (2018)0331, 2018ko irailaren 11koa.

<sup>79</sup> Horren harira, ezinbestez aipatu behar da Eusko Jaurlaritzak abian jarritako *Estrategia eta ekintza-plan eragilea Euskadin soldata-arrakala murrizteko*, zeinak helburu baitu Euskadi 2030. urterako soldata-desberdintasunik txikieneko Europako bost herrialdeen artean kokatzea.

<sup>80</sup> Iturria: EIN. Soldaten egiturari buruzko inkesta.

<sup>81</sup> DE LA RICA, Sara; GORJÓN, Lucía & VEGA, Ainhoa. *Genero-arrakalak Euskadiko lan-merkatuan* Bilbo: Iseak fundazioa - Emakunde, 2019.

<sup>82</sup> NAZIO BATUAK. *Pertsonen Salerosketa, Bereziki Emakume eta Haurrena, Prebenitu, Zigortu eta Zehatzeko Protokoloa*. 3 (a) artikulua. 2000ko azaroaren 15a.

ahultasun egoera edo ordainketak edo onurak ematea edo hartzea, pertsona baten adostasuna eskuratzeko, pertsona horrek beste pertsona baten gaineko agintea badu, betiere esplotazioko helburuekin. Esplotazio horrek barneratzen ditu, gutxienez ere, inoren prostituzioaren esplotazioa edo beste sexu-esplotazio forma batzuk, lan edo zerbitzu behartuak, esklabotza edo esklabotzaren antzeko eginerak, morrontza edo organoak ateratzea». Espainiako Zigor Kodean 2010. urteaz geroztik jasota dagoen delitua da pertsonen salerosketa, eta ez da pertsonen trafikoa, alegia, legez kanpo estatu batetik bestera igarotzea.

Pertsonen salerosketa giza eskubideen bortxaketa bat da, eta aditu askok XXI. mendeko esklabotza izendatu dute. Drogaren eta Delituaren aurkako Nazio Batuen Bulegoak (UNODC) adierazi duenez, munduan 225.000 salerosketaren biktima baino gehiago izan dira, hala bortxazko lanengatik nola sexu-esplotazioagatik, eta gehienak emakumeak dira<sup>83</sup>.

Hain zuzen, salerosketako egoerak gertatzen dira pertsona bat jatorrizko herrialdean harrapatu eta helmugako herrialde batera eramaten denean, aitzakia faltsuak erabilia, hala nola enplegu ona, irabazi ekonomikoak eta ongizate handiagoa lortzea. Helmugako herrialdean, salerosketaren biktimek beren borondatearen kontrako jarduera bat egin behar dute, pertsona horiek mehatxuen, xantaiaren, estortsioaren eta indarkeriaren bidez hertsatuz, hala nola prostituziora derrigortzea eta sexu-esplotazioa. Migrazio-proiektua betetzeko bide erregularrik ez izatea faktore bat da, eta horrek areagotu egiten du emakumeek nazioarteko salerosketan (jatorrian eta igarotzean) duten zaurgarritasuna. Behin helmugako herrialdean daudenean, egoera administratibo irregularrak are handiagoa egiten du zaurgarritasuna.

Gizakien salerosketaren klandestinitateak berak eragiten du ia daturik ez egotea, edo daudenak estatuko segurtasun indar eta kidegoei egindako salaketenak izatea, eta salaketa kopuruari dagokionez, benetako kasuen oso azpitik dago.

*Sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketa Euskal Autonomia Erkidegoan*<sup>84</sup> ikerketak jasotakoaren arabera, 2010. urtetik 2016. urtera bitartean sexu-esplotaziora bideratutako pertsonen salerosketari buruzko 19 ikerketa egin ziren, eta 30 biktima askatu ziren, denak emakumeak, eta haietako 5 adingabeak. Era berean, 24 pertsonari buruzko ikerketa egin zen, egiletzat hartuta haiek. Nazionalitateari dagokionez, txostenak agerian utzi du biktimen jatorria aldatu egin dela aurreko urteetakoan aldean: 2015. urtera arte, Kamerun, Nikaragua, Polonia, Txina, Paraguai, Errumania eta Maroko herrialdeetakoak ziren, besteak beste, eta 2015etik 2016ra bitartean, biktima guztiak Nigeriakoak ziren, bat izan ezik.

Bestalde, 2019an egindako *Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatoen salerosketa Euskadin*<sup>85</sup> txostenaren arabera, 2018. urtean EAEn 1.968 eta 2.292 emakume inguru aritu ziren prostituzioan, eta horietatik % 10 eta % 15 bitartean sexu-esplotaziorako salerosketa posible baten biktima izan zitekeen.

Pertsonen salerosketaren biktimen profilari dagokionez, txostenak dio gehienak 18 urtetik 35 urtera bitarteko emakume atzerritarrak direla, Latinoamerika, Asia, Afrika eta Ekialdeko Europako herrialdeetakoak.

**Kalkulatu da EAEn prostituzioan ari diren emakumeen % 10 eta % 15 bitartean sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima izan daitekeela.**

<sup>83</sup> DROGAREN ETA DELITUAREN AURKAKO NAZIO BATUEN BULEGOA (UNODC). Global Report on Trafficking in persons 2018. Viena: Nazio Batuen argitalpena, Sales No. E.19.IV.2.

<sup>84</sup> ARARTEKOA. *Sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketa Euskal Autonomia Erkidegoan*. Vitoria-Gasteiz: Juan San Martín Giza eskubideen bilduma, 10, 2020

<sup>85</sup> MENESES, Carmen. *Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatoen salerosketa Euskadin*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2019.

Sexu-esplotaziorako salerosketaren aurkako borrokaren erronka premiazkoenetako bat biktimak identifikatzea eta haietzako babes-sistema eraginkorra ezartzea da<sup>86</sup>. *Euskadin pertsonen salerosketako egoeran dauden emakumeak eta neskak nazioarteko babeseko ikuspegitik eraginkortasunez babesteko aurrera egiteko erronkak*<sup>87</sup> izeneko 2019ko txostenaren arabera, EAEn sexu-esplotaziorako zuzenean salerositako nesken taldea bereziki zaurgarria da, bai eta salerosketako egoeran dauden amen seme-alaba adingabeen taldea ere.

Unicef-ek egindako txosten baten arabera<sup>88</sup>, Espainian, salerosketaren biktima diren adingabeko gehienak sexu-esplotaziorako dira (bai prostituziorako, bai haur-pornografiarako), eta biktima horien profil nagusia *Ekialdeko Europako 14 eta 17 urte bitarteko nerabe bat da*, indarkeria eta babesik gabeko ingurune batetik datorrena. Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren neskek detektatzea oso zaila da, konplexua baita egoera salatzea, sareekin dituzten loturengatik eta tratulari-taldeek oso kontrolpean dituztelako.

Azken urteotan, agiririk gabeko Saharaz hegoaldeko emakumeen kasuak identifikatzen hasi dira, salerosketaren biktima izan diren zantzuekin, haurdun daudenak edo oso adin txikiko pertsonak ardurapean dituztela. Sareek beren seme-alabak erabiltzen dituzte emakumeak herrialdean errazago sartzeko eta haien kanporatzea saihesteko, bai eta haien gaineko kontrola edukitzean jarraitzeko eta emakumea etengabe behartzeko (adopzioan emango dituztela mehatxatzen dituzte, tratu txarrak jasaten dituzte, etab.).

Hala ere, zaila da salerosketaren biktima diren seme-alaben kopurua zenbatekoa den jakitea; izan ere, ama formalki identifikatuta dagoenean bakarrik identifikatzen eta babesten dira salerosketaren biktima gisa seme-alaba horiek. Emakumea salerosketaren biktimatzat identifikatzen ez bada, babes-prozesua eten egin ohi da, eta prostituzio-egoeran dauden emakumeen zerrendan gehitzen eta zenbatzen dituzte. Beraz, neskato horiek, normalean, polizia esku hartzen duenean baino ez dira detektatzen<sup>89</sup>.

## Emakumeen genitalen mutilazioa

Emakumeen genitalen mutilazioa (aurrerantzean, EGM) giza eskubideen urraketa iraunkorrenetako bat da, eta Saharaz hegoaldeko Afrikako, Ekialde Ertaineko eta Asiako 30 herrialdetan errotuta dago. Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, EGM emakumeen organo genitalak erabat edo partzialki kentzea edo arrazoi medikuak ez diren beste arrazoi batzuegatik organo horien beste edozein lesio da.

Osasunerako eta norberaren gorputzaren osotasunerako eskubidearen urraketa ez ezik, nork bere sexualitatea kontrolatzeko eta sexu- eta ugalketa-eskubideak modu askean erabiltzeko

---

<sup>86</sup> Euskadin sexu-esplotaziora bideratutako pertsonen salerosketaren aurka borroka egiteko, zenbait tresna jarri dira abian, besteak beste: *2011ko Barne-koordinazioko protokoloa, sexu-esplotaziora bideratutako pertsonen salerosketaren biktimei laguntzeko, suspertze- eta gogoeta-aldian edo leheneratzekoan; sexu-esplotaziora bideratutako pertsonen salerosketari buruzko baliabideen gidak*; eta Emakundeak sustatzen dituen lan-mahaiak, zeinetan elkarlanean aritu diren instituzio eta eragile sozialekin 2019an.

<sup>87</sup> CEAR. *Euskadin pertsonen salerosketako egoeran dauden emakumeak eta neskak nazioarteko babeseko ikuspegitik eraginkortasunez babesteko aurrera egiteko erronkak*. Bilbo: CEAR, 2019.

<sup>88</sup> MIGRAZIOEI BURUZKO IKERKETEN UNIBERTSITATE-ERAKUNDEA (IUEM). COMILLASEKO PONTIFIZE UNIBERTSITATEA. INTZIDENTZIA POLITIKO ETA AZTERLANEN ARLOKO TALDEA, UNICEF ESPAINIAKO BATZORDEA. *Son niños y niñas, son víctimas. Situación de los menores de edad víctimas de trata en España*. Bartzelona: Huygens argitaletxea, 2017.

<sup>89</sup> EUSKO JAURLARITZAREN ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. *Haur eta nerabeenganako indarkeria EAEn. Diagnostikoa, erronkak eta orientabideak*. Bilbo: EDE Fundazioa, 2019.

oztopo ere bada. Prozedura horrek odoljario larriak, gernu-arazoak, kisteak, infekzioak, erditzeko arazoak eta jaioberriak hiltzeko arriskua eragin ditzake<sup>90</sup>.

OMEren arabera, EGM emakume adingabeei egin ohi zaie, edoskitzarotik 15 urtera arteko tartean, eta kalkulatu da 200 milioi emakume eta neskatila baino gehiago izan direla EGMren biktima munduan. Migrazio-fluxuen ondorioz, praktika hori lehen praktikatu zen herrialdeetatik harago hedatu da.

Espanian, EGM lesio-delitua da Zigor Kodean, herritarren segurtasunean, etxeko indarkerian eta atzerritarren gizarteratzean neurri zehatzak jartzen dituen irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoan sartutako erreformaren arabera.

Azken hamarkadan, gure autonomia-erkidegoa beste herrialde batzuetatik datozen pertsonen migrazio-mugimenduen helmuga bilakatu da, besteren artean, Saharaz hegoaldeko Afrikatik datozenena, eta herrialde horietan identitate-erro sendoa du EGMk. 2016. urtean argitaratutako datuen arabera, jatorri horietako 4.890 emakume inguru bizi dira EAEn, eta horietatik 1.378 hamabost (15) urtetik beherako neskatok dira, hots, arriskuan dagoen populazio-taldea, eta azken urteotan nabarmen hazi da<sup>91</sup>. Zehazki, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi da EGM egiten den herrialdeetako biztanleen % 45; Arabako Lurralde Historikoan % 33; eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan % 22.

2018tik 2019ra bitartean, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak migrazioa baino lehen egindako 129 EGM kasu atzeman ditu Euskadin (67 kasu 2018an, eta 62 kasu 2019an), eta horietatik 21 hamalau urtetik (14) beherako neskatok dira<sup>92</sup>.

Emakundek 2016an egindako *Emakumeen genitalen mutilazioa Euskal Autonomia Erkidegoan*<sup>93</sup> izeneko diagnostikoan jasotakoaren arabera, EGM jasateko arriskuan dauden 14 urtetik beherako nesken kopuruak nabarmen egin du gora EAEn, eta, beraz, beharrezkoa da Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Hezkuntza Zerbitzuek prebentzio-mekanismoak abian jartzea<sup>94</sup>.

---

<sup>90</sup> OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEA (OME). Emakumeen genitalen mutilazioa, datuak eta zifrak [online]. 2020ko otsaila.

<sup>91</sup> Iturria: KAPLAN, A. eta LÓPEZ, A. *Mapa de la Mutilación Genital Femenina en España 2016*. Bartzelona: Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, 2017.

<sup>92</sup> OSAKIDETZA. Emakundek eta Osasun Sailak emakumeen genitalen mutilazioa eragozteko Euskadin hartutako prebentzio neurrien eraginkortasuna azpimarratu dute. 2020ko otsailaren 5a. Eskuragarri hemen: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/osakidetza-eus/-/albiste/2020/emakundek-eta-osasun-sailak-emakumeen-genitalen-mutilazioa-eragozteko-euskadin-hartutako-prebentzio-neurrien-eraginkortasuna-azpimarratu-dute/>

<sup>93</sup> EMAKUNDE-EUSKO JAURLARITZA. *Emakumeen genitalen mutilazioari aurrea hartzea, hezkuntza-esparruan*. 2016.

<sup>94</sup> EAEn modu koordinatuan sustatu da Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza Sailen eta Emakunderen arteko lana, aipatutako diagnostikoa eta Euskadiko osasun-sisteman jarduteko gomendioen eta printzipioen gida eginez. Hezkuntza Sailak ere argitaratu zuen gai horri buruzko gomendioen gida bat. Argitalpen horiek jarduteko jarraibideak eskaintzen dizkiete EGM praktikatu den herrialdeetako pertsonen laguntzen dieten eta haiekin elkarreragiten duten profesionalen, eta, era berean, adierazten dute edozein esku-hartzek estereotipo edo aurreiritzi estigmatizatzaileak baztertu behar dituela.

# ASKOTARIKO DISKRIMINAZIOA: ZER EGOERATAN JARRI BEHAR DA ARRETA BEREZIA?

Ezin da emakumeen aurkako indarkeria eta diskriminazioa gertaera bakar eta homogenez hartu. Egia da emakume guztiak daudela, neurri batean, genero-bereizkeriaren edo genero-diskriminazioaren kargen mende, baina egia da, halaber, emakumeen identitate sozialekin zerikusia duten beste faktore batzuk, hala nola klasea, kasta, arraza, kolorea, etnia, erlijioa, jatorri nazionala eta sexu-joera, «desberdinkeriak markatzen dituzten desberdintasunak» direla, emakume taldeek diskriminazioa jasaten duten moduari dagokionez<sup>95</sup>.

Hauek dira emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak zaugarriago egiten dituzten faktoreetako batzuk: etxebizitza bat edo baliabide ekonomikoak eskuratzeko zailtasunak izatea, adina, seme-alaba adingabeak izatea, laguntzeko sare sozialik ez izatea edo sare sozial negatiboa izatea, desgaitasun fisikoa edo psikikoa izatea, gaixotasun mentala izatea eta adikzioak. Horrez gain, emakume bati faktore batek baino gehiagok eragiten dion neurrian, handiago da haren zaugarritasuna<sup>96</sup>.

Atal honetan, hainbat diskriminazio-faktorek eragiten dieten eta berariazko beharrak dituzten emakume-kolektibo batzuei arreta berezia jartzera bultzatzen duten berariazko datuak eta gogoetak jaso ditugu.

## ADINA: neskatoak, nerabeak, emakume gazteak eta emakume helduak

Adina faktoreak bereziki eragiten du emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeen zaugarritasunean. Indarkeria-egoerei aurre egiteko moduekin zerikusia duen faktorea ere bada, eta, zalantzarik gabe, kontuan hartu behar da emakumeei zuzendutako prebentzio- eta esku-hartzeko ekintzak planifikatzeko.

Lehen ere esan dugunez, Ertzaintzak EAEn bildutako datuen arabera, 2019an indarkeria mota hau jasan duten emakumeen % 38,7k 30 urte edo gutxiago zituen, eta biktimen % 10,6 neska adingabeak ziren, hots, 18 urtetik beherako neskatoak.

Nerabeek eta neskatoek, batez ere, beren familia-eremuko gizonezkoek gauzatutako indarkeria jasaten dute: biktima guztien % 67,7 hamalau (14) urtetik beherakoa zen, eta 14 eta 17 urte bitartekoen % 34,3 familia-eremuko emakumeen aurkako indarkeriagatiko biktimizazioei dagozkie. Era berean, ohikoa da adin-talde horietako emakumeei sexu-erasoak egitea familia-eremutik kanpo: 14 urtetik beherako biktimen % 30,5ek eta 14 urtetik 17 urtera bitartekoen % 38,8k indarkeria mota hori jasan dute.

---


<sup>95</sup> NAZIO BATUAK. *Commission on the Status of Women Report on the forty-fifth session (6-16 March and 9-11 May 2001) Economic and Social Council Official Records*, 2001 Supplement No. 7 (E/2001/27-E/CN.6/2001/14).

<sup>96</sup> EDE FUNDAZIOA. *Adinaren aldagaia genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arloko esku-hartzean*. Bilbo: EDE Fundazioa, 2010.

Hala ere, ez da ahaztu behar nerabeek eta emakume gazteek ere bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria jasaten dutela. Azken urtean bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktimen % 33,8k hogeita hamar (30) urte edo gutxiago zituen, eta 14 urtetik 17 urtera bitarteko biktima nerabeen % 26,9ri bikotekideak edo bikotekide ohiak egin zien eraso.

2002. urtetik 2019. urtera bitartean EAEn bikotekideak edo bikotekide ohiak hildako emakumeen batez besteko adina 43 urte ingurukoa da, baina 30 urtetik beherako emakumeen kopurua handia da (% 23,91).

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ONDORIOZ 2002TIK 2018RA ERAILDAKO EMAKUMEAK, ADINAREN ARABERA. %a. EAE



Iturria: Emakunde

Bestalde, 50 urtetik gorako emakumeak Ertzaintzak 2019an erregistratutako emakumeen aurkako indarkeriaren biktima guztien % 14,1 dira, eta 65 urte edo gehiago dituztenak, % 4,2. Emakume horietako askok bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria jasaten dute: 51 urte eta 64 urte bitartekoen % 54k eta 65 urtetik gorakoen % 30,3k. Baina 65 urtetik gora, indarkeria mota ohikoena bikotekidea edo bikotekide ohi ez den familia-eremuko beste gizon batek gauzatzen duena da, gehienetan semeek: 2019an eraso egin dieten 65 urtetik gorako emakumeen % 64,9k jasan du indarkeria hori.

Etxeko Indarkeriari eta Genero Indarkeriari buruzko azken Estatistikak, 2019koak,<sup>97</sup> agerian utzi du, halaber, adin gutxiagoko eta adin handiagoko emakumeek arreta berezia merezi dutela, kasuen kopuruak gora egin duelako. Urte horretan, biktima kopuru handienak adin-tarte honetakoak izan ziren: 75 urtetik gorako emakumeen artean (% 25,0), eta 70 eta 74 urte bitarteko emakumeen artean (% 15,6). Aurreko urtean, biktima kopuruak adin-tarte hauetan egin zuen gora bereziki: 60 eta 64 urte bitarteko emakumeen artean (% 15,1), eta 18 eta 19 urte bitarteko emakumeen artean (% 10,9).<sup>98</sup>

2011n argitaratutako datuek, *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna* aztergai zuen azterlanekoak, agerian utzi dute indarkeria mota baten eta besteren prebalentzia adinaren arabera aldatzen dela. Izan ere, bikotekideen edo bikotekide ohiaren eremuko indarkeriaren prebalentzia handiagoa da 30 urtetik 39 urtera bitarteko emakumeen artean; badirudi familia-eremuko indarkeriak prebalentzia handiagoa duela 50 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeen artean; lan-eremuko indarkeria handiagoa da 40 urtetik beheragoko emakumeen artean; eta eremu sozial edo publikoan gauzatzen den indarkeriak 16 urtetik 29 urtera bitarteko emakume gazteen artean du intzidentzia handiena.

Txosten horretako datuen arabera, halaber, deigarria da emakume gazteen artean zer indize apalak hauteman diren adierazitako indarkerian, indarkeria ondorioztatutako edo teknikoko indizeekin alderatuta. Tasa horiek kalkulatzeko, emakumeek adierazle-sorta bati emandako erantzunak hartzen dira kontuan; adierazle horiek indarkeria-adierazpenei buruzkoak dira, baina emakumeek ez dituzte halakotzat hartzen beti.

<sup>97</sup> ESTADÍSTIKA INSTITUTU NAZIONALA (EIN): *Estadística de Violencia Doméstica y Violencia de Género (EVDVG)*, 2019. urtea. Madril: EIN, 2019ko maiatzaren 19a.

<sup>98</sup> ESTADÍSTIKA INSTITUTU NAZIONALA (EIN): *Estadística de Violencia Doméstica y Violencia de Género (EVDVG)*, 2018. urtea. Madril: EIN, 2018ko maiatzaren 28a.



Biolentzia teknikoko kasuen prebalentzia 29 urtetik beherako emakumeen artean bereziki handiagoa da batez besteko orokorrarena baino. Diferentziak bereziki nabarmenak *hauteman dira* «irainak, oihuak eta mehatxuak», «beste batzuen aurrean lotsagarri uztea», edo «haserretzen denean, emakumeak estimatzen duenaren kontra egiten du» egoeretan.

Horrezaz gain, ehunekoak handiak dira emakume talde horretan, alderdi hauei dagokienez: «zenbaitetan beldurra ematen dizu»; «errudun sentiarazten zaitu ez duzulako behar bezala zaintzen/ulertzen»; «ez dizu familia ikusten uzten edo harremanak izatea lagunekin, auzokoekin eta bestelako jendearekin»; «ordutegiak kontrolatzen dizkizu»; eta «telefonoa, posta edo sare sozialetan zer egiten duzun kontrolatzen dizu».

Bestalde, 65 urtetik gorako emakumeen kasuan, hauek dira ehuneko handienak dituzten indarkeria-egoerak: «presio egiten dizu sexu-harremanak izateko»; «dirua kentzen dizu edo ez dizu autonomiaz bizitzeko behar adina ematen» eta «sarritan edo batzuetan esaten dizu traketsa zarela».

**AZKEN URTEAN BIKOTEKIDEARENGANDIK EDO BIKOTEKIDE OHIARENGANDIK GUTXIENEZ INDARKERIA-EGOERA BAT BIZI IZAN DUTEN EMAKUMEAK, ADINAREN ARABERA. %a. EAE. 2011**

		GUZTI RA	16-29 urte	30-39 urte	40-49 urte	50- 64 urte	65 urte edo gehi- ago
ADIERAZITAKO INDARKERIA	BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN EREMUA	7,5	7,1	9,8	5,8	7,2	7,4
INDARKERIA TEKNIKO EDO ONDORIOZTATUA	Gutxienez egoera bat noizbait (1/23 edo gehiago)	8,5	11,8	10,2	7,5	8,2	6,2
	Gutxienez egoera bat maiz edo zenbaitetan (1/23 edo gehiago)	6,3	6,1	8,6	5	7,2	5
	Gutxienez egoera larri bat maiz edo zenbaitetan (1/15 edo gehiago)	5,7	5,7	7	4,6	6,2	5

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi diren 16 urteko edo gehiagoko emakumeak.

**KONTROL-IZAERAKO INDARKERIA PSIKOLOGIKOA  
AZKEN 12 HILABETEETAN, ADIN-TALDEEN ARABERA.  
%a. ESPAINIA, 2015**

	BAI	EZ	EE
16-19 urte	25,0	73,8	1,2
20-24 urte	19,2	79,8	1,0
25-29 urte	14,2	85,0	0,8
30-34 urte	10,1	89,4	0,6
35-39 urte	10,7	88,5	0,8
40-44 urte	8,3	90,6	1,0
45-49 urte	9,2	90,7	0,1
50-59 urte	7,4	91,7	0,9
60 urte edo gehiago	6,1	93,1	0,8
GUZTIRA	9,6	89,6	0,8

Iturria: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko 2015eko makroinkestak.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak 2015ean egindako azken makroinkestak<sup>99</sup> adierazten du 16 urtetik 24 urtera bitarteko emakume gazteek gainerako adineko emakumeek baino proportzio handiagoan pairatzen dutela kontrol-izaerako indarkeria psikologikoa. Izan ere, azken urtean emakume horien % 21,1ek pairatu du indarkeria hori; batezbestekoa, aldiz, % 9,6 ingurukoa da.

Iturri horrek berak jasotakoaren arabera, emakume gazteek (16 urtetik 24ra bitartekoek) adineko emakumeek (25 urtetik gorakoak) baino gutxiago salatzen dute genero-indarkeria: zehazki, lehen taldekoak % 17,3 dira, eta bigarren taldekoak, % 29,6.

<sup>99</sup> Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko 2015eko makroinkestak.

Emakume gazteen aurkako indarkeria aztertzen duten beste lan batzuek<sup>100</sup> ere ohartarazten dute adin-tarte horretako emakumeek zailtasunak izan ditzaketela indarkeria-egoera bizi dutela konturatzeko (mendekotasun afektiboa, egoera ukatzen dute, errua beren buruari botatzen diote, etab.). Beste faktore batzuen artean, horrek zerikusia du gazteen artean oso zabalduta dagoen «itxurazko» berdintasunaren pertzepzioarekin.

Beste modu batean esanda, diskriminazioaren aurreko alerta txikiagoa izan liteke gazteen artean, berdintasuna lortua dagoelako ustea dela eta. Gizonen eta emakumeen artean berdintasuna dagoelako ustea zabaldua izateak nahasmendua sortzen die neskei; izan ere, neskek ez dituzte erasoak eta jokabideak identifikatzen, eta, ondorioz, ez dute beren burua defendatzen horien aurrean. Zailtasun handiak dituzte beren portaeran izaten dituzten indarkeria-adierazpenak hautemateko, bai berdinen taldean zein harreman afektiboetan.

Hala ere, azterketek adierazten dute oraindik ere genero-rolak modu zurrunean bereizten direla gazteen eta nerabeen artean, eta ideia sexistek eta genero-estereotipoek gazteen artean irauten dutela.

Esate baterako, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak 2014an egindako azterlanean, *La evolución de la adolescencia española sobre la igualdad y la prevención de la violencia de género*<sup>101</sup> izenekoan, aditzera eman zen neska-mutil nerabeen % 30ek baino gehiagok iritzi hau duela: «Gizona, zenbat eta oldarkorrago, orduan eta erakargarriago». Gainera, mutilen % 30 inguruk eta nesken % 9k uste du «ondo dagoela mutilak neska askorekin iritetea», baina «neskek ezin dutela mutil askokin atera».

Iturri horrek berak ohartarazten du bai mutilek eta bai neskek hain muturrekoak ez diren tratu txarreko jarrerak normalizatu egiten dituztela (herritar helduen artean ere gertatzen da), eta jakitera ematen du maitemindua egotean jeloskortasuna sentitzea justifikatzen duten mezuak belaualdiz belaualdi transmititzen direla. Lau nerabetik ia hiruk (% 73,3), sexua edozein dela ere, pertsona heldu bati entzun diote noizbait «jeloskortasuna maitasunaren adierazgarri dela». Aholku hori askotan edo maiz entzun duten nesken ehunekoa % 35,8 da, eta mutilena, berriz, % 36,8.

Horren ildo beretik, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak 2017an *Genero Berdintasuna Lehen Hezkuntzan eta DBHn Euskadin*<sup>102</sup> azterlana egin zuen, eta ondorioztatzen denez, indar fisikoa eta abusua oraindik ere mutilei egotzen zaie, eta pertzepzio hori areagotu egiten da progresiboki, adinarekin batera. Eta samurtasuna, txera, sentsibilitatea eta leuntasuna oraindik ere gehiago egotzen zaie emakumeei gizonei baino.

Bestalde, emakume helduei buruz berariaz egindako azterlan batzuek kontuan hartu beharreko zenbait berezitasun aipatzen dituzte, adinez nagusiak diren emakumeek jasan ohi duten tratu txarra ulertze aldera. Askotan, aspaldidanik indarkeriazko istorioak bizi dituzten emakumeak dira, ekonomikoki mendekoak, isolamendu-maila handia izan dutenak edo dutenak, eta zailtasun handiagoak izan ditzakete indarkeria-harremanak amaitzeko. Gainera, genero-rol tradizionalak baldintzatzen dituzte bereziki, eta horrek zaildu egiten du bizi duten indarkeria-egoeraz jabetzea, eta, beraz, salaketak aurkezteko aukeraz jabetzea.

---

<sup>100</sup> CANTERA, ESTÉBANEZ eta VÁZQUEZ. *Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo*. Bilbo: Emakunde, Eusko Jaurlaritzak, 2009.

<sup>101</sup> GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. *La evolución de la adolescencia española sobre la igualdad y la prevención de la violencia de género*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa, 2014.

<sup>102</sup> HEZKUNTZA SAILA. IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO EUSKAL ERAKUNDEA. *Genero Berdintasuna Lehen Hezkuntzan eta DBHn, Euskadin*. Bilbo: 2017.

Hala, Comillasko Pontifize Unibertsitateak eta Luz Casanova fundazioak 60 urtetik gorako emakumeen aurkako bikotekidearen edo bikotekide ohiaren genero-indarkeriari buruz 2018an argitaratutako azterlanak<sup>103</sup> adierazten duenez, oraindik ere adineko emakumeen % 20k uste du bikote barruko tratu txarrak etxe barruan konpondu behar direla, eta horregatik ez dela salatu behar. Gainera, % 15ek uste du bikotean gertatzen diren tratu txarrek garrantzi txikia dutela, pasako direlako, eta % 11k dio bikotean dena barkatu behar dela, tratu txarrak barne.

*Adinaren aldagaia genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arloko esku-hartzean*<sup>104</sup> azterlanak adierazten du emakume helduen zein gazteen sozializazioan elementu komunak daudela, bizi dituzten indarkeria-egoeren pertzepzioan eta justifikazioan eragina dutenak: mendekotasuna, erasoen minimizazioa, egoerarekiko tolerantzia, bikoteko genero-roletan estereotipoak egotea eta emakumeek familia-egituraren barruan izan behar duten posizioa. Gainera, adin bateko eta besteko biktima diren emakumeek sentimendu berberak dituzte: lotsa, beldurra eta bakardadea.


Hala ere, adin-talde bakoitzak berezitasun batzuk ditu, eta, esan dugunez, horiek kontuan hartzea garrantzitsua da. Emakume helduei dagokienez, azterlanak dio «erlijio-sinesmenek askoz gehiago baldintzatzen eta zapaltzen zuen kultura batean hezi direla, emakumeek familian eta, oro har, gizartean zuten posizioan zuzenean eragiten zuen diktadura-garaian eta emakumea gizonaren zerbitzura eta esanetara zegoen garaian hezi zirela; beraz, beste egoera batzuekiko kontrastea ia nulua zen (...) Emakume heldu horiek gizonak emakumeak mendean hartu, kontrolatu eta umiliatzea ohikoa zen testuinguru batean hazi ziren».

«Emakume gazteen eta emakume helduen artean harremana hasteko moduan ere, hasierako uneari dagokionez, hauteman dira aldeak. Pertsona guztiek dute harreman iraunkor eta polita edukitzeko ilusioa norbaitekin harremanetan hasten direnean; hala ere, emakume heldu askorentzat ezkontzea familiaren etxetik irteteko modu bat edo oinaze ekonomikoak atzean uzteko modu bat zen, eta ez zuten gizon bat baino gehiago ezagutzeko aukera handirik, bikotearen ikuspegi praktikoagoa zegoen eta ez zen hain erromantikoa. Maitasuna eta bikote-harremana idealizatzeko joera handiagoa hauteman da belaunaldi berrien artean, eta emakume helduen kasuan, berriz, *irtenbiderik onena* bilatzea zen kontua».

---

<sup>103</sup> COMILLASEKO PONTIFIZE UNIBERTSITATEA ETA LUZ CASANOVA FUNDAZIOA. *La violencia de género en la pareja o en la expareja de mujeres mayores de 60 años*. Madril, 2018.

<sup>104</sup> EDE FUNDAZIOA. *Adinaren aldagaia genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arloko esku-hartzean*. Bilbo: EDE Fundazioa, 2010.

<b>30 urte bitarteko emakumeak</b>	<b>31-60 urte bitarteko emakumeak</b>	<b>60 urtetik gorako emakumeak</b>
Mitoz jositako maitasunaren ideia erromantikoa		Maitasunaren ideia erromantikoa gauditua
Oso maiteminduta hasi zuten harremana erasotzailearekin		Arauen alorreko faktoreak Pena- eta gupida-sentimenduak
Gizona, salbatzailea eta babeslea		Gizonaren kontzeptua; <i>ar nagusia</i> , familiaren hornitzaile eta babesle gisa
Berdintasanaren diskurtsoa, harremanean gertatzen den indarkerian parte-hartze aktiboagoa izatearen pertzepzioa		Figura maskulina jainkotua Sinesmen erlijiosoek, diktadurak eta frankismoak baldintzatutako eta zapal dutako kultura batean sozializatzea
Bizi duten indarkeria-egoeraz jabetzeko zailtasunak		Tratu txarren justifikazioa, leialtasuna eta «izan beharra» oinarri hartuta
Aldaketak familia-formatuan		Erruduntasun-sentimenduak familia-egitura tradizionala haustean
Erasotzailea aldatuko delako itxaropena		Indarkeriaren arrazoi-kausal espezifikoa: belaunaldi matxistagokoak izatea
Ez dago erasotzailea aldatuko delako itxaropena		
Erasotzailearenganako sentimendu amatiarra, eta pena- zein gupida-sentimenduak		
Asko gazte zirela hasi zen indarkeriako harremana		
Amatasunaren ideia nagusia da		
Familia nuklearra eta emakumeak familia horretan duen kokapen nagusia idealtzat hartzea		
Dena Emateko jarrera eta jokabideak, zaintzeko betebeharra, besteei atsegina ematekoa		
Indarkeriaren arrazoi-kausal antzekoak: kultura-desberdintasunak, erasotzailea bere haurtzaroaren eta nerabezaroaren biktima gisa hartzea, migrazio-prozesu mingarriak		

Iturria: EDE FUNDAZIOA. *Adinaren aldagaia genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arloko esku-hartzean*. Bilbo: EDE Fundazioa, 2010.

## JATORRIA: emakume migratuak eta emakume arrazatuak

Emakumeen jatorria edo emakumeak zein familiatakoak diren ere zaurgarritasun-faktore bat da, eta, gainera, beste faktore batzuekin bat egiten badu, hala nola emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izatea edo administrazio-egoera irregularrean egotea, horrek askotariko diskriminazio-egoerak eragin ditzake.

Emakume migratu batzuek migrazio-prozesu bereziak bizi izan dituzte, harrera-herrialdean duten erreferente bakarra erasotzailea delako, eta, beraz, ez dute laguntzarako sare sozialik. Gainera, administrazio-egoera irregularrean egon daitezke, edo lan egiteko baimena edo bizileku-baimena erasotzaileari lotuta egon daiteke, harrera-herrialdera familia berriz elkartzeko prozesu baten bidez iritsi badira. Egoera horiek eta beste hainbatek emakume horiek mendetasun-egoera handiagoa izatea eragite dute, eta erasotzaileak horietaz baliatzen dira emakumeak mendean hartzeko estrategia gisa.

Zenbait egilek azaldu dute ideia hori<sup>105</sup>, eta adierazi dute egoera irregularrean dauden emakume atzerritarren kolektiboa dela zaurgarrienetako bat. Kasu gehienetan, administrazio-erregulartasunik ezak eragiten du emakume horiek ekonomikoki erasotzaileen mende egotea, eta haiek hertsatzea. Gainera, egoera irregularrak sortzen duen segurtasun falta eta babesgabezia dela eta, emakume askok erabakitzen du salaketarik ez jartzea.

Genero-indarkeriako delitu baten biktima egoera irregularrean dagoen emakume etorkina bada, erasotzailearen inpuniate-arriskua areagotu egiten da, bai emakumeak babes-sistema ez duelako ezagutzen, eta bai atzerritartasunari buruzko legeriak berak dituen berezko zailtasunengatik<sup>106</sup>.

Horren inguruan, Eusko Jaurlaritzak egindako *Genero-indarkeriaren biktimak diren emakume etorkinei laguntzeko gomendioak*<sup>107</sup> txostenak zera dio: «Genero-indarkeriaren biktima diren emakume etorkinek askotan ez dituzte ematen tratatu txarren egoeratik irteteko beharrezko diren urratsak. Asko beldur dira eta haiek dira maizen sentitzen dituzten beldurrak: beren bikotekideek berriz bildutako emakumeen administrazio-egoera galtzea; beren haurrak berriro ezin elkartzea, baldin eta baimena senarraren esku badago; beren ezkontidea kanporatzea; erasotzailearen baimena izan gabe adingabeekin beren jatorrizko herrialdera bidaiatzeko aukerarik ez izatea... Aurrekoari gaineratu behar diogu jatorrizko herrialde askotan segurtasun juridikorik eza dagoela agirien izapideak egiteko edo arintzeko, etab., eta horrek konponbideak bilatzea galarazten du. Beldurrak are handiagoak dira administrazio-egoera irregularrean dauden emakumeentzat».

Lehen ere azaldu dugunez, gure autonomia-erkidegoan 2019an Ertzaintzak emakumeen aurkako indarkeria dela-eta erregistratutako biktimen artean, emakume atzerritarrak % 38,80 ziren, hau da, 2018an erregistratutakoa baino bi puntu gehiago (% 36,37).

---

<sup>105</sup> RUBIO VELASCO, Fuencisla. «La mujer inmigrante irregular víctima de violencia de género», in *Investigación y género. Inseparables en el presente y en el futuro: «Ikerketa eta generoa» IV. Unibertsitate Kongresu Nazionala*. Sevilla, 2012ko ekainaren 21a eta 22a, 1819-1830 or.

<sup>106</sup> CHOCRÓN GIRÁLDEZ, Ana María. «Víctimas extranjeras de violencia de género: derechos y medidas de protección», in *F. J. García Castaño eta N. Kressova. (koord.). Actas del I Congreso Internacional sobre Migraciones en Andalucía*. Granada: Migrazio Institutua, 2011; 2159-2167. or.

<sup>107</sup> EUSKO JAURLARITZA. Genero-indarkeriaren biktimak diren emakume etorkinei laguntzeko gomendioak. Vitoria-Gasteiz: Herrizaingo Saila, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Baina, atzerrian jaiotako emakumeak EAEko emakume biztanleen % 7,24 direnez<sup>108</sup>, datuek erakusten dute emakumeen aurkako indarkeriaren prebalentzia handiagoa dela atzerrian jaiotakoen artean. Hain zuzen ere, 2019an, Espainiako Estatuan jaiotako 1.000 emakumetik 2,56k indarkeria jasan zuen; aldiz, atzerrian jaiotako 1.000 emakumetik 20,91k.

Ildo horretatik, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak *2015ean egindako makroinkestak*<sup>109</sup> egiaztatu du nabarmen handiagoa dela Espainiatik kanpo jaio eta beren bikotekideengandik edo bikotekide ohiengandik indarkeria fisikoa, sexuala edo beldurra pairatu izana adierazten duten emakumeen proportzioa (% 27,7), Espainian jaiotako emakumeena baino (% 14).

Azaldutakoaren harira, emakume atzerritarrek intzidentzia- eta prebalentzia-tasa handiagoak izateak zerikusia izan dezake zaugarritasun sozial, emozional eta ekonomiko handiagoa dakarkien zenbait faktore kultural eta sozialekin; besteak beste, hauekin: indarkeriaren gaineko pertzepzio desberdina izatea; hizkuntzarekin zailtasunak izatea, eta hori oztopo izan daiteke gizarteratzeko, laneratzeko edo independentzia sozio-afektiborako; harrerako herrialdeetan laguntzako gizarte-sararik ez izatea; ingurunea ez ezagutzea; eta informazio eta laguntzako baliabideetarako sarbide murriztagoa izatea.

---

<sup>108</sup> Iturria: EIN. Errolda Jarraituaren Estatistika. Behin betiko datuak, 2019.

<sup>109</sup> Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa *Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko 2015eko makroinkesta*.

## DESGAITASUNA: desgaitasuna eta gaixotasun mentala duten emakumeak

Indarkeria matxistaren aurrean emakumeek duten zaugarritasun handiagoan eragiten duten faktoreen artean, desgaitasuna eta gaixotasun mentala nabarmentzen dira. Izan ere, erasotzaileak biktimei kontrol handiagoa egin diezaieke, emakumeen muga eta gaitasun horiek tarteko; bestalde, kontuan izan behar da laguntza beharrean egon daitezkeela emakume horietako batzuk. Bereziki zaugarria da desgaitasun oso handiak eta ikasteko eta komunikatzeko arazoak dituzten emakumeen egoera.

Desgaitasuna duten emakumei buruz Europako Parlamentuak 2013. urtean egindako txostenak zioenez<sup>110</sup>, «*desgaitasuna duten emakumeek abusuen biktima izateko duten probabilitatea 1,5 eta 10 aldiz handiagoa*» da, eta «*edozein motatako genero-indarkeriaren biktima izateko arrisku handiagoa*» dute.

Zehazki, azterlan batzuen arabera, desgaitasunak dituzten emakumeek indarkeriazko jokabideak pairatzeko arrisku berezia dute edo egoera zaugarriagoan daude, gizartean bizi duten bakartasuna dela-eta, nagusiki. Hauek dira maiz aipatzen diren arrazoietakoa batzuk:

- zaugarritasunaren pertzepzio handiagoa izatea (hirugarrenen laguntza eta zaintzarekiko mendekotasun handiagoa izateagatik);
- sufritutako tratu txarrak adierazteko zailtasun handiagoa izatea (komunikazio-arazoengatik eta pertsona horiek gizartean duten sinesgarritasun faltagatik);
- genero-indarkeriaren biktima diren emakumei informazioa eta aholkua emateko lekuetara joateko zailtasunak izatea (lekuak egokitu gabe egoteagatik eta oztopo arkitektonikoengatik eta komunikatzeko zailtasunengatik);
- autoestimua txikia izatea (garapen pertsonal integrala izateko aukera-faltagatik);
- gizartean bakartuta geratzea eta mendekotasun ekonomikoa izatea (lan ordainduak izateko eta sozializazio-guneetara iristeko aukera faltagatik);
- tratu txarrak salatze beldurra izatea (eta, ondorioz, lotura afektiboak eta zainketak galtzea, dibertsitate funtzionala duten emakumei egokitutako erantzun-faltagatik); eta abar.

Gainera, desgaitasunen bat duten emakumeek edozein indarkeria mota jasateko arrisku handiagoa dute desgaitasunen bat duten gizonek baino, edo emakumeak oro har hartuta baino; izan ere, emakume horiei aukera gutxiago eskaini zaie, eta, ondorioz, hezkuntza-maila apalagoa izaten dute, lanean hasteko aukera gutxiago, eta, beraz, mendekotasun ekonomikoa handiagoa, garapen pertsonal txikiagoa eta gizarte-bakartze handiagoa, besteak beste.

2014ko *Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika, (GZEE) Gizarte Premiei buruzko Inkesta*<sup>111</sup> (GPI) lanaren arabera, 44FP, EAEko emakumeen % 11,5ek du mendekotasun edo mugapenen bat. Hala ere, genero-indarkeriari dagokionez, emakume horien errealitatea oso gutxi aztertu da autonomia-mailan.

<sup>110</sup> EUROPAKO PARLAMENTUA. EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ETA GENERO-BERDINTASUNAREN BATZORDEA. Desgaitasuna duten emakumei buruzko txostena, 2013.


<sup>111</sup> ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. Zerbitzu Zuzendaritza. *Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika / Gizarte Premiei buruzko Inkesta (GZEE-GPI) 2014.*

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak 2015ean egindako makroinkesta<sup>112</sup> da eskuragarri dagoen iturri bakanetako bat. Zenbait muga dituen arren (desgaitasun-ziurtagiria duten emakumeak baino ez baititu kontuan hartzen)<sup>113</sup>, lehen hurbilpen bat da, eta datu interesgarriak ematen ditu.

**Desgaitasunak dituzten emakumeak gainerakoak baino zaurgarriagoak dira, eta indarkeria mota hori pairatzeko arrisku handiagoan daude.**

Inkesta horren arabera, desgaitasuna duten emakumeek gainerako emakumeek baino indarkeria-prebalentzia handiagoa dute, bai orain, bai bizitzan zehar. Zehazki, % 33ko edo gradu handiagoko desgaitasunen baten ziurtagiria duten emakumeek (% 23,3) adierazten dute desgaitasunik ez duten emakumeek baino (% 15,1) neurri handiagoan pairatu dutela indarkeria fisikoa, sexuala edo beldurra beren bikotekideengandik edo bikotekide ohiarengandik.

**INDARKERIA FISIKOA, SEXUALA EDO BELDURRA PAIRATU DUTEN EMAKUMEAK, AITORTUTAKO DESGAITASUNIK DUTEN ALA EZ AINTZAT HARTUTA. %a. ESPAINIA. 2015**



Iturria: Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2015. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.

Edozein dela ere indarkeria mota, prebalentzia handiagoa da desgaitasuna duten emakumeen artean. Adibidez, desgaitasuna duten emakumeen % 16,8k noizbait indarkeria fisikoa jasan du bikotekideren batengandik, eta desgaitasunik gabeko emakumeen artean, % 10,4k. % 14,7k sexu-indarkeria jasan du (desgaitasunik gabeko emakumeen % 8,1ek) eta % 19,9k aitortu du bere bikotekidearen beldur izan dela (desgaitasunik gabeko emakumeen % 13,1ek).

**GENERO-INDARKERIA MOTEN PREBALENTZIA, BIKOTEKIDEREN BATENGANDIK BIZITZAN ZEHAR, DESGAITASUNA DUTEN EDO EZ DUTEN EMAKUMEENGAN. %a. ESPAINIA. 2015**

INDARKERIA MOTA	DESGAITASUNA	
	Bai	Ez
Fisikoa	16.8	10.4
Sexuala	14.7	8.1
Psikologikoa-kontrola	30.6	26.1
Psikologikoa - emozionala	31.5	22.3
Beldurra	19.9	13.1
Ekonomikoa	18.5	10.8

Iturria: Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2015. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.

Deigarria da desgaitasuna duten emakumeen % 7,1ek beldur diola egungo bikotekideari, prebalentzia hori % 2,7koa baita desgaitasunik gabeko emakumeen artean.

<sup>112</sup> Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa *Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko 2015eko makroinkesta*.

<sup>113</sup> Gainera, inkesta horretan, desgaitasuna duten emakumeen lagina (% 4,5) benetan kalkulatu den ehunekoa baino txikiagoa da (Espainiako emakumeen % 10 inguru). Horrez gain, informazio-bilketa eta erabilitako tresnak ez daude egokitu zenbait desgaitasun dituzten emakumeek parte hartu ahal izateko, hala nola desgaitasun intelektuala dutenek, entzumen-desgaitasuna dutenek, desgaitasun sakona dutenek, erakundeetan bizi diren emakumeek... eta abar.



Gainera, kezkarria da indarkeria larria jasan duten emakumeen ehunekoa, desgaitasuna duten emakumeen artean: zehazki, % 12. Desgaitasunik gabeko emakumeei dagokienez, berriz, ia erdia da (% 6,4).

Azterlan batzuetan, *Estudio sobre Violencia de Género en Mujeres con Discapacidad Física y/o Sensorial en Granada*<sup>114</sup> esaterako, adierazten da ikusmen-desgaitasuna edo desgaitasun fisikoa duten emakumeek bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren prebalentzia handiagoa dutela beste desgaitasun mota bat (esaterako, entzumen-desgaitasuna) duten emakumeek baino.

Sexu-indarkeria gertatzeko probabilitatea ere handiagoa da desgaitasuna duten emakumeen artean. *Europako Parlamentuaren txostena, talde minoritarioetako emakumeen egoerari buruz*<sup>115</sup> txostenaren arabera, emakume horiek gainerako emakumeek baino lau aldiz arrisku handiagoa dute sexu-indarkeria jasateko. Horri buruzko azterlanetan ohartarazten dute desgaitasun intelektuala edo gaixotasun mentala duten emakumeak zaurgarriagoak direla indarkeria mota horrekiko.

Bereziki aipatzekoak dira gaixotasun mentala duten emakumeak; izan ere, erakunde<sup>116</sup> eta azterlan<sup>117</sup> batzuetan adierazten denez, gaixotasun mental larria duten eta inoiz bikotekidea izan duten emakumeen % 80k indarkeria jasan du bikotekide horrengandik, eta ohikoena indarkeria psikologikoa izaten den arren, indarkeria fisikoa eta sexuala ere askotan gertatzen dira: erdiak baino gehiagok indarkeria fisikoa jasan du, eta % 40k baino gehiagok, sexu-indarkeria. Deigarria da, halaber, bizi izandako indarkeria beti ez dela halakotzat jotzen, eta kasuen erdietan emakumeak Osasun Mentaleko Sarean duen erreferentziako profesionalak ez duela tratatu txarren berri izaten.

Bestalde, gure erkidegoan arazoaren norainokoa identifikatzeko daturik ez dagoen arren, emakumeen aurkako indarkeriaren gaietarako Nazio Batuen Errelatore Bereziak ugalketa-osasuneko zerbitzuetan emakumearen aurka izandako tratatu txarrei eta indarkeriari buruzko txostenean adierazten duenez, desgaitasuna duten emakume eta neskek aukera gehiago dituzte sexu- eta ugalketa-eskubideak arriskuan izateko, osasun-arretan eta osasun-lanbideekiko harremanetan.

Esterilizazio behartua eta abortu behartua delituak dira, eta biak ala biak emakumeen aurkako indarkeria dira (Emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak, Istanbulen Hitzarmena ere esaten zaionak, berriaz debekatzen ditu biak; Emakumeen aurkako diskriminazio modu guztiak desagerrarazteari buruzko Konbentzioak eta giza eskubideei buruzko Nazio Batuen beste tratatu batzuek, berriz, inplizituki debekatzen dituzte, eta emakumeen ugalketarako giza eskubideak babesten dute), baina mundu osoan baimen informaturik gabe egiten diren tratamendu medikoak dira.

«Desgaitasuna duten emakumeek eta neskatok beren identitateko hainbat alderditan oinarritutako diskriminazioa jasaten dute, eta alderdi horiek, besteak beste, generoa eta desgaitasuna dira. Askotan asexualtzat edo sexualki ez-aktibotzat hartzen dira. (...) Ohikoa da

<sup>114</sup> AUKERA-BERDINTASUNEN UDAL-ARLOA. *Estudio sobre violencia de género en mujeres con discapacidad física y/o sensorial en Granada*. Granada: Granadako Udala, 2011.

<sup>115</sup> EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ETA GENERO-BERDINTASUNAREN BATZORDEA- EUROPAKO PARLAMENTUA. *Europako Parlamentuaren txostena, talde minoritarioetako emakumeen egoerari buruzkoa*. 2004.

<sup>116</sup> FEDEAFES. *Guía-Investigación sobre violencia contra las mujeres con enfermedad mental*, 2017.

<sup>117</sup> GONZÁLEZ F., GONZÁLEZ J.C., LÓPEZ M., OLIVARES D., POLO C., RULLAS M. «Violencia familiar y de pareja hacia las mujeres con trastorno mental grave» in *Norte de salud mental*, 2013, XI. liburukia, 45. zk., 23-32 or.

desgaitasuna duten neskei eta gazteei presioa egitea haurdunaldiak eten ditzaten, seme-alabak hazteko gaitasunari buruzko estereotipo negatiboak direla eta, eta desgaitasuna duen haur batez erdituko diren kezka eugenesikoa dela eta»<sup>118</sup>.

Desgaitasuna duten neskatoen eta emakumeen aurkako indarkeriak gainerako emakumeen aurkako indarkeriaren ezaugarri berak ditu, baina baditu, baita ere, zenbait ezaugarri espezifiko, eta indarkeria horren biktimei arreta ematen dieten pertsonak ezagutu eta kontuan hartu behar dituzte, arreta egokia eman eta egoera horiek prebenitu ahal izateko.

Desgaitasuna duten emakumeenganako indarkeria-egoerak ere gertatzen diren beste eremu batzuei dagokienez, *Desgaitasuna duten Iruñeko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko diagnostikoa*<sup>119</sup> indarkeria instituzionala esaten zaiona aipatzen da, emakumeen aurkako indarkeria motetako bat den aldetik. Indarkeria hori erakundeek erabiltzen dute, dela lege-eginduen eta ezarritako baldintzen arabera ez zaielako arreta egiten, dela haien aurkako indarkeria-egoerak behin azaldutakoan, emakume horiek berriro biktimizatzen dituztelako, izan instituzioetan, izan zerbitzu judizialean edo izan genero-indarkeriaren biktimentzako administrazio publikoek dituzten harrerako baliabideetan.

Desgaitasuna duten emakume batzuen mendekotasun-egoerek beste indarkeria modu batzuk ere eragiten dituzte, desgaitasunik gabeko emakumeen artean horren ohikoak ez direnak: adibidez, zaintzarekiko ukoa edo umiliazio-egoera larriagoak. Emakumeak zaurgarriago izateko bide ematen dio erasotzaileari emakumeekiko botere handiagoa duela sentitzeko, eta indarkeria gogorrago eta maizago erabiltzeko legitimazioa duela pentsatzeko.

Desgaitasuna duten emakumeen ahultasun-egoerak eta ahalduntze-defizit bereziak, askotan, emakume horiek biktimizazio-prozesua bi aldiz bizitzea eragiten du, eta beste emakume batzuek bizi duten prozesuarekin alderatuta ezaugarri bereizgarriekin: bereziki, bigarren mailako biktimizazioa esaten zaiona bizi dute, indarkeriaren ibilbideetatik (polizia, osasun-zentroak, epaitegiak, epaiketak, emakumearen zentroak, lege-aholkularitza eta abar) igaro ondorengo bizipenek eragindakoa.

Emakume askori desgaitasuna izateagatik sinesgarritasun gutxiago ematen zaie, eta horrek are larriago egiten ditu aipatutako ondorioak. Hori guztia are larriago bilakatzen da: batetik, irisgarritasun unibertsalaren eskasiaren ondorioz, askotan gertatzen baita indarkeriaren biktimea diren emakumeei laguntzeko instalazioetan, gailuetan eta baliabideetan; eta bestetik, desgaitasuna duten pertsonetako tratuan edo laguntzan prestakuntza espezializatua duten langileen eskasiaren ondorioz, laguntza-behar ugari dituztela aintzat hartuta.

---

<sup>118</sup> CERMI MUJERES fundazioa. Artikulua, [online] hemen eskuragarri: <https://www.cermi.es/es/actualidad/noticias/cermi-mujeres-emplaza-los-sistemas-de-salud-y-las-profesiones-sanitarias-no>

<sup>119</sup> COCEMFE NAVARRA eta Iruñeko Udala. <http://www.infocop.es/pdf/VGyDiscapacidad2016.pdf>

## BAZTERKETA: bazterketa-egoeran edo bazterketa-arrisku larrian dauden emakumeak

Indarkeria diru-sarrera maila guztietako etxeetan gertatzen da, eta horrek esan nahi du diru-sarrera handia edukitzeak ez duela indarkeria eragotzen; baina baliabide ekonomiko eta sozial handiagoak edo txikiagoak eskura izatea nolabait lotuta dago indarkeriaren intzidentziarekin.

Bizilekurik ez duten pertsonen buruz berriki egin diren azterlanetan azpimarratzen denez, etxerik ez duten emakumeen errealtatea ezkutuan utzi da urte askotan, eta horrek ondorioak ekarri ditu esku-hartzeko politikan, emakumeen behar eta bizipen zehatzetara egokitu ez direlako. Egia da etxerik ez duten gizonen kopurua emakumeena baino askoz handiagoa dela; baina kontuan izan behar da egoera horretara faktore desberdinek bultzatzen dituztela gizonak eta emakumeak, eta etxerik ez izatearen ondorioak ere ezberdinak dira gizona ala emakumea izan. Emakumeen kasuan, genero-indarkeriak markatutako esperientziak eragin handia daukate etxerik ez izatean, bai faktore eragile gisa, bai ondorio gisa.

*EAEEn bizitegi-bazterketa larrian dauden egoerari buruzko IV. azterketa 2018.*<sup>120</sup> azterlaneko datuen arabera, 3.000 pertsona inguru bizi dira kalean edo egoitza-baliabideetan (2016an egindako aurreko azterlanean baino 1.000 lagun gehiago). Azterlanean jasotakoaren arabera, gero eta emakume gehiago daude aitortutako bizitegi-bazterketa larriko egoeran: 2012tik 2018ra bitartean emakumeen kopuruak % 87 egin du gora (indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako baliabide espezifikoak barne), eta gizonen kopuruak, berriz, % 22 egin du gora urte-epe berean.

Bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden emakumeen kopurua gero eta handiagoa da «etxegabeen» artean, baina ez «aterpe gabeen» artean. Beste modu batera esanda, azken 6 urteetan emakumeen kopuruak gora egin du ostatu ematen duten zerbitzuek arreta handiagoa eman dutelako, baina ez kalean bizi diren emakumeen edo aterpeetan edo gaueko harrerarako zentroetan gaua ematen duten emakumeen kasuan.

Azterlan horren arabera, egoitzarik ez izateko egoerak sortzen dituzten kausak, gizonen kasuan (% 68,8) faktore egiturazkoak izaten dira batez ere (lan-arloko arazoak, arazo ekonomikoak...). Emakumeei dagokienez, ordea, kausa nagusiak faktore erlazionalak dira (% 57,4, eta gizonen kasuan, berriz, % 24,6): familia-arazoak, bikotearekiko haustura (% 42,2) eta emakumeen aurkako indarkeria (% 28,4)

Beste azterlan batzuetan<sup>121</sup> ere adierazten da genero-indarkeria eta trauma emozionalak sarritan agertzen direla etxerik ez duten emakumeen biografietan. Banantzeak eta bikotekideen arteko auziak, bai eta abusu-bizipenak, familia-eremuko indarkeriak eta genero-indarkeriak ere jo izan dira emakumeak bizilekurik gabe geratzea eragiten duten faktore garrantzitsutzat.

Hortaz, esan daiteke emakumeen aurkako indarkeria etxegabeko egoera eragin dezakeen faktore bat izateaz gain, beste arazo batzuk gehituz gero, hala nola osasun mentaleko arazoak, narriadura fisikoa eta droga-kontsumoa, emakumeen aurkako indarkeriaren prebalentzia handiagoa izatea eragin dezakeela.

<sup>120</sup> GIZARTE-ZERBITZUEI ETA POLITIKA SOZIALARI BURUZKO DOKUMENTAZIO- ETA IKERKETA-ZENTROA (SIIS). *EAEEn bizitegi-bazterketa larrian dauden egoerari buruzko IV. azterketa (2018)*. Donostia: SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. 2020.

<sup>121</sup> EMAKUNDE. *EAEko egoitza-bazterkeria larria genero-ikuspegitik*. 2016.

EAEEn bizitegi-bazterketa larrian dauden egoerari buruzko 2018ko azterlan horren arabera, kalean lo egin beharrak arrisku-egoera gehiago edukitzea eragiten die emakumeei, eta kalkulatu da kalean lo egin duten emakumeen % 23,4k sexu-indarkeria jasan duela (gizonen kasuan, % 2,1ek). Horrez gain, kalkulatu da emakumeen % 27,6k eraso fisikoak jasan dituela (gizonen % 20k), % 41,4k irainak edo mehatxuak (gizonen % 35,5k) eta emakumeen % 41,4ri dirua edo ondasunak lapurtu dizkiotela (gizonen % 36,8ri).

**INOIZ KALEAN BIZI IZAN DIREN PERTSONEN BANAKETA, JASAN DITUZTEN DELITUEN ARABERA, SEXUKA %. EAE. 2018**

DELITUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK
Irainak edo mehatxuak	% 35,5	% 41,4
Diru- eta ondasun-lapurreta	% 36,8	% 41,4
Eraso fisikoak	% 20,0	% 27,6
Sexu-erasoak	% 2,1	% 23,4

Iturria: SIIS. EAEEn bizitegi-bazterketa larrian dauden egoerari buruzko IV. azterketa.2018.


Zaurgarritasun handiagoko egoera horiek direla eta, kalean bizi ordez beste aukera batzuk bilatu behar izaten dituzte emakumeek (aldian-aldian senideen etxean bizi...), eta, beraz, zaila izaten da etxegabeko emakumeen benetako kasuak kontabilizatzeko.

# HERRITARREK EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN GAINEN DUTEN PERTZEPZIOA

Europako Batzordeak 2016an emakumeen aurkako indarkeriari buruz egindako 449. Eurobarometro Bereziaren<sup>122</sup> datuen arabera, herritarrek, bai EB 28koek bai Espainiakoek, argi eta garbi dakite beren herrialdean emakumeen aurkako indarkeria-arazoak daudela<sup>123</sup>. Horrela, EBn, % 74k dio emakumeen aurkako indarkeria ohikoa edo oso ohikoa dela, eta ehuneko horrek % 85 egiten du Espainiaren kasuan.

**Zenbateraino kezkatzen gaitu arazo honek?** Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) 2019ko martxoko barometroan argitaratutako datuen arabera<sup>124</sup>, Espainiako biztanleek emakumeen aurkako indarkeriari buruz duten kezka inoizko handiena 2019ko martxoan eta abenduan izan da, galdetegien % 7,9tan agertu baita. Barometro horretan jasotako datuek adierazten dutenez, emakumeen aurkako indarkeria Espainiak duen hamaikagarren arazoa da.

GENERO-INDARKERIARI BURUZKO PERTZEPZIOA: ESPAINIAKO ARAZO NAGUSIETAKO BAT. %a, Espainia 2019



Iturria: Ikerkuntza Soziologikoen Zentroa (CIS). Espainiako arazo nagusiei buruzko pertzepzioa

Euskadin, Barometro horren emaitza espezifikoez adierazten dute EAEn are handiagoa izan daitekeela gai horrekiko kezka. Iturri horrek jasotako datuen arabera, elkarriketatutako pertsonen % 17,4k adierazi du emakumeen aurkako indarkeria arazo nagusietako bat dela, eta herrialdeko bosgarren arazotzat hartu da.

**Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-maila ona al da?** Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak *Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: herritarren pertzepzio eta iritziak* azterlana egin zuen 2015ean.<sup>125</sup> Azterlan horretan esaten denez, EAEko herritarrek 6,4 punturekin balioesten dute EAEko gizonen eta emakumeen artean dagoen berdintasun-maila (10 puntu dira guztira; eskala teoriko batean, erabateko desberdintasun-egoera 0 puntu litzateke, eta erabateko berdintasuna, 10 puntu). Berdintasunaren gaineko pertzepzio hori

<sup>122</sup> EUROBAROMETROA. *Special Eurobarometer 499. Gender-based violence. November 2016. Europar Batasuna, 2016. Eskuragarri hemen: [https://data.europa.eu/euodp/data/dataset/S2115\\_85\\_3\\_449\\_ENG](https://data.europa.eu/euodp/data/dataset/S2115_85_3_449_ENG)*

<sup>123</sup> Eurobarometroak genero-indarkeriaren kontzeptu zabalera erabili zuen, non sartzen baitira «etxeko indarkeria, sexu-jazarpena, sexu-indarkeria, ziberjazarpena eta beste praktika kaltegarri batzuk».

<sup>124</sup> CIS. IKERKETA SOZIOLOGIKOEN ZENTROA. *2019ko martxoko makrobarometroa*. 2019ko Hauteskunde Orokorren aurrekoa.

<sup>125</sup> EUSKO JAURLARITZAKO PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA. *Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: herritarren pertzepzio eta iritziak*. Vitoria- Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza, 2015eko maiatza.

2011n egindako kontsulta batean azaldutakoarekin konparatuz gero, ikusten da handitu egin dela gizarte berdintze batean bizitzearen ustea (puntuazioa 6,4 da orain, eta 2011n, 5,6).

Azterlan horren emaitzek adierazten dute gizonezkoek joera handiagoa dutela berdintasun-maila «handiak» hautemateko (7-10 arteko puntuazioak). Horrezaz gain, alderantzizko harremana dago adinaren eta berdintasun-pertzepzioaren artean: adinean gora egin ahala, orduan eta txikiagoa da emakumeen eta gizonen artean berdintasun-maila «handiak» daudela uste duten pertsonen proportzioa. Batez ere gazteenek (18 urtetik 29 urtera bitartekoek) uste dute EAEn berdintasun-maila «handiak» daudela emakumeen eta gizonen artean. Bestela esanda, gazteek gainerako herritarrek baino desberdintasun txikiagoa antzematen dute emakumeen eta gizonen artean, eta emakumeek gizonezkoek baino desberdintasun-pertzepzio handiagoa dute.

**Gazteek gainerako herritarrek baino desberdintasun txikiagoa antzematen dute emakumeen eta gizonen artean, eta emakumeek gizonezkoek baino desberdintasun-pertzepzio handiagoa dute.**

Estatu-mailan, *Sexu-indarkeriaren gaineko pertzepzio soziala*<sup>126</sup> argitaratu zuen 2018an Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioak. Azterlan horretan adierazten denez, Espainian bizi diren 16 urtetik gorako herritarren % 68,7k uste du desberdintasun *nahiko handiak edo oso handiak* daudela gizonen eta emakumeen artean; % 28,8k, berriz, uste du desberdintasun horiek txikiak direla edo ia hutsalak.

Gizonek eta emakumeek gai horren inguruan emandako erantzunetan ere alde handiak daude: emakumeen % 79,5ek dio Espainian genero-desberdintasunak nahiko handiak edo oso handiak direla, eta gizonei dagokienez, berriz, % 57,3k esan du hori hala dela. Era berean, genero-desberdintasunak txikiak edo ia hutsalak direla uste duten gizonen ehunekoa (% 40,3) hala uste duten emakumeen ehunekoaren halako bi baino handiagoa da (% 17,8).

Txosten horretan esaten denez, emakumeen % 73 eta gizonen % 60 ez datoz bat baieztapen honekin: «*Emakume askok esajeratu egiten dute indarkeria matxistaren arazoa*». Sexuka, emakumeen % 46,7 erabat kontra dago baieztapen horrekin; aldiz, kontra dauden gizonak % 28,3 baino ez dira. Beren burua ezkerreko ideologiaren barruan kokatzen dutenek gainerakoek baino adostasun-maila handiagoa dute ideia horrekin, eta ikasketa-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan ere gora egiten du adostasun-mailak.

Azken urteetan, handiagoa da inguruko indarkeria kasuen ezaguera. Herritarren % 27k dio ezagutzen duela bikote-harremanean tratatu txarrak pairatu dituen emakumeren bat bere familian, lagunaren artean, auzoan edo beste ingururen batean, eta % 28k dio ezagutzen duela emakumeren bati tratatu txarrak eragin dizkion gizonezkoen bat. 2004an, pertsonen % 18k ezagutzen zuen indarkeria mota hori pairatutako emakumeren bat.

2018an Prospekzio Soziologikoen Kabineteak *Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko balioak*<sup>127</sup> gaiari buruzko beste txosten bat argitaratu zuen, eta han jasotakoaren arabera, herritarren % 72 guztiz ados dago baieztapen honekin: *Berdintasuna bultzatzea garrantzitsua da gizarte justu eta demokratikoa ziurtatzeko*. Badirudi emakume gehiago dagoela ados baieztapen horrekin gizonak baino (% 76 eta % 69, hurrenez hurren). Nabarmenezkoa da,

<sup>126</sup> GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *Sexu-indarkeriaren gaineko pertzepzio soziala*, 25. zk. Madril: Presidentetza, Gorteekiko Harremanak eta Berdintasun Ministerioa, argitalpen-zentroa, 2018.

<sup>127</sup> EUSKO JAURLARITZAKO PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA. *Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko balioak*. Vitoria- Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza, 2018ko maiatza.

halaber, baieztapen horrekin gutxien bat egiten duen taldea 65 urtetik gorakoena dela (% 58 dago guztiz ados).

EAEko herritar gehienek iritziz (% 77), gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-egoera aldatzen ez den bitartean iraungo du emakumeen aurkako indarkeriak. Zehazki, EAEn bizi diren 18 urtetik gorako herritarren % 41 oso ados dago baieztapen honekin: «*Emakumeen aurkako indarkeriak bere horretan jarraituko du, harik eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-egoera aldatzen ez den arte*»; eta % 36 nahiko ados dago esaldi horretan adierazten denarekin.

Oro har, emakume gehiago dago ados baieztapen horrekin; izan ere, emakumeen % 45 oso ados dago, eta gizonezkoek dagokionez, berriz, % 37. Adinari erreparatuz gero, datuek adierazten dute zaharragoek gazteagoek baino indar handiagoz onesten dutela adierazpen hori. Izan ere, adierazpen horrekin oso ados daudenak % 46 dira 46 urtetik 64 urtera bitarteko artean, eta % 43 inguru, 65 urtetik gorako artean. Ehuneko horiek txikiagoak dira, ordea, gazteagoen artean; zehazki, 18 urtetik 29 urtera bitarteko artean % 39 dago oso ados, eta 30 urtetik 45 urtera bitarteko artean, % 36.

### Zer gaitzespen-maila erakusten dugu emakumeen aurkako indarkeriarekiko?

*Genero-indarkeriaren gaineko pertzepzio sozialari buruz*<sup>128</sup>. CIS erakundeak 2012an egindako azterlaneko datuen arabera, galdetu zitzaizen pertsonen ehuneko handi batek uste du gizon batek bere bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurka gauzatutako indarkeria guztiz onartezina dela (% 92), baina % 5,3k dio saihetsezina dela, eta % 1,7k inguruabar jakin batzuetan onargarria dela.

Emaitzek adierazten dute emakumeek joera handiagoa dutela legeak indarkeria-egoera horiek beti zigortu behar dituela pentsatzeko (% 92), gizonezkoek baino (% 88). Adinari dagokionez, 65 urtetik gorakoek gainerako guztiek baino joera apalagoa dute legeak indarkeria mota hori beti zigortu behar duela esateko (% 86).

EAEn, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2015ean egin zuen azterlaneko datuek erakusten dutenez, EAEn bizi eta 18 urte baino gehiago dituzten pertsonen % 90ek adierazi du guztiz onartezina dela emakumeen aurkako indarkeria, eta uste du legeak beti zigortu behar dituela indarkeria horiek. Gainerako pertsonen % 6k onartezina dela uste du, baina ez dago ados legeak beti zigortu behar dituelako iritziarekin.

#### GENERO-INDARKERIAREN ONARGARRITASUNA. %a. EAE. 2015

	%
Onargarria egoera guztietan	0
Onargarria egoera jakin batzuetan	0
Onartezina, baina legeak ez du beti zigortu behar	6
Onartezina, eta legeak beti zigortu behar du	90
ED/EE	3

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: herritarren pertzepzio eta iritziak, 2015ekoa.*

#### ZURE USTEZ, GIZONAK BERE EMAZTEAREN, BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN EDO BESTE EMAKUMEREN BATEN AURKA GAUZATUTAKO INDARKERIA... %a. ESPAINIA. 2012.

<b>Beti gertatu da, eta ekidinezina da</b>	<b>5,3</b>
<b>Onargarria da egoera jakin batzuetan</b>	<b>1,7</b>
<b>Erabat onartezina da</b>	<b>92,0</b>
	<b>ED</b> 0,6
	<b>EE</b> 0,3
	<b>(N)</b> (2.580)

*Iturria: CIS, Genero-indarkeriaren gaineko pertzepzio soziala, 2012.*

<sup>128</sup> CIS. IKERKETA SOZIOLOGIKOEN ZENTROA. *Percepción social de la violencia de género por la adolescencia y la juventud. 2013ko ekaina*. Eskuragarri hemen: [http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1\\_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=14106](http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=14106)

Emakumeen aurkako tratu txarren zigorgarritasuna aztertzerakoan, CIS erakundeak egindako azterlanak jakitera eman du herritar gehienek uste dutela legez zigortu behar direla tratu txarrak, baina nabarmen aldatzen da ideia horren gaineko adostasun-maila tratu txarraren motaren arabera.

Beti legez zigortu behar liratekeen tratu txarreatatik galdetuta, elkarrizketatu diren pertsonen % 95ek uste du legeak beti zigortu behar dituela tratu txar fisikoak, eta tratu txar mota horrek du adostasun handiena. Hala ere, % 3k pentsatzen du, onartezinak iruditu arren, legeak ez lituzkeela beti zigortu behar, eta % 2k uste du onargarriak direla egoera jakin batzuetan. Oro har, % 5ek uste du ez direla beti zigortu behar.

Herritarren % 90ek uste du beti zigortu behar direla sexu-harremanak behartzeko jokabideak, baina jokabide horiek zurrizko bideren bat irekitzen du herritarren % 10ek. Zehazki, % 8k uste du, onartezinak iritzi arren, legeak ez dituela beti zigortu behar jokabide horiek.

Bestalde, hitzeko tratu txarrek dute onarpen-mailarik handiena, eta % 63k pentsatzen du legeak beti zigortu beharko lituzkeela jokabide horiek. Hitzeko tratu txar horiek «hitzeko mehatxu» bihurtuta ere, horien onarpen-maila nahiko handia da, elkarrizketatu diren hiru lagunetik bik (% 69k) soilik pentsatzen baitu legeak beti zigortu beharko lituzkeela jokabide horiek, onartezinak direla iritzi arren.

Herritarren ehuneko handi batek (% 86) uste du onartezina dela askatasuna mugatzea eta legeak beti zigortu behar dituela jokabide horiek; % 14k nolabait justifikatu egiten ditu jokabide horiek.

**EMAKUMEEN AURKAKO TRATU TXARREN MOTA BATZUK AIPATZEN DIRA ONDOREN. ZURE USTEZ, ONARGARRIAK DIRA EGOERA JAKIN BATZUETAN, EZ DIRA ONARGARRIAK BAINA LEGEAK EZ DITU BETI ZIGORTU BEHAR, EDO ONARTEZINAK DIRA ETA LEGEAK BETI ZIGORTU BEHAR DITU? %a. ESPAINIA. 2012**

	Onargarria da egoera jakin batzuetan	Onartezina, baina legeak ez du beti zigortu behar	Onartezina, eta legeak beti zigortu behar du	ED	EE	(N)
<b>Tratu txar fisikoak</b>	1,2	3,0	95,1	0,4	0,2	(2.580)
<b>Hitzeko tratu txarrak</b>	2,5	32,6	62,9	1,6	0,3	(2.580)
<b>Sexu-harremanak izatera behartzea</b>	0,9	7,9	89,8	1,0	0,4	(2.580)
<b>Hitzeko mehatxuak</b>	1,7	27,6	69,3	1,0	0,4	(2.580)
<b>Askatasuna mugatzea</b>	1,7	10,0	86,0	1,8	0,4	(2.580)

Iturria: CIS, *Genero-indarkeriaren gaineko pertzepzio soziala*, 2012.

Gaitzespen handiena duten jokabideak dira indarkeria fisikoa erabiltzea («bultzatzea edo jotzea haserretzen direnean»), eta bikotearen barruan sexu-abusuak gauzatzea («sexu-harremanak izatera behartzea»).

Gutxiesteko tratu txar psikologikoen gaineko jarrerak aztertzeko, jokabide hauen gaineko iritziak galdetu dira: alde batetik, bikotekideari egiten zaizkion irainen eta mespretxuen gainekoa, eta, bestetik, seme-alaben aurrean gutxiestearen eta nabarmen uztearen gainekoa, xede duena emakumeak seme-alaba horiekiko duen autoritatea eta balioa ezereztea. Jokabide horiekiko gaitzespena ere orokorra da; izan ere, inkesta erantzun duten herritarren % 90ek baino gehiagok onartezintzat jotzen ditu bi jokabide mota horiek. Hala ere, % 2,4k uste du ezinbestean gertatzen direla bikotekidea mespretxatzeko jokabideak, eta % 0,6k uste du onargarriak direla egoera jakin batzuetan; horrek esan nahi du % 3k ez duela uste jokabide horiek arbuigarriak direnik. Galderari erantzuten ez dion % 0,5 gehitu dakioko azken ehuneko horri.

Zabaldago daude iritzi horiek emakumeari seme-alaben aurrean balioa ezerezten dioten jokabideekiko; izan ere, % 1ek uste du jokabide horiek ezinbestean gertatzen direla, % 5ek uste du onargarria dela egoera jakin batzuetan, eta % 0,9k ez dio galderari erantzun; horrenbestez,



elkarrizketatutako pertsonen % 7k ez du jokabide mota hori gaitzesten. Bi erantzunak batera aztertuta, hau da ondorioa: herritarren % 9k ez ditu pertsonak gutxiesteko tratu txar psikologikoak gaitzesten.

Onarpen-maila zertxobait handiagoa du bikoteko beste kidea kontrolatzeko baliatzen den indarkeriak. Elkarrizketatu diren lau lagunetik ia batek onartzen du, nolabait, bikotekideak ordutegiak kontrolatzea: % 19k uste du onargarria dela inguruabar jakin batzuetan, eta % 3k uste du ezinbestean gertatzen dela.

Ez dira bikotekidearen ordutegiak soilik kontrolatzen, kontrolatu egiten baita, era berean, bikotekideak zer egin dezakeen eta zer ez. Hala ere, % 13k onargarri deritzo egoera jakin batzuetan, % 2k pentsatzen du ezinbestean esan behar zaiola bikotekideari zer egin dezakeen eta zer ez, eta % 1ek ez du argi zer jarrera hartu. Erantzun-aukera guztiak zenbatuta, inkesta egin zaien lagunak % 5ek uste du onargarria dela, neurri batean, bikotekideari lan egin dezan edo ikas dezan eragozte, eta % 4k bikotekideak familia edo lagunak ikus ditzan eragozte.

Oro har, herritarren % 31k onartzen du kontrol-izaerako indarkeria bikotekidearen barnean. Gehienetan, herritarrek kontrol modu bat baino ez dute onartzen (elkarrizketatuak izan direnen % 19k onartzen du modu bakarra, eta ordutegien kontrola da gehien aipatzen dena); % 12k, berriz, kontrolerako bi modu edo gehiago onartzen ditu.

Horren harira, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak nerabeek eta gazteek genero-indarkeria nola hautematen duten ikertu du azterlan baten bidez,<sup>129</sup> eta azterlan horrek ohartarazten du gazteek gainerako herritarrek baino errazago onartzen dituztela kontrol-indarkeriazko jokabideak. Hiru gaztetik batek uste du ezinbestean gertatzen direla edo onargarriak direla «bikotekidearen ordutegiak kontrolatzea», «bikotekideak bere familia edo lagunak ikus ditzan eragozte», «bikotekideari lan egiten edo ikasten ez uztea» edo «bikotekideari agintzea zer egin dezakeen edo zer ezin dezakeen egin»; hau da, hiruzaz gaztetatik batek ez ditu kontrol-jokabideak genero-indarkeriarekin lotzen, eta gainerako herritarrek baino errazago onartzen ditu jokabide mota horiek.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BIKOTE-HARREMANETAN IZATEN DIREN EGOERA ETA JOKABIDE BATZUK IRAKURRIKO DITUT. ESADAZU EZINBESTEAN GERTATZEKOAK DIREN, EGOERA JAKIN BATZUETAN ONAR DAITEZKEEN EDO ERABAT ONARTEZINAK DIREN. %a. ESPAINIA. 2012

	Ezinbestean gertatzekoak dira	Onargarria da egoera jakin batzuetan	Erabat onartezina da	ED	EE	(N)
Etengabe sesioan aritzea	9,1	29,5	60,5	0,7	0,2	(2.580)
Bikotekidea iraintzea edo gutxiestea	0,6	2,4	96,4	0,4	0,1	(2.580)
Bikotekidearen ordutegiak kontrolatzea	2,3	18,9	77,6	1,0	0,3	(2.580)
Bikotekideak familia edo lagunak ikus ditzan eragozte	0,6	3,0	95,8	0,4	0,2	(2.580)
Seme-alabei oihukatzea	5,4	29,3	64,2	0,9	0,2	(2.580)
Hitzezko mehatxuak egitea	1,0	5,0	93,5	0,5	0,0	(2.580)
Bultzatzea edo jotzea haserretzen direnean	0,3	0,6	98,6	0,3	0,1	(2.580)
Lan egin edo ikas dezan eragozte bikotekideari	0,6	3,8	94,7	0,8	0,2	(2.580)
Egin ditzakeen eta egin ezin dituen gauzak agintzea	1,0	13,1	84,7	0,9	0,3	(2.580)
Bikotekidea gutxiesteko iruzkinak egitea seme-alaben aurrean	1,0	5,0	93,1	0,7	0,2	(2.580)
Sexu-harremanak izatera behartzea	0,2	1,5	97,2	0,7	0,3	(2.580)

Iturria: CIS, *Genero-indarkeriaren gaineko pertzepzio soziala*, 2012.

<sup>129</sup> CIS. IKERKETA SOZIOLOGIKOEN ZENTROA. *Percepción social de la violencia de género por la adolescencia y la juventud*. 2013.

**Gizarteak ez die maila bereko garrantzia ematen tratu txar psikologikoei.**

Espainiako herritarren % 9k ez ditu gaitzesten gutxiesteko egiten diren tratu txar psikologikoak, eta % 31k kontrolerako indarkeria onartzen du bikotearen barruan (ehuneko hori handiagoa da gazteen

EAEri dagokionez, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2015ean egindako azterlanak ere agerian utzi du indarkeria, biktima erruduntzat jotzea edo erasotzailea barkatzea nolabait justifika dezaketen jokabideak onartzen dituzten herritarren ehuneko txikia dela, eta askoz gehiago direla jokabide mota hori gaitzesten dutenak; hala ere, ez dugu ahaztu behar datuek adierazten dutela «tolerantzia-mailak» badaudela indarkeria-adierazpen jakin batzuekiko.


Tratu txarren modu guztien artean, *kolpatzea, jotzea* da, nagusiki, balorazio oso larria duena EAEko herritarren aldetik, hori pentsatzen baitu herritarren % 96k. Horren ondoren, honako hauek jotzen dituzte oso larritzat: *emakumearen borondatearen aurka sexu-harremanak izatera behartzea* (oso larria % 88rentzat); *emakumearen irudiak, argazkiak edo informazioa zabaltzea haren onespenerik gabe* (oso larria % 80rentzat) eta *mehatxuak* (oso larria % 75entzat).

Indarkeria modu horien larritasuna baloratzean, ez dago sexuaren araberako alde handirik. Hala ere, bada diferentziarik adinaren arabera. Alde horretatik, adinez nagusi direnek (65 urtetik gora dituztenek) joera txikiagoa dute jokabide horiek oso larritzat jotzeko. Oso larritzat jotzen diren lau itemetan geratu da agerian joera hori, *kolpatzea, jotzea* itemaren kasuan izan ezik. Item horretan, antzekoa da iritzia adin-talde guztietan.

Hauek dira larritasun-balorazio txikieneko indarkeria moduak: *arretarik ez ematea, ez ikusiarena egitea* (oso larria da % 25entzat), *irainak* (% 38) eta *etengabe kexu agertzea emakumearen gauzak egiteko moduarekin* (% 47).

Iritziak sexuaren arabera aztertuta, ikusten da emakumeek gizonek baino proportzio handiagoan hartzen dituztela indarkeria modu horiek oso larritzat, baina ez da alde handirik antzematen adinaren arabera.

**INDARKERIA MODUEN LARRITASUNA. %a. EAE. 2015**



.Iturria: Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. *Emakumeen aurkako indarkeria EAE: herritarren pertzepzio eta iritziak, 2015.*

**Indarkeria mota horren inguruan zer mito eta uste daude zabalduen?** *Prospekzio Soziologikoen Kabineteak* 2015ean eskaini dituen datuen arabera, mito faltsu batzuk oraindik ere indarrean dira gure gizartean. Sarritan, jendeak uste du *alkoholaren eta drogen abusua dagoela emakumeen kontrako indarkeria matxistaren ekintza gehienen atzean*. Baieztapen horrekin oso ados edo nahiko ados dago EAEn bizi diren 18 urtetik gorako biztanleen % 62. Emakumeek eta gizonak horren gainean duten iritzia nahiko antzekoa da. Adina kontuan hartuta, ordea, datuek adierazten dute 65 urtetik gorakoak direla, batik bat, iritzi horrekin bat egiten dutenak (% 74); aitzitik, gazteenak (18 urtetik 29 urtera bitartekoak) dira mito hori gutxien barneratuta dutenak (% 54).


Gizartean oso zabaldua dagoen beste uste edo ideietako bat da *eraso gehienak estres-maila handiko egoeretan edo une batez kontrola galtzen denean gertatzen direla*, inkesta erantzun duten lagunen % 61 baitago ados edo nahiko ados iritzi horrekin. Iritzi horri dagokionez, ez da alde handirik antzematen gizonen eta emakumeen artean. Adinari begiratuta, adinez nagusi direnek (65 urtetik gorakoek) babesten dute gehien ideia hori (% 67).

**Gure gizartean oraindik ere indarrean dauden mito faltsu batzuk.**

EAEn bizi diren 18 urte baino gehiagoko hamar lagunetatik ia lauk uste du salaketa faltsu asko egiten dela genero-indarkeriaren kasuetan.

Komeni da kontuan izatea Euskadin bizi diren adinez nagusiko hamar lagunetatik ia lau oso edo nahiko ados dagoela bi iritzi hauekin: *etxean bortizkeriaz jokatzeko duenak bortizkeriaz jokatu du lanean eta lagunekin* (% 38), *eta salaketa faltsu asko egiten dira genero-indarkeriaren kasuetan* (% 39). Emakumeen eta gizonen erantzunak oso antzekoak dira, baina nabarmentzekoa da uste horiek 65 urtetik gorakoen artean daudela zabalduen (% 42 dator bat lehen mitoarekin, eta % 44, bigarrenarekin).

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREKIN LOTUTAKO USTE BATZUEKIKO ADOSTASUN-MAILA. EMAITZA OROKORRAK. %a. EAE. 2015**



*Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea Emakumeen aurkako Indarkeria Euskadin: herritarren pertzepzio eta iritziak Eusko Jaurlaritzak, 2015.*

2011. urteaz geroztik, nabarmen egin du gora hiru mito nagusiekiko adostasunak: *alkoholaren eta drogen abusua dago emakumeen kontrako indarkeria matxistaren*... *ekintza gehienen*

atzean (lehen % 50, eta orain % 62, oso ados edo nahiko ados dago); eraso gehienak estres-maila handiko egoeretan edo une batez kontrola galtzen denean gertatzen dira (lehen % 42, eta orain % 61); eta salaketa faltsu asko egiten dira genero-indarkeriaren kasuetan (lehen % 25, eta orain % 39). Aitzitik, % 19tik % 14ra jaitsi da beste iritzi honekiko adostasun-maila: emakumeen aurkako indarkeriazko egoera batzuk emakumeen jarrera eta jokabidearengatik gertatzen dira.

2012ko CIS erakundearen inkestak zenbait galdera interesgarri egiten ditu, jakiteko zergatik –gizartearen pertzepzioaren arabera– biktima batzuek eutsi egiten dioten bikote-harremanari, harreman horretan tratu txarrak pairatzen dituzten arren. Inkesta erantzun duten herritarren % 59k adierazi zuen ez zegoela oso ados edo batere ados iritzi honekin: «Emakumeek tratu txarrak pairatzen baldin badituzte, onartu egiten dituztelako da». Emakumeek gizonen baino adostasun-maila txikiagoa dute iritzi horrekin, baina txikia da aldea.

Bestalde, herritarren % 67ren ustez, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek gizonen baino mendetasun ekonomiko gutxiago dute tratu txarrak pairatzea; hala ere, herritarren % 27 ez dago ados azalpen mota horrekin.

ADIERAZI ZER ADOSTASUN-MAILA DUZUN BAIETZAPEN HAUEKIKO (OSO ADOS, NAHIKO ADOS, EZ OSO ADOS EDO EZ NAGO BATERE ADOS) %a. ESPAINIA. 2012

	Oso ados	Nahiko ados	Ez oso ados	Ez nago batere ados	ED	EE	(N)
Erasotzaile gehiago dago atzerritarren artean espainiarren artean baino	12,8	30,4	24,3	16,6	15,7	0,2	(2.580)
Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeek mendetasun ekonomiko gutxiago dute onartzen dituzte tratu txar horiek	14,8	52,2	18,9	7,8	6,1	0,2	(2.580)
Biktimek seme-alabengatik isiltzen dute indarkeria	28,0	61,0	6,6	1,6	2,6	0,2	(2.580)
Erasotzaileek gaixotasun mentalen bat izaten dute	7,6	30,0	30,1	23,4	8,5	0,4	(2.580)
Tratu txarrak pairatzen edo pairatu izan dituzten emakumeek ikasketa-maila apala izaten dute	4,8	28,4	35,8	22,4	8,3	0,4	(2.580)
Emakumeek tratu txarrak pairatzen baldin badituzte, onartu egiten dituztelako da	7,0	27,6	30,7	28,5	5,2	0,9	(2.580)

Iturria: CIS. Genero-indarkeriaren gaineko pertzepzio soziala, 2012.

Salaketa faltsuei dagokienez, garrantzitsua da Estatuko Fiskaltza Nagusiak 2019. urteari buruzko azken memorian argitaratutako datuak jakitera ematea; izan ere, datu horien arabera, 2009. urteaz geroztik, salaketa faltsuengatik 97 kondenatutako epai eman dira, hau da, % 0,0069koa. Horiei tramitatzen ari diren auziak gehituta, epai kondenatutakoak emango balira (144), gehieneko azken ehuneko % 0,010 izango litzateke. Zifra hori nahiko adierazgarria da, berez, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan «salaketa faltsuen» prebalentziaren inguruan egiten diren adierazpenak gezurtatzeko.

SALAKETA FALTSUENGATIKO SALAKETAK ETA KONDENAK. EMAITZA OROKORRAK. %a. ESPAINIA. 2019

ESPAINIA URTEA	SALAKETAK, GUZTIRA	SALAKETA FALTSUENGATIKO KONDENAK	%	KONDENAK + TRAMITATZEN ARI DIREN AUZIAK	%
2009	135.540	11	0.0081	11	0.0081
2010	134.102	8	0.006	8	0.006
2011	134.002	14	0.01	14	0.01
2012	128.543	17	0.013	17	0.013
2013	124.894	14	0.011	14	0.011
2014	126.742	16	0.012	18	0.014
2015	129.193	8	0.006	11	0.009
2016	142.893	11	0.0076	22	0.015
2017	166.260	7	0.004	14	0.008

ESPAINIA URTEA	SALAKETAK, GUZTIRA	SALAKETA FALTSUENGATIKO KONDENAK	%	KONDENAK + TRAMITATZEN ARI DIREN AUZIAK	%
<b>2018</b>	166.961	1	0.00059	13	0.007
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.389.133</b>	<b>97</b>	<b>0.0069</b>	<b>144</b>	<b>0.01</b>

Iturria: Estatuko Fiskaltza Nagusia. 2019ko memoria

Sexu-indarkeriari buruzko mito batzuk ere oso errotuta daude gizartean. Sexu-indarkeriaren pertzepzioari buruz Estatuan 2018an egindako azterlanaren datuen arabera, Espainian bizi direnen % 47,7k esaten du ados dagoela baieztapen honekin: «*Sarritan alkohola izaten da gizon batek emakume bat bortxatzea eragiten duena*»; are gehiago, elkarrizketatuko pertsonen % 16,4k dio erabat ados dagoela baieztapen horrekin. Ez da alde handirik sumatzen sexuen artean: gizonen % 50 eta emakumeen % 45,6 ados daude baieztapen horrekin.

Bestalde, emakumeen % 85,5ek eta gizonen % 85,4k diote ez daudela ados baieztapen honekin: «*Emakume bat kale estuetatik gaez bakarrik ez ibiltzeko bezain zuhurra ez bada, badu nolabaiteko errua bortxatua izanez gero*». Erantzunetan adierazitako adostasun-maila kontuan hartuz gero, emakumeen eta gizonen arteko aldeak esanguratsuak dira. Horren haritik, emakumeen % 72,5 eta gizonen % 66,6 horren kontra daude erabat.

Elkarrizketatutako pertsonen % 73,2k dio ez dagoela ados baieztapen honekin: «*Sexu-bikotekide asko izan dituen emakume batek sinesgarritasun txikiagoa du sexu-eraso bat salatzen duenean*»; horrek esan nahi du elkarrizketatutako lautik bat inguru ados dagoela baieztapen horrekin, eta, beraz, biktima erruduntzat jotzen duela.

Nabarmentzekoa da, halaber, emakumeen % 75,9k esaten duela ez dagoela ados baieztapen honekin: «*Gizon batek bere bikotekidea sexu-harremanak izatera behartzen duenean, hori ezin da bortxaketatzat jo*»; horrek adierazten du lau emakumetatik ia bat gutxienez zati batean ados dagoela baieztapen horrekin. Gizonen kasuan ere ikusten da hamarretik ia hiru ez daudela ados baieztapen horrekin.

# DATU GARRANTZITSUENEN JARRAIPENA EGITEKO ADIERAZLEAK

Atal honetan, adierazle multzo bat aurkeztuko dugu, EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko aldiari datu garrantzitsuenen jarraipena egitea errazagoa izan dadin. Sistema horri esker, datuak erraz eta azkar irakurtzen dira, eta argiro antolatzen dira emakumeen aurka gauzatzen den indarkeriaren zenbaterainokoa eta magnitudea neurtzeko garrantzitsutzat jotzen diren adierazleak.

Badira adierazleen sistema bati balio handiagoa ematen dioten zenbait gako: datuak eguneratzeko aukera ematea eta erabilitako iturriak fidagarriak izatea. Sistema honetarako hautatu diren adierazle gehienak<sup>130</sup> urtero eguneratu ahal izango dira, eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak erregistratutako informazioaz hornitzen dira. Instituzio horrek jasotako informazioaren luzetarako analisia egiteko aukera emango du horrek, eta, aldizka, adierazle bakoitzak aurreko urteekin alderatuta zer bilakaera izan duen ikusi ahal izango da. Edizio honetan, 2014., 2015., 2016., 2017., 2018., 2019. eta **2019.** urteetako datuak aurkezten dira.

Eremua	Adierazlea	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2018-2019 bilakaera
Zenbat?	Indarkeria motaren bat jasan duten emakumeen kopurua (emakumeak, guztira)	4091	3.999	3.774	4.020	4.244	4.419	↑ +175
	Biktimen kopuruan urtetik urterako gorakada, ehunekotan (ehunekoen aldea, aurreko urtearekiko)	2,94	-2,25	-5,63	6,5	5,57	4,12	↓ -1,45
	Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimizazio kopurua (biktimizazioak, guztira)	5124	5.097	4.693	4.999	5.315	5.518	↑ +203
	Biktimizazio kopuruan urtetik urterako gorakada, ehunekotan (ehunekoen aldea, aurreko urtearekiko)	2,85	-0,53	-7,93	6,52	6,32	3,82	↓ -2,5
	Biktimizazioen kopurua, 10.000 emakumeko, EAEn (EAEko tasa)	45,64	45,37	41,75	44,35	47,02	48,63	↑ +1,61
	Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriagatiko biktimizazioen %a, biktimizazio guztiekiko	75,41	75,44	74,00	75,20	74,8	74,0	Idem
	Familia-eremuko emakumeen aurkako indarkeriagatiko biktimizazioen %a (bikotekidea edo bikotekide ohia izan ezik) biktimizazio guztiekiko	18,72	19,48	20,00	18,60	17,9	18,3	↑ +0,4
	Familia-eremutik kanpoko sexu-indarkeriagatiko biktimizazioen %a, biktimizazio guztiekiko	5,87	5,08	6,00	6,20	7,3	7,7	Idem
	2002. urteaz geroztik bikotekideak edo bikotekide ohiak eraildako emakume kopurua	35	38	42	43	46	0	-
Bikotekideak edo bikotekide ohiak eraildako emakume kopurua (urte horretan)	3	3	2	2	3	0	-	

<sup>130</sup> Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Azterlan eta Analisisien Dibisioak urtero ematen dituen datuak soilik hautatu dira. Datu horiei esker jakiten da EAEko polizia ofizialki zenbat emakume eta zenbat kasu erregistratu dituen, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan. Erreferentzia argia dira indarkeria kuantifikatzeko: bikotekideek edo bikotekide ohiak emakumeen aurka baliatzen duten indarkeria, familia barneko indarkeria eta sexu-askatasunaren aurkako delituak (sexu-indarkeria).

Eremua	Adierazlea	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2018-2019 bilakaera
Non?	Arabako biktimizazioen %, EAEko biktimizazio guztiekiko	12,86	14,44	14,92	14,54	14,8	15,3	↑ +0,5
	Bizkaiko biktimizazioen %, EAEko biktimizazio guztiekiko	56,48	54,46	55,00	55,37	55,2	54,2	↓ - 1
	Gipuzkoako biktimizazioen %, EAEko biktimizazio guztiekiko	30,66	31,10	30,09	30,09	30,0	30,5	Idem
	Biktimizazioen kopurua, Gasteizen, 10.000 emakumeko (Gasteizko tasa)	43,76	41,62	41,06	45,31	45,30	51,60	↑ + 6,3
	Biktimizazioen kopurua, Bilbon, 10.000 emakumeko (Bilboko tasa)	45,30	49,73	43,75	46,78	53,37	51,18	↓ -2,19
	Biktimizazioen kopurua, Donostian, 10.000 emakumeko (Donostiako tasa)	41,29	49,41	37,46	41,83	45,10	50,85	↑ +5,75
Zer-nolako harremana du egilearekin?	Erasotzailea semea izanda, familia-eremuko indarkeriaren biktimizazioen %, familia-eremuko biktimizazio guztiekiko	40,98	43,61	45	46,72	39,2	43,5	↑ +4,3
	Erasotzailea aita izanda (alaba adingabeak), familia-eremuko indarkeriaren biktimizazioen %, familia-eremuko biktimizazio guztiekiko	13,45	12,89	13	14,75	21,5	16,9	↓ -4,6
	Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriak eraildako emakume biktimen ehunekoa, erasotzailearekiko harremana amaituta zutenen artean (bikotekide ohiaren), eraildako emakume guztiekiko	26,92	31,03	30	31,25	30,3	0	-
Zer ezaugarri soziodemografiko dituzte biktimek eta erasotzaileek?	Indarkeria motaren bat jasan duten emakume adingabeen %, indarkeria jasan duten emakume guztiekiko	8,5	9,06	7,55	9,49	11,6	10,6	↓ -1
	Indarkeria motaren bat jasan duten 30 urtetik beherako emakumeen %, indarkeria jasan duten emakume guztiekiko	34,84	33,08	34,47	36,78	39,8	38,7	↓ -1,1
	Indarkeria motaren bat jasan duten adineko emakumeen (65 urtetik gorako)en %, indarkeria jasan duten emakume guztiekiko	6,1	4,63	4,82	4,6	3,8	4,2	↑ +0,4
	Indarkeria jasan duten emakume atzerritarren %, indarkeria jasan duten emakume guztiekiko	30,86	33,4	33,56	35,44	36,37	38,72	↑ +2,35
	Emakume atzerritarren biktimizazio kopurua, 1.000 emakume atzerritarreko (indarkeriaren prebalentzia emakume atzerritarren artean)	18,11	19,1	18,33	20,61	18,85	20,8	↑ +1,95
	EAEen edo beste autonomia-erkidego batean jaiotako emakumeen biktimizazio kopurua, 1.000 emakume atzerritarreko (indarkeriaren prebalentzia, EAEen edo beste autonomia-erkidego batean jaiotako emakumeen artean)	2,69	2,55	2,38	2,46	2,56	2,56	Idem
	Erasotzaile adingabeen %, erasotzaile guztiekiko	2,16	2,71	2,76	3,77	3,82	3,68	Idem

# ONDORIOAK: gako garrantzitsuenak

**Emakumeen aurkako indarkeriak oraindik ere biktima asko eragiten ditu urtero. 2019an, Ertzaintzak indarkeria mota horren 5.518 kasuren berri izan zuten, eta 4.419 emakumeri eragin zien.**

---

**EAEn, Ertzaintzak azken urtean 5.518 indarkeria-kasu erregistratu zituen (biktimizazioak), eta, zehazki, 4.419 emakumeri eragin zien.**

Emakume batek urtearen joanean izaten dituen erasoek kopuruak gora egin zuten 2015era arte, urte horretan zertxobait behera egin baitzuen; 2016an ere behera egin zuten kopuruak, baina nabarmen orduan (% 7,93 egin zuten behera, zehazki). Hala ere, 2017. urtetik aurrera indarkeria-kasuek gora egin dute dezente berrituz. 2018an aurreko urtean baino 316 biktimizazio gehiago zenbatu ziren; horrek esan nahi du % 6,32 egin zuela gora). **Goranzko joerak jarraitu egiten du 2019an, % 3,82 egin baitu gora, aurreko urtearekiko** (203 biktimizazio berri). Erasoek biktima izan ziren emakumeen kopuruak % 4,12 inguru egin zuten gora, aurreko urtearekin alderatuta. Igoera horren arrazoi bat izan daiteke indarkeria pairatzen duten gero eta emakume gehiagok erabakitzen duela erakundeetara jotzea, laguntza eske.

Indarkeria mota horrek ondorio asko uzten ditu emakumeengan (fisikoak, psikologikoak, sozialak, ekonomikoak, etab.), eta ez da ahaztu behar emakume batzuek bizia galdu dutela. Azken 17 urteetan, 2002tik gaurdaino, 47 emakume erail dituzte EAEn indarkeria matxista motaren bat dela eta.

**EAEko udalerrien % 73,3tan, indarkeria-kasuren bat (biktimizazioa) erregistratu da 2019an.** Hiriburuetan kontzentratzen dira biktimizazio gehien (horietan bizi delako biztanleriaren zati handi bat), baina biktimizazio kopurua biztanleria-bolumenaren arabera (tasa) aztertuz gero, hiriburuak batez bestekoaren parean daude.

Biktimizazioak urte osoan erregistratzen dira, eta hilabetearen arabera aldeak esanguratsuak ez direla iruditu arren, uda-sasoian (udako hilabeteetan) gertatzen da biktimizazio gehien.

**Erregistro ofizialetako datuek izozmendiaren zati bat baino ez dute erakusten. Kalkulatzen da EAEn emakumeen % 12,5 inguruk pairatu duela noizbait emakumeen aurkako indarkeria moduren bat.**

---

Erregistro ofizialetako datuek arazoaren zati bat baino ez dute azaleratzen; izan ere, erakundeetara laguntza eske jo ez duten emakumeak ez dira erregistroetan jasotzen. Zenbait azterlanek kalkulaturakoaren arabera, indarkeria hori pairatzen ari diren emakumeen % 48k ez du jo ez poliziarengana, ez epaitegira, ez laguntza-zerbitzuetara, laguntza eske.

Europa-mailako azterlan batek agerian utzi du emakumeen erdiek desplazamenduak mugatu egiten dituztela, zenbait leku edo egoera eragozte aldera, eraso egingo dietelako beldur direlako. Estatu-mailan prebalentziari buruz egindako beste azterlan baten arabera, Espainiako emakumeen % 13 izan da noizbait bizitzan bikotekidearen edo bikotekide ohiaren beldur; lautik batek kontrol-izaerako indarkeria psikologikoa jasan du (bikotekideak lagunak ikus ditzan eragozten die, leiala ez dela arrazoirik gabe uste du bikotekideak, leku jakinetara joateko baimena eskatzea espero du bikotekideak, etab.) noizbait bizitzan; eta emakumeen % 22 inguruk jasan du bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria psikologiko



emozionala (besteak beste, laidotu, gutxietsi, beldurtu eta mehatxatu egin dituzten emakumeak) noizbait bizitzan.

EAEan, prebalentziari buruz eskuragarri dauden azken datuak Eusko Jaurlaritzak 2011n egindako *Emakumeen aurkako Indarkeria Matxista* azterlanekoak dira, eta datu horien arabera, **16 urtetik gorako emakumeen % 12,5 inguruk jasan du noizbait bizitzan emakumeen aurkako indarkeria** eremuren batean (familia-eremuan, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa, lanean...), **eta azken urtean, berriz, % 2k.**

Azterlan horren beraren arabera, bestalde, gutxi gorabehera emakumeen % 18 askotan dago indarkeria-egoeraren baten eraginpean, nahiz eta askotan halakotzat ez hartu.

Prebalentziari buruzko azterlanak bereziki garrantzitsuak dira **sexu-indarkeria** denean aztergai; izan ere, **emakumeen aurkako indarkeria-moduen artean ezkutuen geratzen denetako bat da.** Eskuragarri dauden datuek adierazten dute Espainian bizi diren 16 urtetik gorako emakumeen % 8,1ek pairatu duela bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik sexu-indarkeria noizbait, eta %7,2k pairatu du sexu-indarkeria motaren bat bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremutik kanpo noizbait (emakume horien % 3,5ek 15 urterekin baino gutxiagorekin pairatu zuen).

**Indarrean dagoen legediak indarkeria mota horren biktima diren emakumeen seme-alabak biktimatzat hartzen ditu,** eta, beraz, beharrezkoa da gehiago ahalegintzea haien egoera identifikatzen eta ikusarazten jarraitzeko, bai eta esku-hartzea beren behar espezifikoetara egokitzeko ere. Estatu-mailan argitaratu den azken inkestaren arabera, kalkulatu da azken urtean indarkeria fisikoaren biktima izan den emakume bat bizi den etxean % 52,2tan neska-mutiko adingabeak bizi direla. Emakumeak kontrolatzeko erabiltzen dira umeak askotan, eta ondorio larriak izaten dituzte, etxean horrelako indarkeriaren lekuko direlako eta indarkeria horren eraginpean bizi direlako. Zenbait azterlanen kalkuluen arabera, adin txikiko biztanleen % 5 eta % 10 bitartean indarkeria horren biktima izan daiteke.

### **Normalean, erasotzailea biktimaren bikotekidea edo bikotekide ohi izan ohi da, baina oso kontuan izan behar dira emakumeen aurkako beste indarkeria modu batzuk ere.**

---

Polizien erregistroetako datuen arabera, bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako indarkeria izan da erabiliena; zehazki, 2019. urtean emakume biktimen % 70,1ek (3.098 emakume) lotura hori zuten erasotzailearekin. Bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako indarkeria-kasuen kopuruak % 2,85 egin du gora.

Nolanahi ere, **ez da ahaztu behar beste emakume askok familiako beste gizon batzuen eskutik nozitzen dutela indarkeria, ez bikotekide edo bikotekide ohiaren eskutik (guztira 899 emakumek, 2019an eraso zituzten emakumeen % 20,3k).** Indarkeria mota horren biktimak, **batez ere, 50 urtetik gorako emakumeak (semeek erasoak) eta emakume adingabeak (aitek erasoak) izaten dira.** Emakumeen aurkako indarkeriak gora egin du familia-eremuan, zehazki, % 5,77.

**Gainera, familia-eremutik kanpoko sexu-indarkeria sufritu du erasotako emakumeen % 9,5ek (422 emakumek 2019an).** Indarkeria mota horrek bereziki emakume gazteenei eragiten die. Azken urteotan erregistratutako era horretako indarkeria-kasuen kopuruak nabarmen egin du gora. 2018. urtean, hain zuzen, % 24,36 egin zuen gora aurreko urtearekiko, eta 2019an, % 9,61.

Garrantzitsua da indarkeria osotasunean kontuan hartzea (bai araudiaren esparruari dagokionez, bai abiarazten diren ekintzei eta baliabideei dagokienez), albo batera utzi gabe bikotekideak edo bikotekide ohiak eragiten ez dituen beste indarkeria batzuk (familia-eremutik kanpoko sexu-indarkeria, familia-eremuko beste gizonezko batzuek gauzatutako indarkeria, etab.).

*Sombra Txostenaren jarraipena, CEDAW 2017. Informe sobre seguimiento parcial de las observaciones finales del Comité CEDAW en el examen del Estado Español de julio 2015* txostenean esaten denez, erkidego gehienek dituzte genero-indarkeriari buruzko legediak, Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoan jasotzen ez diren indarkeria modu eta eremu batzuk sartzeko, baina gero ikusten da guztiak ez direla artatzen, batzuetan zaila izaten delako arau batzuek erabateko eraginkortasuna izatea Estatuko legeetan behar diren aldaketak egin ezean.

### **Indarkeria jasaten duten emakumeen profil zehatzik ez dago. Aurpegi anitz dituen problematika da.**

---

Indarkeria mota horrek ez du aurpegi bakarra. Hala erakusten dute indarkeria matxistaren intzidentziari eta prebalentziari buruzko datu estatistikoek eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen edo indarkeria horren biktimekin esku-hartzen diharduten antolakundeek. Gizartearen iruditegian, profil hau dago indarkeria hori jasaten duten emakumeei buruz: ikasketarik gabeko emakumea, adinekoa edo atzerritarra; baina hori ez da horrela.

Ertzaintzaren azken datuek berretsi egin dute **indarkeria adin guztietako emakumeek pairatzen dutela, gazteek zein adinez nagusi direnek**. 2019an indarkeria pairatu duten emakumeen % 38,7 hogeita hamar urtetik beherakoa zen, eta % 10,6 hemezortzi urtetik beherakoa. 31 urtetik 50 urtera bitarteko emakumeen ehunekoak % 47,2 egin zuen, eta 50 urtetik gorakoak, % 14,1. 65 urtetik gorako emakumeen ehunekoak, % 4,2.

18 eta 50 urte arteko emakumeen artean, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria izan da ohikoena. 50 urtetik gorakoak artean, gora egiten du familia barneko indarkeriak, eta 2019an, indarkeria mota hori jasan du, hain justu, erasoak pairatu dituzten 65 urtetik gorako emakumeen % 64,9k.

18 urtetik beherako emakumeek gehien pairatzen duten indarkeria familia-eremuko indarkeria (2019an, indarkeria mota horren biktimen % 17k 14 urte baino gutxiago zituen) eta sexu-indarkeria dira (indarkeria mota horren biktimen % 51,7k 20 urte baino gutxiago zituen). Hala ere, azpimarratu behar da hamar biktima nerabetatik ia hiruri bikotekideak edo bikotekide ohiak egin ziela eraso (14 urtetik 17ra bitarteko nerabeak).

Era berean, **gizonezko gazte asko dago erasotzaileen artean, (30 urtetik behera du % 29,98k, eta haietatik 18 urte baino gutxiago % 3,68k)**. Horrek agerian uzten du zenbaterainokoa den emakumeenganako indarkeria gazteen artean. Erasotzaile gazteen kopurua bereziki handia da familia barneko indarkeria-kasuetan eta familiatik kanpoko sexu-indarkeriaren kasuetan. Gainera, nabarmentzekoa da 2019an bikotekideari edo bikotekide ohiari eraso egin zioten lau gizonetatik batek 30 urte edo gutxiago zituela.

**2019an indarkeria jasan duten emakumeen % 61,08 EAEn edo beste autonomia-erkidego batean jaio da;** emakume atzerritarrak % 38,92 dira. Hala ere, adi eta erne egon beharra dago adierazle horrek zer bilakaera duen ikusteko; izan ere, emakume atzerritarren ehunekoak gora egin du azken urteotan, eta indarkeriaren prebalentzia handiagoa da emakume atzerritarren

artean (1.000 emakumeko, 20,8 emakume atzerritarrek eta Espainiako Estatuan jaiotako 2,56 emakumek sufritzen dute indarkeria).

### **Funtsezkoa da emakume bakoitza zer unetan dagoen errespetatzea eta emakumeak babestuko dituzten neurriak ezartzea, emakumeek aurrerako urratsak egin ditzaten.**

---

Indarkeriaren gorpil zorotik irteteko zailtasunak zailtasun, nabarmendu behar da emakume asko atera direla edo ateratzen ari direla. **2019an bikotekidearen edo bikotekide ohiaren erasoak jasan duten emakumeen erdia baino gehiago (% 52) jada bananduta zegoen edo etena zuen erasotzailearekiko harreman sentimentala**, eta emanak zituen egoera gainditzeko lehen urratsak.

Zenbait azterlanek kalkulatu dutenez, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek batez beste 8 urte eta 8 hilabete behar dituzte bizitzen ari diren indarkeria-egoeraren berri emateko, dela autonomia-erkidego bakoitzean biktimei laguntza eta aholkularitza emateko dauden zerbitzuen eta baliabideen bidez, dela salaketa jarritz. **EAEko genero-indarkeriaren epaitegietan 5.931 salaketa jaso dira 2019an, aurreko urtean baino % 5,2 gehiago.**

Salaketari dagokionez, emakume bakoitzaren unea, prozesua eta erabakia errespetatzea garrantzitsua da, baina hori bezain funtsezkoa da sistema judizialak hartutako neurriek eta epaiek balio izatea emakumeen ongizatea sustatzeko eta erasotzailearen aurrean segurtasuna emateko.

Auzitegiek emandako babes-neurrien kopuruak % 4,1 egin du gora 2018tik 2019ra bitartean. Nahiz eta emakume askok rol aktiboa eta ahaldundua hartu duten, erasotzaile batzuek ez dituzte onartzen epaitegiek emakumeak babesteko hartzen dituzten neurriak, eta urratu egiten dituzte. Zehazki 2019an, **guztira 954 biktimizazio erregistratu ziren segurtasun-neurriak**, urruntze-aginduak eta abar **urratzeagatiko delituengatik**. Hau da, urte horretan erregistratu ziren emakumeen aurkako indarkeria-kasu guztien % 17,29 (5.518) erasotzaileek egindako urratze-delituak izan ziren.

Garrantzitsua da erasotzaileengan eragitea eta arreta-sistema egokitzen eta sendotzen jarraitzea, indarkeriarik gabe bizitzeko borroka egiten duten emakumeen premia guztiei erantzun ahal izateko.

### **Ezinbestekoa da, halaber, ezkutuan geratzen diren emakumeen aurkako beste indarkeria modu batzuen aurkako borrokan ere aurrerapausoak ematea.**

---

Emakumeen aurkako indarkeria modu ohikoenak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, familia barneko indarkeria eta sexu-askatasunaren aurkako indarkeria dira. Hala ere, badira emakumeen aurkako beste indarkeria modu batzuk arlo pribatuan zein publikoan, askotan askoz ere ikusezina direnak.

Azken urteotan gizartean izugarri aldatu dira harremanak edukitzeko eta komunikatzeko moduak, besteak beste, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, Internet, sare sozialak eta gailu mugikorrek erabiltzen direlako. Horiek berekin ekarri dituzte abusu-arrisku jakin batzuk eta indarkeria modu berriak, hala nola sexting-a, grooming-a eta ziberkontrola, teknologia horiek eskuratzea erraza delako, etengabe «harremanetan» egoteko eta erasotzaileei pribatutasunez eta inpunitatez jarduteko aukera ematen dietelako.

Azterlan batzuek ohartarazi dutenez, **ziberjazarpen sexistak eta sexualak matxismoa errepikatzen du, eta bereziki ohikoa da nerabeen artean**; hala ere, indarkeria modu ikusezinak dira, eta askotan ez dira ez ezbaian jartzen, ez haiei aurre egiten, eta emakumea hartzen da erruduntzat.

**Lan-eremuko sexu-jazarpena eta jazarpen sexista** emakumeen aurkako indarkeria modu espezifikoa dira. Ondorioak izugarri negatiboak dira, haien askatasuna mugatzeaz gain, haien ibilbide profesionalaren garapen askea murriztu egiten baita. Osasunean ere eragiten ditu kalteak, hala nola estresa, antsietatea, depresioa, insomnioa eta nekea; baina, horrezaz gain, autoestimuan ere eragiten du, eta horrek berekin dakar produktibitatean behera egitea, eta, zenbaitetan, lanera ez agertzea edo lanetik alde egitea.

**Sexu-esplotaziora bideratutako giza salerosketa** XXI. mendeko esklabotza modutzat har daiteke. Duela gutxi argitaratutako txosten baten arabera, kalkulatzen da EAEn prostituzioan ari diren emakumeen % 10 eta % 15 bitartean sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima izan daitekeela. Migrazio-proiektua betetzeko bide erregularrik ez izatea faktore bat da, eta horrek areagotu egiten du emakumeek nazioarteko salerosketan (jatorrian eta igarotzean) duten zaurgarritasuna. Behin helmugako herrialdean daudenean, egoera administratibo irregularrak are handiagoa egiten du zaurgarritasuna.

Azken hamarkadan, gure autonomia-erkidegoa beste herrialde batzuetatik datozen pertsonen migrazio-mugimenduen helmuga bilakatu da, besteren artean, Saharaz hegoaldeko Afrikatik datozenena, eta herrialde horietan identitate-erro sendoa du **Emakumeen genitalen mutilazioak** (EGM). 2016. urtean argitaratutako datuen arabera, **sorterri horietako 4.890 emakume inguru bizi dira EAEn**, eta horietatik 1.378 hamabost (15) urtetik beherako neskatokak dira, hots, arriskuan dagoen populazio taldea, eta azken urteotan nabarmen hazi da.

### **Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko, bereziki hartu behar da kontuan askotariko indarkeria eta diskriminazio moduak daudela, eta emakumeak ere modu askotakoak direla.**

---

**Adina** faktoreak bereziki eragiten du emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeen zaurgarritasunean. Indarkeria-egoerei aurre egiteko moduekin zerikusia duen faktorea ere bada, eta, zalantzarik gabe, kontuan hartu behar da emakumeei zuzendutako prebentzio- eta esku-hartzeko ekintzak planifikatzeko. Kontuan hartu beharrekoa da, halaber, genero- eta matxismo-estereotipoek ez dietela berdin eragiten emakume gazteei eta adineko emakumei.

Nabarmenezkoa da zenbait azterlanek ohartarazi dutela bikotekidearen edo bikotekide ohiaren kontrol-izaerako indarkeria psikologikoa gehiago pairatzen dutela emakume gazteek gainerako emakumeek baino. Diskriminazioaren aurreko alerta txikiagoa izan liteke gazteen artean, berdintasuna lortua dagoela uste baitute. Gizonen eta emakumeen artean berdintasuna dagoelako ustea zabaldua izateak nahasmendua sortzen die neskei; izan ere, neskek ez dituzte erasoak eta jokabideak identifikatzen, eta, ondorioz, ez dute beren burua defendatzen horien aurrean. Zailtasun handiak dituzte beren portaeran izaten dituzten indarkeria-adierazpenak hautemateko, bai berdinen taldean zein harreman afektiboetan.

Emakumeen **jatorria** edo emakumeak zein familiatakoak diren ere zaurgarritasun-faktore bat da, eta, gainera, beste faktore batzuekin bat egiten badu, hala nola emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izatea edo administrazio-egoera irregularrean egotea, horrek askotariko diskriminazio-egoerak eragin ditzake. Emakume migratu batzuek migrazio-prozesu bereziak bizi

izan dituzte, harrera-herrialdean duten erreferente bakarra erasotzailea delako, eta, beraz, ez dute laguntzarako sare sozialik. Gainera, administrazio-egoera irregularrean egon daitezke, edo lan egiteko baimena edo bizileku-baimena erasotzaileari lotuta egon daiteke, harrera-herrialdera familia berriz elkartzeko prozesu baten bidez iritsi badira. Egoera horiek eta beste hainbatek emakume horiek mendetasun-egoera handiagoa izatea eragite dute, eta erasotzaileak horietaz baliatzen dira emakumeak mendean hartzeko estrategia gisa.

Badira arreta berezia eskaini behar zaien kolektiboak: **desgaitasunen bat duten emakumeak eta gaixotasun mentala duten emakumeak**. Azterlan batzuen arabera, desgaitasuna duten eta bikotekideen eskutik indarkeria fisikoa, sexuala edo beldurra jasan duten emakumeak % 23 inguru dira; desgaitasunik gabeko emakumeak, berriz, % 15. Faktore hauek eragiten dute, besteak beste, emakume horiek gainerakoak baino zaurgarriagoak izatea eta indarkeria mota hori pairatzeko arrisku handiagoa edukitzea: tratu txarrak adierazteko zailtasuna, informazioa eta aholkua emateko lekuetara joateko zailtasunak, isolamendu soziala eta mendetasun ekonomikoa. Desgaitasuna duten emakume eta neskek aukera gehiago dituzte sexu- eta ugalketa-eskubideak arriskuan izateko (esterilizazio behartua eta abortu behartua), bai eta beste indarkeria modu espezifikoak pairatzeko ere, hala nola zaintzarekiko ukoa, umiliazio-egoera larriagoak eta indarkeria instituzionala.

**Bizitegi-bazterketan dauden pertsonen** buruzko azken azterlanek agerian utzi dute emakume etxegabeen errealitatea ezkutuan egon dela urtetan. EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden egoerari buruzko azken azterlanen arabera, kalean lo egin beharrak arrisku-egoera handiagoak ekartzen dizkie emakumeei, eta kalkulatu dute kalean lo egin duten emakumeen % 23,4k sexu-indarkeria jasan duela (gizonen kasuan, % 2,1ek). Horrezaz gain, kalkulatu da emakumeen % 27,6k eraso fisikoak jasan dituela (gizonen % 20k), % 41,4k irainak edo mehatxuak (gizonen % 35,5k) eta emakumeen % 41,4ri dirua edo ondasunak lapurtu dizkiotela (gizonen % 36,8ri).

### **Emakumeen aurkako indarkeria egiturazko indarkeria da. Beraz, ez zaio eremu pribatuari lotu behar, arazo soziala baita.**

---

Emakumeen aurkako indarkeria arazo sozial bat da, guztioi dagokiguna; giza eskubideen urraketa larria da, inoiz ere isilean gorde ezinekoa. Gure gizartean, oraindik ere, sexuan-generoan oinarritutako desberdintasunak eta diskriminazioa daude, eta horiek dira, hain zuzen ere, indarkeria mota horren jatorri. **Indarkeria mota horrek egiturazko kausa du: sistema patriarkala eta emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanetako berdintasunik eza.** Egiturazko indarkeria da emakumeen aurkako indarkeria hori, hau da, gizarte-egitura matxistaren barruan antolatu eta ezarria da, eta, horrenbestez, indarkeria horrek gizartearekin du zerikusia, nahiz eta pertsona jakin batzuek harreman pribatuetan erabiltzen duten indarkeria izan. Garrantzitsua da erasotako edo eraildako emakumeak kasu isolatu gisa ikusteari uztea.

Badirudi emakumeen aurkako indarkeriaren arazoaren inguruko kezka arian-arian gehituz doala Espainiako eta EAeko biztanleen artean. Izan ere, Espainiako biztanleek emakumeen aurkako indarkeriari buruzko inoizko kezka handiena 2019an adierazi dute, pertzepzioari buruzko hileroko barometroen % 7,9tan azaldu baita. Euskal Autonomia Erkidegoko datuen arabera are kezka handiagoa dago bertan gai horren inguruan, % 17,4 egin baitu gora emakumeen aurkako indarkeria arazo nagusietako bat dela dioten elkarrizketatutako pertsonen ehunekoak; horrela, bosgarren lekuan kokatzen dute herrialdeko arazoaren artean.

EAEko herritarrek 6,4 punturekin balioesten dute EAEko gizonen eta emakumeen artean dagoen berdintasun-maila (10 puntu dira guztira; eskala teoriko batean, erabateko desberdintasun-egoera 0 puntu litzateke, eta erabateko berdintasuna, 10 puntu). Gazteek gainerako herritarrek baino desberdintasun txikiagoa antzematen dute emakumeen eta gizonen artean, eta emakumeek gizonezkoek baino desberdintasun-pertzepzio handiagoa dute. Horren harira, garrantzitsua da kontuan izatea emakumeen aurkako indarkeriaren arazoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik ezarekin lotura duela, indarkeria pribilegioak ematen dituen harreman modu bat dela eta erasoak baliatzen dituela harremanen asimetria horri eusteko eta emakumeak mendeaz edukitzeko.

EAEEn, 18 urte baino gehiago dituzten pertsonen % 90ek adierazi du guztiz onartezina dela emakumeen aurkako indarkeria, eta uste du legeak beti zigortu behar dituela indarkeria horiek. Gainerako pertsonen % 6k onartezina dela uste du, baina ez dago ados legeak beti zigortu behar dituelako iritziarekin. Indarkeria, biktima erruduntzat jotzea edo erasotzailea barkatzea nolabait justifika dezaketen jokabideak onartzen dituzten herritarren ehuneko txikia da, eta askoz gehiago dira jokabide mota hori gaitzesten dutenak; hala ere, ez dugu ahaztu behar batez ere gazteenek dutela tolerantzia berezia kontrol-izaerako indarkeriako jokabideekiko.

**Oraindik ere mito eta sinesmen batzuek errotuta jarraitzen dute gizartean, ebidentziarik egon gabe ere:** salaketa faltsu asko dauden pertzepzioa (hala uste du EAEko hamar herritarretik ia lauk), indarkeria-kasuen atzean alkoholaren eta drogen abusua dagoen ustea (EAEko herritarren % 62 oso edo nahiko ados dago ideia horrekin), sexu-bikote asko izan dituen emakume batek sexu-eraso bat salatzen duenean sinesgarritasun txikiagoa duen iritzia (hori uste du elkarrizketatu diren lau pertsonatik batek), etab. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko mito horiek lagundu egiten dute fenomenoaren dimentsioa ezkutatzeko, eta eragotzi egiten dute arazoari behar bezala heltzea. Badirudi beharrezkoa dela emakumeen estigmatizazioa desagerrarazteko eta emakumeak erruduntzat hartzeari uzteko lan egiten jarraitzea, horiek emakumeak berriro biktimizatzea eragiten baitute.

## Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak kuantifikatzeari eta biltzeari dagokionez, oraindik ere zer hobetu asko dago.

---

Gaur egun, emakumeen aurka zenbait eremutan gertatzen diren indarkeria-kasu batzuk eta indarkeria modu batzuk ez dira salatzen, eta ezkutuan geratzen dira (errepresalien beldurragatik, lotsagatik, zer eskubide eta babes-sistema dituzten ez jakiteagatik, emakumeen aurka baliatzen den indarkeriaren larritasunaz behar beste ez konturatzeagatik, etab.), ez baitaude jasota erabili ohi diren erregistro ofizialetan. Horrek zailagoa egiten du arazoaren dimentsioaren argazki osoa eskaintzea.

Kasu gehiago detektatu diren arren, ebidentziak falta dira jakiteko biktima kopuruak ere gora egin duen edo datuek salaketari buruzko kontzientziario handiagoa dagoela soilik adierazten duten. Bereziki garrantzitsua da indarkeria modu batzuen **prebalentziari buruzko datuak** ezagutzeko ikerketa sustatzea; hau da, indarkeria pairatu duten emakumeen ehuneko zein den ezagutzeko ikerketa sustatzea, agintariek ez baitute beti gertaera guztien berri izaten.

**Garrantzitsua da, halaber, datu-erregistro guztiak koordinatzen jarraitzea, horiek batuta lurraldeen konparazioak egiteko aukera emango duen erradiografia bat lortze aldera; horren harira, garrantzitsua da irizpideak ere bateratzea. Dena den, positiboki baloratu behar da orain arte egindako lana eta EAEEn egun dagoen informazio-maila, Erakundeen arteko II. Akordioaren esparruan. Horren ildo beretik, Genero Berdintasunerako Europako Institutuak**

hainbat gomendio argitaratu ditu EBko herrialdeetan informazioa hobeto bildu dadin, eta adierazi du emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak biltzeko nahitaez bete beharreko erregelamendu batek egungo egoera hobetu dezakeela.

Nazioarteko gomendioak aintzat hartuta, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabei biktimaren izaera aitortu zitzaien, Genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa aldatuta, eta aldaketa hori haur eta nerabeentzako babes-sistema aldatzeko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa xedatutakoari jarraituz egin zen. Hala ere, **datuak erregistratzeko egungo sistemak ez du aukera ematen indarkeria horren eraginpean egoteagatik kalteak jasan dituzten seme-alaben kopuruari buruzko zifra argirik lortzeko**; dena den, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak horri irtenbidea emateko jarduerak abian jarri ditu, eta hurrengo edizioetan zenbait datu edukitzea aurreikusten da.

# ERREFERENTZIA DOSSIERRA

# DOKUMENTALEN

## Bibliografia

ALBERDI, I. eta MATAS, N. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. Bartzelona: La Caixa fundazioa, 2002. Gizarte Azterlanen Bilduma. 10. zk.

AMNISTIA INTERNAZIONALA. *Urteko Txostena 2011*. Giza eskubideen egoera munduan. Madril: Amnistia Internazionale (EDAI), 2011.

AMNINISTIA INTERNAZIONALA. *La trampa del género: mujeres, violencia y pobreza*. Madril: Amnistia Internazionale (EDAI), 2009.

AMURRIO, V. eta beste batzuk. *Violencia de género en las relaciones de pareja de adolescentes y jóvenes de Bilbao* in *Zerbitzuan*, 2010eko ekaina, 47. zk., 121-134. or.

APARICI, E. eta ESTARELLAS, C. *Historias de vida, Historias de violencia. Si mi pareja me hace daño, ¿por qué sigo con ella?* Bartzelona: Aresta argitaletxea, 2010.

ARARTEKOA. *Emakumeen Kontrako Indarkeriari Erakundeek Emandako Erantzuna EAEn*. Txosten berezia Eusko Legebiltzarrari. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003.

ARARTEKOA. GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO JARDUNALDIEN BILDUMA. *Haurrenganako sexu-abusua. Gizarte osoa interpelatzen duen errealitate konplexua*. Vitoria-Gasteiz, 2018.

ASOCIACIÓN PARA EL PROGRESO DE LAS COMUNICACIONES. *Voces desde espacios digitales: violencia contra las mujeres relacionada con la tecnología*. Laborpen-txostena. Asociación para el Progreso de las Comunicaciones, 2011.

ARGITUZ, GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA. *Txostena: Bizkaiko landa-ingurunean genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek laguntza, arreta eta justizia zerbitzu zein prestazioetarako benetako sarbidea izateko dituzten beharrizanak eta oztopoak identifikatzea*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintzako Saila, 2015.

AYLLON, E (koord.). *En la Violencia de Género no hay una Sola Víctima. Atención a los hijos e hijas de mujeres víctimas de violencia de género*. Save The Children, 2011.

BAÑUELOS, A. eta CASTAÑOS, A. (koord.). *Haurrenganako sexu-abusuak. Indarkeriak ikusaraziz*. Bilbo: Eraikiz Kolektiboa, 2016.



BEAUMONT, A. eta beste batzuk. *Diagnóstico sobre la violencia ejercida contra las mujeres con discapacidad de Pamplona*. Iruñea: COCEMFE Navarra eta Iruñeko Udala, 2016.

BONINO, L. «Los micromachismos» in *Revista La Cibeles*. Madril: Madrilgo Udala, 2004; 2. zk., 1-4 or.

CABRERA, R. (koord.). *Análisis de medidas para mejorar la protección policial y judicial de las víctimas de violencia de género*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa, 2011.

CANTERA, I. eta ESTÉBANEZ, I. eta VÁZQUEZ, N. *Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo*. Bilbo: Emakunde, Eusko Jurlaritz eta BBK, 2009, 105. or.

